

Miguel Unamuno

Abel Sanchez

**euskaratzaileak: Miren Arratibel
Aintzane Atela**

Fitxategi hau “liburu-e” bildumako alea da,
liburu elektronikoen irakurgailurako prestatua.

Liburu gehiago eskuratzeko:

<http://armiarma.com/liburu-e>

Itzulpena: Miren Arratibel, Aintzane Atela.

Euskarazko edizioa: Literatura unibertsala, 1992

Jatorrizkoaren data: 1917

Miguel Unamuno euskaraz:

<http://ekarriak.armiarma.com/?i=318>

Informazio gehiago:

<http://armiarma.com/emailuok/?p=838>

BIOGRAFIA DATUAK

Miguel de Unamuno Bilbon jaio zen 1864ko irailak 29an eta Salamancan hil 1936ko abenduak 31n. Bere bizitza bi gerratek mugatzen dute; karlistadak batetik eta Espainiako Guda Zibilak bestetik.

Bilbon Batxilergo ikasketak bukatu ondoren, Madrilen hasi zituen Filosofia eta Hezkuntz Zientziak ikasketak. Hauek amaituta bere sorterrira itzuli zen eta lortu ez arren, saiatu zen bere fedea berpizten. Katedra aterata Salamancan ekin zion literatura irakaskuntzari eta garai honetan hasi zen bere lehen entseiuak idazten: *En torno al casticismo, La crisis del patriotismo...* 1901-14 bitartean Salamancako Unibertsitatean erretore izan zen eta estatuko intelektualik garrantzitsuena bilakatu zen tarte horretan, jenero ezberdinak landu zituelarik. 1923. urtean Fuenteventurara erbesteratu zuten Primo de Riveraren diktaduraren aurka azaltzeagatik. Handik Frantziara ihes egin zuen 1930. urtean diktadura bukatu zen arte.

Garratzak izan zituen bere azken urteak ere. Gerrate Zibila hasi aurretik errepublikak «Ciudadano de Honor» izendatu zuen baina gerora, Francori boterea eman zion «Alzamiento Nacional» dalakoaren alde egin zuen eta azkenik, Francoren aurka ere agertu zen honen ondorioz galduaz erretoradutza.

Arestian aipatu gorabeherak eragin handia eduki zuten bere pentsamenduan. Giro oso erlijiosoan hezi zuten Bilbon baina Madrilerako joatearekin batera, barne gatazka sortu zitzaion erlijio-tasun eta arrazionalismoaren arteko zalantzak zirela eta. Hala ere, hirugarren etapa bat aipa genezake bere bizitzan zehar ezagutu zituenen artean; erlijioa oinarri hartu zueneko, alegia. Honen arabera, bere pentsamenduaren oinarri dugu erlijioa.

ABEL SANCHEZ

1917an lehen aldiz argitaratua, ez du arrakasta handiegirik lortu gaur egunerarte, hizkuntza desberdinetara itzulia izan delarik.

Obra hau ezagututa, bere teoriari dagozkion oinarriak ere ezagut ditzakegu, bertan jasoak baititu egileak bere iritzia eta irizpide nagusiak.

Hasteko, kontutan hartu behar duguna hauxe da: bere ikuspegiaren arabera, idazle batek sortutako pertsonaiak, bereak diren aldetik, autore horren zati bat dira. Azkenean, pertsonaiak ideietara murrizten ditu eta bere esperientziatik tratatzen ditu gaiak, honela aztertuz gizakiaren barne grinak, «hediondas simas del alma humana» derizkionak hain zuzen. Lan gehientsuenak bezala, bere bizitzan eragiten duten barne gatazkak azaltzen ditu autobiografikoki, baina azkenean, zabaldu ere egiten ditu eta erakutsi nahi digu, bere esperientziatik abiatzen bada ere, gatazka horiek gizaki guztiongan ematen direla, orokorrak direla.

Gatazka horiek aztertzea helburu, teknika moldatzen du bere nahiak bete ahal izateko, berrikuntza teknikoak sortuz.

Abel Sánchez idatzi zuenerako bazterturik zuen nobela historikoa, eta hauek ez zituenaren erakusgarri dugu bere lanak toki eta garai zehatzetan ez kokatzea.

Hauxe da bere estiloa hain «zakarra», gogorra izatearen arrazoia, hornidura gutxiz lagundutakoa alegia. Egiturak hezurdura hutsa dira, izan ere, Unamunok ez baitu nahi irakurlearen arreta giza grina eta ekintzetatik urruntzea. «No he querido distraer al lector del relato del desarrollo de acciones y pasiones humanas» dio *Abel Sánchez*-en sarreran. Honela betetzen ditu bere nobela poetikoaren bi ezaugarri nagusi, bere lanak denbora eta espazioaz abstrakzio eginez osatzea batetik, eta haietan mamira jotzea, ekintzen muinera jotzea bestetik. Hala ere, kontutan hartu zuen bere estiloa latza zela eta sartu izan zituen paisai deskribapenak eta halakoak, baina nagusiki lauak ditugu bere lanak zentzu honetan.

Abel Sánchez-en kontatzen zaigun istorioa zuzena da bestalde, ez da hariaren alboetara garatzen. Pertsonaia nagusiaren haurtzarotik heriotzara doa kontakizuna tarterik egin gabe eta adar gutxi txertatzen ditu hari nagusian. Adibide ditugu «Sablista aragonés» deitutako pasarte edo emazte nardaztu baten arazoa aipatzen digun hura, baina urriak dira.

Atalek ez dute aurrera egiten, kontzentrikoak dira, egoera berdinetara itzultzen da beti, abiapuntuetara, eta tolesdura baten antzera gainjartzzen zaizkie batzuk besteei. Joaquin-Cain-ek bere baitako infernua ezagutzen duenetik, konponbide bila arituko da, infernu horretatik nola atera asmatu nahian: medikuntzan arituko da, ezkondu egingo da, alaba eduki, alaba ezkondu... Baina ezintasunaren horma joko du behin eta berriz.

Pertsonaia nagusiaren barrua «Aitormen» gisa ezagutarazten digu lehenik, eta «Oroitza-pen» moduan gero. Ikuspuntu bi hauen bidez azaltzen du errealitate horren osotasuna Unamunok, honela adierazten digu esandako hitzen arintasuna idatzitakoen sakontasunak osatzen dutela.

Hizkuntza neutroa da elkarrizketa zein aitormenetan. Lehenengoak labur eta zehatzak ditugu eta luzeagoak bigarrenak, baina obra koherentea dugu eta fondoak forma behartzen du batera zein bestera.

Bestalde, zenbait hitz agertzen da obran etengabe, eta hauek dira nobelaren sistema

linguistikoa finkatu eta mugatzen dutenak, Unamunoren hiztegia osatzen dutenak gainera.

Nagusia izanorde pertsonala du: «ni»-a, «bera». Hasera-haseratik agertzen dira. «Ordu-rako atzegina zen bera, ez nekien zergatia, eta ni berriz zakarra» dio Unamunok obraren bigarren orrialdean.

Bere subjektibotasunetik abiaturik gizakiaren objektibotasunera garamatzen kontrajarketak ere aipagarri ditugu. Hauek, osotasunaren bikoiztasuna adierazten dute, «ni»-an bizi den gatazkaren bikoiztasuna. Honen adibide dugu pertsonaiak bikoteka egituratuta agertzea adibidez.

Dena dela, ez dago oraindik lexikoari buruzko azterketa sakonik.

Gaiari dagokionez bekaizkeria agertzen da nagusi. Bekaizkeriari loturiko pertsonaia baten bizitza kontatzen digu, eredu unibertsal bezala hartuz, bekaizti eredu bezala.

Esan beharra dago, lexikoa, egitura eta estiloa bezala, aurretik ere jorratutako gala duela Unamunok.

Bekaizkeriaren nobelatzat hartu izan da Abel Sánchez, baina hori baino gehiago, autorearen autobiografia gisa har genezake eta hortik abiatuz, gizadiaren irudia gisa.

ABEL SANCHEZ

Ez zekiten Abel Sánchez eta Joaquin Monegro-k noiztik ezagutzen zuten elkar. Ezagunak ziren haurtzaroa baino lehenagotik, haur txikiak zirenetik, bakoitzaren inudeak elkarrekin egoten baitziren eta umeak ere elkartu egiten baitzituzten, artean ez zekitela hitz egiten ere. Bere burua ezagutzen ikasi zuten bestea ezagutzuz. Eta horrela bizi izan ziren eta lagun egin ziren jaiotzatik, lagun baino gehiago batera hezitako anai.

Beraien paseotan, jolasetan, lagun artean Joaquin, borondatetsuena, nagusi zela eta aurre hartzen zuela zirudien; baina amore ematen zue-narena eginez, Abelek bereari eusten Zion beti. Nahiago zuen esana ez egitea agintzea baino. Gutxitan haserretu ohi ziren.

Berdin zaidak, hik nahi duana!...», esaten zion Abelek Joaquinari eta hau sutan jartzen zen halakotan, «hik nahi duana!» esanda saihesten baitzituen hark sesioak.

— Inoiz ez didak ezetz esaten!... —zioen Joa-
quinek.

— Zertarako bada? —besteak.

— Beno, gu Pinudira joaterik ez dik nahi
honek —esan zuen behin Joaquinek zenbait
lagun pasiora zihoazela.

— Nik? Nahiko ez diat bada!... —esan zuen—
. Bai, motel, bai; nahi duan bezala. Goazemazak!

— Ez, nik nahi dudan bezala ez! Esan diat
bestetan ere ezetz! Nik nahi dudan bezala ez!
Hik ez duk joan nahi!

— Baietz motel...

— Ba orduan ez diat neuk nahi...

— Ezta neuk ere...

— Horrek ez dik balio —oihukatu zuen—.
Berarekin edo nerekin!

Hala Abelekin joan ziren denak, Joaquin baka-
rrik utzita.

Joaquinek, bere Aitormenean haurtzaroko
gorabehera hau kontatzean horrela zioen:
«Ordurako atsegina zen bera, ez nekien zerga-
tia, eta ni berriz zakarra, ez nuelarik atzematen
honen arrazoia ere, eta bakarrik uzten ninduten.
Txiki txikitatik baztertu ninduten nere lagunek».

Batxilergoa egiten ari zirenean ere, elkarrekin, Joaquin zen ikasle amorratua, sariak lortu nahian ibiltzen zena, punta-puntakoa ikas gelan, eta Abel buru-burua haietatik kanpo, Institutuko jolaslekuan, kalean, mendian, piper egiten, lagun artean. Abel zen bere txantxeekin jendeari barrea eragiten ziona, era batez ere, txaloak jasotzen zituen katedratikoei egiten zizkien irudiengatik. «Joaquin askoz ere gehiago saiatzen da, baina argiagoa da Abel... ikasten hasiko balitz».

Lagunek zuten eritzi hau ondo ezagutzen zuen Joaquinek eta ez zion barrua belztu baino egiten. Inoiz otu zitzaion ikasketak uztea ere lagunari beste atal batzutan aurrea hartzeko; baina bere buruari «Ba, horiek ez dakite ezer...» esan eta bere senak agintzen zionarekin jarraitu zuen. Bestearen zaletasun eta trebetasunak garaitzen saiatuagatik ere ez zuen lortzen halakorik. Bere txantxak ez zituzten gustokoak eta serio iruditzen zitzaion jendeari.

Zu negargarria zara —esan ohi zion Federico Cuadrado—; zure txantxak hileta txantxak dira».

Biek amaitu zuten Batxilergoa. Abelek, artista lanari ekin zion pintura ikasketak jarraituaz, eta Medikuntza Fakultatean matrikulatu zen Joaquin berriz. Sarritan ikusten zuten elkar eta bakoitzak bere ikasketetan emandako aurrerapausoak kontatzen zizkion besteari, Joaquinek ahaleginak egiten zituelarik Abelek uler zezan Medikuntza artea ere bazela eta arte ederra gainera, inspirazio poetikoa ere zeukana bere baitan. Bestetan aldiz, artederrak gutxiesteari ematen zitzaion, hauek ahultzen baitute izpiritua, eta zientzia goraipatzen zuen, hau baita izpiritua goratu, sendotu eta zabaltzen duena egiaren bidez.

— Baina Medikuntza ez duk zientzia ere — esaten zion Abelek—. Artea baino ez duk, zientziatik sortutako egintza bat alegia.

— Ni ez nauk arituko gaisoak sendatzen ordea —erantzun zion Joaquinek.

— Lanbide zintzo eta onura handikoa gero... —ondotik besteak.

— Bai, baina hori ez duk neretzat. Izango duk hik nahi duan zintzo eta onuragarria baina nik gorroto diat zintzotasun eta onuragarritasun

hori. Beste batzuk egitea ditek dirua pultsoa hartzen, mihia begiratzeko eta edozein sendagai ematen. Nik haruntzago iritsi nahi diat.

— Haruntzago?

— Bai, bide berriak jorratzea duk nere helburua. Ikerkuntza zientifikoan arituko nauk. Medikuntzan ospea irabazi dutenak gaixotasunen baten oinarrizko gakoak aurkitu dituztenak dituk eta ez aurkikuntza hori zorionez edo zoritxarrez erabili dutenak.

— Pozten nauk hi horrela ikusteaz, hain idealista.

— Zer uste huen bada, hi bezalakoek bakarrik, artistek, pintoreek egiten dutela amets ospea lortzearekin ala?

— Aizak, inork ez dik esan hori espero dudarik...

— Ezetz? Orduan zergatik sartu haiz pintore?

— Asmatuz gero, lanbide ona delako...

— Ona?

— Zera, bai, dirua ematen duena.

— Kopla horrekin alferrik hator neregana, Abel... Lagunak gaituk jaio gintuanetik. Neri ez

didak ziririk sartuko. Ondo asko zekiat nolakoa haizen.

— Ibili al nauk bada inoiz hiri iruzur egin nahian?

— Ez, baina nahi gabe sartzen duk hik ziria. Ezertxo ere aintzakotzat ez hartzearen itxura dik, bizitza jokutzat edukitzearenarena, dena bost axola zaionarena, handinahia daukak benetan...

— Handinahia?

— Bai, handinahi gosea daukak, aipuarena, ospearena... Betidanik halakoa izan haiz, jaio ordutik. Ezkutuan izan baduk ere.

— Hator hona, Joaquin eta esaidak: noizbait traba egin al diat sariak eskuratzeko orduan? Ez al hintzen bada izan hi klasean argiena beti? Etorkizuna zeukaken mutila?

— Hi hengoen baina guztien gainetik, lagunek begirunea ziaten, hi...

— Eta zer egin nezakean nik?

— Zer sinestarazi nahi didak, ez huela bilatzen askoren begiko izatea?

— Aizak, hik ere baheukan hori lortzea!

— Nik? Nik? Jendetza gaitzesten diat eta!

— Beno, hi, ez zaidak tontakeriarik esan eta ahaz itzak. Hobe izango diagu berriro ere hire andregaiari buruz hitzegitea.

— Andregaia?

— Beno, hire lehengusina horretaz, andregaitzat nahi duan horretaz.

Joaquin nonbait, Helena, bere lehengusinarekin bihotza bereganatu nahian zebilen eta ahalgin horretan zeukan jarria bere gogoaren indar bateratu eta jeloskor guztia. Eta bere bihotz hustutzeak, beharrezko eta komenigarri diren borrokan dabilen maitemindutakoaren bihotz husteak, bere lagunarekin, Abelekin, izaten zituen.

Zenbateraino mintzen zuen Helenak!

— Geroz eta gutxiago ulertzen zioat —esaten zion Abeli—. Neskak hori esfinge bat duk nerezat.

— Badakik zer esaten zuen Oscar Wildek, edo auskalo zeinek: emakume guztiak direla sekreturik gabeko esfingeak.

— Ba, Helenak badiakak, antza. Besteren bat maiteko dik, honek ez bazekik ere. Ziur negok beste bat maite duela.

— Zergatik bada?

— Alegia, ez haelako hi maite..., senargaia bezala, lehengusu bezala maite hau eta...

— Ez zaidak adarrik jo!

— Beno, maite ez haelako senargai bezala, edo senar bezala, beste norbaitekin maiteminduta egon behar al dik? Hori duk logika, hori!

— Bazekiat zertaz ari naizen!

— Bai, bazekiat neuk ere.

— Heuk?

— Ez al haiz hi saiatzen ni ongien ezagutzen naizena izaten? Zer duk hada, orduan hi ezagutu nahi izatea nik? Basera ezagutu gintuan.

— Ziur negok emakume horrek zoratu egingo nauela eta burua galduaraziko didala. Jolasean ari duk nerekin. Hasera haseratik esan balit ezetz, ongi zegok, baina horrela egon beharra, ikusi duela esanez, pentsatuko duela, gauza horiek ez dituk pentsatu beharrekoak..., txolin alen hori!

— Hirekin zelatan zegok.

— Zelatan? Ba al zeukeat nik aztertze korik bada? Zer mia dezake berak?

— Joaquin; hire burua makurtzen ari haiz, eta baita berea ere.

Edo zer uste duk, hi ikusi eta entzun eta bera maite duala jakin orduko heureganatuko hukeela?

— Bai, zera, inoiz ez nauk izan atsegina eta!

— Beno, motel, ez hadi estutu...

— Baina emakume hori nerekin jolasean ari duk! Ez zegok ondo ni bezala eskuzabala, leiala, irekia... den batekin jolasean aritzea. Ikusiko bahu nolako ederra den! Batzutan ez zekiat maite ala gorroto zioaten!... Nahi al duk Helena aurkeztea?

— Hik nahi baduk...

— Ongi duk, aurkeztuko diat.

— Eta berak nahi izanez gero...

— Zer?

— Bere irudia egingo zioat.

— Bai, motel!

Gau hartan ordea gaizki lo egin zuen Joaquinek irudia zela eta, marmarka batean eta burutik kendu ezinik Abel Sánchezek, nahi gabe ere atsegina zenak, askoren begikoa zenak, Helena irudikatuko zuela.

Zer gertatuko ote? Helenari ere beraien lagun-
nen antzera, Abel atseginagoa irudituko al

zizaion Joaquin baino? Bata besteari ez aurkeztea ere pentsatu zuen baina hitza emana zioenez...

— Zer iruditzen zaik nere lehengusina? Joaquinek Abeli, neska aurkeztu eta irudia egitearen asmoa Helenari agertu ondoren, honek ideia atseginez hartu zuela.

— Beno, egia nahi al duk?

— Egia beti, Abel, egia esango bagenio batak besteari, egia osoa, hau paradisua huke.

— Bai, eta bakoitzak bere buruari egia esango bagenio...

— Esaidak egia bada!

— Egia esan, Helena, hire lehengusina eta andregaia, behar bada emaztea ere, indioilar bezala ikusten diat...; indioilar emea, alegia. Ulertzen didak.

— Bai ulertzen diat.

— Pintzelaz baino mintzatzen ez zekiat eta...

— Eta indioilarra, edo indioilar emea pintatu-ko duk bere buztana zabaldua daukala edota begiz beteta, bere burutxo...

— Modelo ezin hobea! Zoragarria, hi! Nolako begiak! Nolako ahoa! Aho mamitsua eta aldi

berean zimurra, begiratzen ez duten begi horiek... Nolako lepoa! Zer esanik ez azalaren kolorea! Mintzen ez bahaut...

— Ni mindu?

— Esango diat indiar basati baten kolorea duela edo hobe, basapiztiarena. Badizkik pizti ezaugarriak, hoberenak noski. Eta hotza duk gainera.

— Bai horixe!

— Orain irudi on bat egitea espero diat.

— Neri? Berari, ezta?

— Ez, irudia berari egingo zioat baina hiretzat.

— Ez, hori ez; irudia beretzat izango duk!

— Ondo da, bientzat. Batek zekik... Behar bada horrela elkarganatzeari lortuko diat.

— Bai, hori, irudiak egitetik...

— Nahi duana egitera, Joaquin, maiteminduak elkartzera, hainbeste sufritzeari utziko badiok. Hi horrela ikusteak min ematen zidak.

Ekin zioten irudia egiteari, hirurak biltzen zirelarik. Helena bere aulkian esertzen zen handiro eta hotz, nardaztua, patuak eramana den jainkosa bat bezala. «Hitzegin dezaket?» Galde-

tu zuen lehenengo egunean eta Abelek erantzun: «Bai, hitz egin dezakezu eta baita mugitu ere; neretzat hobe da, horrela fisonomiari bizia ematen diozu eta. Hau ez da argazkigintza eta gainera ez zaitut nahi estatua moduan...» Bera hizketan, hizketan baina gutxi mugituz eta ondo zainduz bere planta. Zer zioen? Mutilek ez zekiten. Adi adi begiratu baino ez baitzioten egiten batak zein besteak; begiratu bai, baina entzun, ez.

Eta bera, hitz egin eta hitz egin egokia iruditzen zitzaiolako ixilik ez egotea, eta hitz egiten zuen Joaquin ahal zuen neurrian zirikatuz.

— Bezero asko al dituk, lehengusutxo? —galdetzen zion.

— Hainbeste axola al zain?

— Nola ez zaidak bada axolako, gizona, nola ez? Ez dakik zenbateraino!

— Ba, ez, ez zekinat.

— Hik neri eskaintzen didaken begirunea kontutan hartuta, gauza bera egiten diat hiregatik. Eta gainera batek zekik...

— Batek zekin zer?

— Beno, utz ezazue hori —artetik sartu zen Abel-ez duzue eztabaidatu baino egiten.

— Hala gertatu ohi da —esaten zuen Helenak— senditartekoen artean. Eta gainera, hala hasten dela esaten dute.

— Zer hasten dunala? —galdetu zuen Joaquinek.

— Hire gauza duk hori, lehengusu, hi hasi haiz eta.

— Honekin bukatzea izango dun egingo dudana.

— Modu asko zeudek bukatzeko, lehengusu. Hasteko ere bazeuden moduak.

— Zalantzarik gabe. Aizu, keinu hauek egin-da 'rud'a lardaskatzen al dut?

— Ez, ez; ezta gutxiago ere. Keinu horiek, zuk esaten duzun bezala, indartu egiten dute begirada eta jarrera. Baina...

Bi egun barru hika egiten zioten elkarri Abel eta Helenak: horrela nahi izan zuen Joaquinek, ez baitzen agertu hirugarren saiora.

— Ea, ea, nola diok? —esan zuen Helenak irudia ikustera joateko jaikita.

— Zer deritzon?

— Nik ez diat ulertzen, gainera ez nauk gai esateko nere antza daukaan edo ez.

— Zer? Ez al dun ispilurik? Ez al haiz sekula bertan ikusi?

— Bai, baina...

— Baina, zer?

— Ez zekiat bada...

— Ez dun ikusten behar bezain polita hire burua ispilu honetan ala?

— Ez hadi izan lausengaria.

— Ondo dun, Joaquini galdetuko zionagu.

— Joaquini buruz ez iezadak hitzik ere egin, mesedez. Bai aspergarria!

— Berari buruz egin behar dinat bada!

— Hala baduk, baniak.

— Ez, eta entzun ezan, mutil horrekin egiten ari haizena ez zegon batere ondo.

— Orain haren alde egin behar duk, ala? Aitzakia hutsa al duk irudia egitearena?

— Aizan, Helena, ez zegon ondo horrela ari-tzea hire lehengusuarekin jolasean. Bera zera dun, zera...

— Bai, jasanezina!

Ez, bera barnekoia dun, artoa, burugogorra, berekoia, baina ona, zintzoa benetan, argia; etorkizun handia din bere lanean: maitasun sutsua din.

— Eta hala ere neuk ez badiat maite?

— Begiak ireki behar dizkion orduan.

— Ireki zizkioat eta! Nekatu nauk esateaz mutil jatortzat daukadala baina horrexegatik, mutil jatortzat daukadalako, lehengusu ezin hobetzat eta ez diat txantxarik egin nahi, horrexegatik ez dudala senargai hartu, horrek dakarren ondorioekin.

— Ba berak dioenez...

— Bestelakorik esan badik ez dik egia esan Abel. Kalera bidaliko al diat eta nerekin hitzegitea debekatuko al zioat nere lehengusua izanik? Lehengusua! Bai barregarria!

— Ez iezaion iseka egin.

— Baina ezin diat eta!

— Eta bere susmoa handiagoa din, tematzen dun bera maite ez dunanez ixilpean beste norbaitekin maiteminduta hagoela sinesten.

— Hori esan al dik?

— Bai, hori esan zidan.

Helena, ezpainak estutu, gorritu eta ixildu egin zen une batez.

— Bai hori esan zidan —berriro, Abelek, eskuineko eskua atsedenean jartzen zuela marge, ehuna eusten zuen makilan eta zorrotz begiratzen zuela Helena, asmatu nahian bere aurpegiko seinaleren baten zentzua.

— Ba, horretan tematzen baduk...

— Zer?

— Lortuko duela ni besteren batekin maite-mintzea.

Arratsalde hartan ez zuen gehiago margotu Abelek. Eta ezkongai egin ziren.

III

Arrakastatsua gertatu zen oso Abelek Helenari egindako irudia.

Beti zegoen norbait hau erakusketan jarri zuten erakustokiaren aurrean begira. «Badugu beste pintore on bat», zioten. Eta Helena saiatzen zen bere irudia erakusketan zegoen lekutik pasatzen, esaten zirenak entzuteko eta bizia duen irudi hilezkor baten moduan ibiltzen zen hiriko kaleetan zehar. Ez al zen bada, horretarako jaioa? Joaquinek ez zuen lorik egiten kasik.

— Sekula baino okerrago ari duk —esan zion Abeli—. Oraingoan ari duk bai, nerekin jolasean. Akabatu egingo niak.

— Noski! Dagoeneko edertasun profesionalizat dik bere burua.

— Bai, betikotu egin duk! Beste Gioconda bat!

— Baina hik ere, sendagile haizen aldetik, bizitza luza diezaiokek...

— Baita moztu ere.

— Ez hadi horrela jarri, trajiko.

— Eta zer egingo diat Abel, zer egingo diat?

— Eduki ezak pazientzia.

— Gainera, berak esandakoagatik jakin ahal izan diat nola kontatu dioan, nik beste norbaitekin maiteminduta dabilela uste dudala.

— Hire mesederako izan huen.

— Nere mesederako... Abel? Abel, bere alde hago..., biak ni engainatu nahian zabiltzate.

— Engainatu? Zertan? Zerbait eskaini al dik?

— Eta hiri?

— Hire andregaia duk ala?

— Hirea al duk dagoeneko?

Abel ixilik geratu zen eta aurpegia aldatu egin zitzaion.

— Ikusten? —motel eta dardarka Joaquinek—
. Ikusten?

— Zer?

— Ukatu egingo duk orain? Ausartuko al haiz ukatzera?

— Ondo duk Joaquin, lagunak gaituk ezagutu aurretik, anaiak bezalatsu.

— Eta anaiari atzetik ostikoa, ez al duk hala?

— Ez hadi sutan jarri, eduki ezak pazientzia.

— Pazientzia? Ez al duk bada, nere bizitza etengabeko pazientzia? etengabeko oinazea? Heu atsegina, heu goratua, heu garailea, heu artista. Eta neu...

Begietatik jauzitako malkoek mututu egin zuten.

— Zer egin behar nian, Joaquin, zer nahi huen bada, nik egitea?

— Ez hireganatzea heukan, neuk maite nian eta!

— Baina bera izan duk eta, Joaquin, bera izan duk...

Noski, hiri artistari, zorionekoari, zorionaren begikoari, atzetik ibiltzen zaizkik neskak hiri. Hire besotan duk bada...

— Neu negok bereetan, esan diat.

— Bai, harrapatu hau indioilarrak, edertasun profesionalak, Giocondak. Bere pintorea izango haiz. Irudikatuko duk egokera eta era guztietan, agerian, jantzita eta biluzik.

— Joaquin!

— Eta betikotu egingo duk. Hire koadroak adina biziko duk; biziko duk, ez! Helena ez duk bizi eta, iraun egingo dik. Iraungo dik marmola

bezala, bera halakoa baituk. Harrizkoa delako, hotz eta gogorra, hotz eta gogorra hi bezalaxe. Haragi hutsa!

— Esan diat ez jartzeko sutan.

— Nola ez bada, nola ez nauk sutan jarriko!

Hau zitalkeria duk, zatarkeria!

Lur jota sentitu era isildu egin zen bere grina-ren gogortasuna adierazteko hitzik ez balu bezala.

— Baina hator hona, motel, —esan zion Abelek, bere ahotsik gozoenaz, beldurgarriena zenaz— eta pentsatu. Lortuko al nian berak hi maitatzea ez bahau maite nahi? Senargai bezala ez haiz...

— Noski, ez nauk inoren gogoko; zoritxar jaio nindukan.

— Zin dagiat, Joaquin.

— Ez zin egin!

— Zin dagiat nere esku balego Helena hire andregaia izango litzatekeela eta bihar emazte. Eman ahal izango banik...

— Dilista plater baten truke salduko hidake, ez al duk hala?

— Ez, saldu ez! Dohain emango niake eta zuek zoriontsu ikusteaz poztuko nintzateke, baina...

— Bai, ez nauela neu maite eta heu maite hauela, ez al duk hala?

— Hala duk!

— Bere atzean zebilena baztertu egin duala eta bera baztertzen zuenaren atzetik dabilela orain, alegia.

— Hori duk! Sinesten ez baduk ere, liluratua niauka.

— Hori duk haizea hartzea! Nazka ematen didak!

— Haizea hartzea?

— Bai, batek hi liluratzea izatea bestea liluratzeta baino gehiago duk. Gizajoa! Hiregatik borrokan zebiltzak emakumeak...

— Ez nazak atera nere onetik, Joaquin...

— Hi hire onetik atera? Hau zatarkeria duk, zitalkeria, makurkeria... Gure pertzak egin dik!

Gero ahotsa aldatu, ahotsean negargura adieraziz:

— Errukitu hadi Abel, errukitu hadi. Begira nola begiratzen nauten zeharka, begira zenbat

traba dauzkadan... Hi gaztea haiz, zorionekoa, maitatua, nahi adina emakume duk! Utzidak Helena niri; honez gero ezin izango diat neska-tan ibili... Utzidak Helena...

— Uzten diat eta...

— Ni entzutera bultzatu, ni ezagutzera bul-tzatu, beragatik hilko naizela jakin erazi iezaiok.

— Ez duk ondo ezagutzen...

— Bai ezagutzen zaituztet! Baina, Jainkoo-
rren, zin egidak ez haizela ezkonduko berare-
kin...

— Eta nork aipatu dik bada ezkontza?

— Beraz, ni jeloskor jartzeko izan duk beste-
rik gabe? Bera marilasterra baino ez duk, mari-
laster bat baino...

— Hago isilik! —orroaka Abelek.

Hainbestekoa izan zen orroa Joaquin isilik
gelditu zela beste ari begira.

— Ezinezkoa duk, Joaquin, hirekin ezin duk!
Ezin diat hirekin! Eta joan egin zen Abel.

Izugarrizko gaua pasa nuen —idatzi zuen
bere Aitormenean Joaquinek— ohean alde bate-
tik bestera, tarteka burukoa koska egiten nuela,

garbiontziko txarrotik edatera jaikitzen nintzela. Sukarra eduki nuen.

«Tarteka lokartzen nintzen amets garratze-tan. Biak hiltzea pentsatu eta prestatu ere egiten nituen nere gogoan mendeku odoltiaren xehetasunak, sortzen nihoan drama edo nobela bat bailitzan, eta trebeki moldatzen nituen beraiekin elkarrizketak. Nere ustetan Helenak lotsarazi nahi ninduen eta ez besterik, ni gutxietsi nahian maitemindu zuen Abel. Egunarekin batera eta hainbeste min jasan ondoren etorri nintzen nere onera, ulertu nuen ez nuela inolako eskubiderik Helenarengan baina Abel gorrotatzen hasi nintzen eta era berean erabaki nuen gorroto hori ezkutuan edukitzea, ongarritzea, haztea eta nere baitan gordetzea bazterrik ezkutuenean. Gorrotoa? Oraindik ez nion izen hori jarri nahi eta ezta onartu nahi ere gorrotoaren haziarekin jaioa nintzela. Gau hartan hasi zen nere bizitzaren infernua.»

IV

— Helena —esaten zion Abelek—. Joaquinen arazoak loa kentzen zidan!

— Zein arazok?

— Bazirudin lasaitu dela eta onartu duela gure harremana.

— Bai, ona duk bera amore emateko!

— Ez gaitun erabat zintzoak izan.

— Zer diok? Hi ere hala? Emakumeok animaliak bezala utzi eta ordainez eman eta alokatu eta saldu egingo al gaitun bada?

— Ez, baina...

— Baina, zer?

— Bera izan huen aurkeztu gintuena irudia egiteko eta nere onerako erabili ninan...

— Eta ondo erabili ere! Ni beraiekin hitzemandana al nengoen? Eta hala balitz ere! Bakoitzak berea.

— Bai baina...

— Zer? Damu zaik hala? Bada neregatik... Orain ere, hirekin hitzemandana nengoela eta denek zekitela nere senargaia haizela eta egun

batetik bestera eztei eske etorriko haizela, utzi egingo banin duk ere, ez nintzateke Joaquinen bila joango, ez! Makina bat senargai izango niake horrelaxe, eskuan behatzak adina-eta bere eskuak jaso zituen, behatz hezurtsuak zituztenak. Abelek horrenbesteko maitasunez marraztutako behatzak eta Helenak astindu egiten zituen, hegan baleude bezala.

Abelek bi eskuak hartu zizkion bere esku sendoen artean, ezpainetara eramane eta musukatu zituen luzaroan. Eta ondoren ahoan eman zion musu.

— Hago geldik Abel!

— Arrazoia dun, Helena, ez dinagu gure zorientasuna aztoratuko Joaquin gizajoaren atsekabe eta oinazeagatik.

— Gizajoa? Bekaizti bat besterik ez duk!

— Baina, bazeuden Helena bekaizkeria batzuk...

— Izorra dadila!

Ixiltasun beltzeko etenaldiaren ondoren:

— Ezteietara gonbidatuko diagu, jakina...

— Helena!

— Zer txar zeukak horrek? Nere lehengusua duk, hire lagun mina, berari zor zioagu elkar eza-gutzea. Hik ez baduk gonbidatzen neuk gonbida-tuko diat. Ez baduk joaten' Hobe. Joaten baduk? Ezin hobe!

V

Ezkontzaren berri eman zionean Abelek Joa-
quini, honek esan zuen:

— Hala izan behar huen. Nolakoari halako.

— Baina ulertuko duk...

— Bai ulertzen diat, ez nazak zoro zakartzat hartu; ulertzen diat, ondo zegok zoriontsu izatea. Nik ezingo diat izan eta...

— Baina, Joaquin, jainkoarren...

— Nahikoa duk, ez dezagun hitzegin gehiago hortaz. Zoriontsu egin ezak Helena eta berak ere egin zaitzala zoriontsu. Barkamena emana dizuet.

— Benetan?

— Bai, benetan. Barkatu nahi zaituztet. Neronek konponduko diat nere bizitza.

— Orduan ausartzen nauk gonbidatzera ezteietara, nere izenean...

— Eta bere izenean ere bai, ezta?

— Bai, berarenean ere bai.

— Ulertzen diat. Joango nauk zuen zoriona goratzera. Joango nauk.

Eztei opari bezala Joaquinek Abeli pistola damaskinatu eta bikain pare bat bidali zion; artista batentzako modukoak.

— Nitaz nazkatzen haizenean hire buruari tiro egiteko dituk —esan zion Helenak bere senar-gaiari.

— Hi haiz hi izatekoa!

— Batek zekik zer asmo duen. Horiek moldatzen ematen dik bizitza.

«Ezkontzera zihoazela esan zidan egunaren ondorengoetan —idatzi zuen Joaquinek— izoztu balitzait bezala sentitu nuen nere arima.

«Ezin nuen arnasarik hartu. Gogortu egin zitzaidan Helenarenganako gorrotoa eta batez ere Abelenganakoa, benetazko gorrotoa baitzen, bere sustraiak nere barrua betetzen zuten gorroto hotza. Ez zen landare gaizto bat, bai ordea, ariman zulatutako izotz koskorra, hobe esan nere arima zen gorroto hark erabat izoztu zuena. Izotz gardena zen gainera eta dena ikusten nuen argitasun osoz. Konturatzen nintzen arrazoia, benetazko arrazoia, beraiek zeukatela, nik ez nuela inolako eskubiderik Helenarengan. Ez dagoela indarrez hartzerik emakume baten mai-

tasuna; elkar maite zutenez bat egin behar zutela. Baina sentitzen nuen bestalde ni izan nintzela elkar ezagutzera eramán nituena, eta are gehiago, elkar maitatzera; ni gutxiestearren konpondu zirelako; ni zirikatzea eta mintzea zelako Helenaren asmoa, bekaiztea, Abelen aurrean makurtzea, eta honena berriz, berekoikeria, ingurukoen oinazea ikustea galerazten zion berekoikeria. Oharkabea... gainontzekoak bere koadroetarako modelo besterik ez ginen, zerbait izatekotan. Ez zion gorrotorik inori: hain zen berekoia!

«Arima gorrotoz izoztuta neukala joan nintzen ezteietara, bihotza izotz garratzetan gogortuta neukala, baina heriotza izuak hartuta nengoela, haien baietza entzutean, izotza zartatu eta bihotza pitzaturik han bertan hilik edo ergel moduan geratuko nintzelakoan. Hondamenera joango banintz bezala joan nintzen ni ezteietara. Baina gertatu zitzaidana heriotza bera baino hilgarriago izan zen; okerragoa, hiltzea baino askoz ene okerragoa. Nahiago nuke hantxe hil izango banintz!

«Oso ederra zegoen Helena. Agurtu nindue-
nean izotzezko ezpata batek nere bihotza zehar-
katu zuela sentitu nuen, izotza nere bihotzeko
izotzaren barruan, baina nere bihotza epela zen
ezpataren ondoan: eta bere irrifar lotsagabea
zen ezpata». «Eskerrik asko» —esan zidan eta
nik ulertu nuena «Joaquin gizajoa» izan zen. Bes-
teak, Abelek, besteak ez dakit ikusi ninduen ere.
«Bazekiat gogorra izan dela hiretzat» —esan
zidan zerbait esateagatik—.

Ez, inolaz ere ez —erantzun nion— esan nian
etorriko nindukala eta etorri nauk: zentzuduna
nauk, ezin nion huts egin nere lagun minari, nere
anaiari». Nere jarrerak eragin ziola zirudien
baina koadro bat egiteko adina! Han ni ez nin-
tzen inor!

«Zoritxarreko unea hurbiltzen zihoala, segun-
duak kontatzen nituen nik. Hemendik gutxira —
nioen nere buruari— dena bukatuko da nere-
tzat!» Uste dut bihotza ere gelditu egin zitzaida-
la. Argi eta desberdin entzun nituen bi baiezkoka-
k, batarena eta bestearena. Helenak bai esate-
rakoan begiratu egin ninduen. Lehen baino
hotzago gelditu nintzen, batere aztoratu gabe,

bihotzak taupadarik eman gabe, niri zegokidan ezer entzun gabe. Eta izuz bete ninduen guzti horrek. Mamu bat bezala sentitu nintzen, hilik egongo banintz bezala, izotz koskorra baino izango ez banintz bezala, betirakoa gainera. Nere gorputza ukitu, atximurtu eta pultsua hartu ere egin nuen. «Baina bizirik al nago? Eta neu al naiz?» —nere buruari.

«Ez dut gogoratu ere egin nahi egun hartan gertatutakoa. Ni agurtu eta joan egin ziren eztei bidaiara. Ni berriz nere liburuetan murgildu nintzen, nere ikasketetan eta etortzen hasiak ziren bezeroetan. Konponbiderik ez zegoela jakiteak burua argitu zidan eta arimarik ez zela konturatu nintzen, honek bultzatu ninduen bilatzera ikasketetan mugarik gabeko arrakasta lortzeko indarra, eta ez kontsolamendua —ez bainuen behar, ezta nahi ere—. Zapaldu behar nuen nere izenaren arrakastarekin hasi berria zen Abelen arrakasta; nere aurkikuntza zientifikoek, arte lanak zirenak, benetazko poesia, itzalean utzi behar zituzten bere koadroak. Helenak egunen batetan ulertu behar zuen neu nintzela, sendagi-lea, inoren begiko ez zena, ospez beteko zuena

eta ez bera, ez margolaria. Ikasketetan murgildu nintzen. Ahaztuko nituela ere pentsatu nuen! Lasaigarri eta era berean pizgarri bihurtu nahi nuen zientzia!»

VI

Senar-emazteak eztei bidaiatik etorri zirela, Abel gaisotu egin zen, itxuraz larri, eta Joaquini deitu zioten hura ikusi eta sendatzeko.

— Urduri negok, Joaquin —esan zion Helenak— bart deliratu besterik ez dik egin eta delirioan hi deitzen hinduen etengabe.

Joaquinek zehatz-mehatz aztertu zuen laguna eta ondoren, lehengusinari begietara begiratu zuen esan zuen:

— Larria dun, baina uste dinat sendatuko dela. Ni naun ordea irtenbiderik ez daukana.

— Bai, senda ezak —esan zion Helenak— eta badakik...

— Bai, dena zekinat! Eta joan egin zen.

Senarraren ohantzera joan zen Helena, kope-tan jarri zion bero-bero zeukan eskua eta dardarka hasi zen. «Joaquin, Joaquin —deliratzen zuen Abelek— barka gaitzak, barka nazak!

— Hago isilik —esan zion Helenak belarrira— hago isilik! Hi ikustera etorri duk eta esan dik

sendatuko hauela, osatuko hauela... Isilik egon behar duala...

— Sendatuko nauela?... —esan zuen makina bat bailitzan gaisoak.

Joaquin ere sukarrez iritsi zen etxera, baina izotzaren antzekoa zen honen sukarra. «Eta hil egingo balitz?...», zioen bere buruari. Jantzita etzan zen ohe gainean eta pentsatzen hasi zen Abel hilko balitz gertatuko zenari buruz: Helenaren dolua, alargunarekin edukiko zituen elkarrizketak, honen barne-kezkak Joaquin benetan nor zen ezagutzean eta nola, nolako indarrez behar zuen mendekua eta behar zuen Helena eta nola azkenik hau bere besotan jartzen zen eta onartzen zuen bestea, iruzurra, ez zela amets gaizto bat baino izan, marilasterraren amets gaiztoa eta bai, bera maite izan zuela, Joaquin eta ez bestea. «Baina ez da hilko» esan zion bere buruari. «Ez dinat hiltzen utziko, ezin diot utzi, nere ohorea auzitan dago, beraz... bizirik jarraitu behar du.»

Eta hau esatean: «Bizirik jarraitu behar du», dar-dar egitea zitzaion arima, haizearen astin-

duekin artearen hostoak dar-dar egiten duten bezala.

«Larriak izan ziren Abelen gaisotasunaren egun haiek —idatzi zuen Joaquinek bere Aitor-menean— atsekabe handiko egunak. Nere esku zegoen hiltzen uztea, are gehiago, hilaraztea inork ere susmorik hartu gabe, inongo arrastorik utzi gabe. Nere egitean ezagutu ditut heriotza ilunak ondorengo gertaera trajikoek argitu dituztenak: alargunaren bigarren ezkontza bat eta beste zenbait halako. Orduan inoiz ez bezala borrokatu nuen nere buruarekin, bizitza pozoitu eta ilundu zidan herensuge zikin horrekin. Auzitan zegoen han nere sendagile ohorea, gizon ohorea eta auzitan ere nere osasun mentala, nere adimena; konturatzen nintzen eromenaren atzaparretan mugitzen nintzela, eromenaren irudia ikusi nuen itzal egiten zuela nere bihotzean. Eta irabazi egin nion. Bizirik atera nuen Abel. Ez naiz inoiz ere hain zoriontsu, hain zuzen ibili. Zoriontsu izan nintzen zoritxarrean asmatuagatik.»

— Ez zeukan arriskurik hire... senarrak —esan zion behin Joaquinek Helenari.

— Eskerrik asko, Joaquin, eskerrik asko —eta hartu zion eskua, hark bereen arrear utzi zuelarik— ez dakik ondo zenbat zor diagu...

—Nik ere asko zor dizuet...

— Jainkoarren, ez hadi halakoa izan; orain zorretan gaudek hirekin eta ez hadi berriz hasi...

— Ez, ez naun berriz horretan hasiko. Asko zor dizuet. Abelen gaisotasunak asko irakatsi zidan, asko gainera...

— Edozein gaiso bezala ikusi duk ala?

— Ez Helena, ez, gaisoa neu naun!

— Ba, ez haut ulertzen.

— Ezta neuk ere. Egunotan, hire senarra salbatzeko ahaleginetan...

— Abel, eta ez nere senarra!

— Ondo dun; Abel salbatzeko ahaleginetan nenbilela ulertu egin dinat bere gaitzaren bidez neurea, eta zuen zoriontasuna, eta erabaki dinat... ezkontzea!

— Ba al duk emaztegaririk?

— Ez, oraindik ez, baina bilatuko dinat. Sendia behar dinat.

Emaztea bilatuko dinat. Maite nauen emazterik bilatuko ez dudala uste dun?

— Aurkituko ez duk bala, gizona!

— Maite nauen emakumea, zionat.

— Ulertu diat; maite hauan emakumea, bai!

— Izan ere, ez negon gaizki...

— Bai, zalantzarik gabe ez hago gaizki... gaztea, ez haiz pobrea, karrera ona duk, ospea izaten hasia, zintzoa...

— Zintzoa... bai, eta ezatsegina ezta?

— Ez gizona, ez; hi ez haiz ezatsegina!

— Ai ene, Helena, Helena!, non aurkituko dinat emakume bat?...

— Maite hauena?

— Ez, ziria sartuko ez zidana, egia esango didana eta ez duena nere lepotik farre egingo, Helena, ez duena nere lepotik farre egingo! Etsita ezkonduko dena, nik mantentzeko, baina non ere esango didana.

— Arrazoi huen, gaixo hago, Joaquin. Ezkon hadi!

— Uste al dun, bada, Helena, badagoela norbait, gizon edo emakume, ni maiteko nauena?

— Denok aurkitzen diagu nork maitatua.

— Eta maitatuko al dinat nik nere emaztea? Maite ahal izango al dinat? Esan.

— Gizona, nola ez bada!

— Begira. Helena okerrena ez dun maitatua ez izatea, maitatu ezin izatea, ez maitatzea dun okerrena.

— Hori esaten dik Don Mateo apaizak, deabruaz, ezin duela maite inor.

— Eta deabrua munduan zebilen, Helena.

— Hago isilik, eta ez esan halakorik.

— Okerrago dun nere buruarekin aritzea.

— Orduan, hago isilik!

VII

Saiatu zen Joaquin bere burua salbatzeko eta bere grinari aterpe eskatuz, emaztea bilatzen, sentitzen zuen gorrotoaz babestuko zuten emaztearen beso beroak, mamuaren beldur den haur baten modura burua ezkutatzeko magala bilatzen, ez ikusteko izotzezko herensugearen begi gaiztoak.

Antonia gajoa!

Ama izateko jaioa zen Antonia; xamurra zen oso, errukitsua. Joaquin gaixo bat zela antzeman zuen, arima elbarria, deabruak hartutakoa, eta bere zoritxarraz maitemindu zen beste ezer aurkitu gabe. Misteriozko erakarpena sentiarazten zioten emakumeari besteen zintzotasunean sinesten ez zuen sendagilearen hitz hotz eta zorrotzek.

Joaquinek zaintzen zuen alargun baten alaba bakarra zen Antonia.

— Sendatuko dela uste duzu? —galdetzen zion Joaquini.

— Zaila iruditzen zait, oso zaila. Gizajoa leher egina dago, jota; asko sufritu bide du... Bere bihotza oso ahul dago...

— Senda ezazu Joaquin jauna; senda ezazu Jainkoarren! Ahal banu, nere bizia emango nuke berearen ordeztu!

— Ez, hori ezinezkoa da. Eta gainera, nork daki? Agian zure bizia, Antonia, beharrezkoagoa izango da...

— Nerea? Zertarako? Norentzako?

— Auskalo!...

Iritsi zitzaion alargun gajoari heriotza.

— Ezin izan dut lortu —esan zion Joaquinek—. Zientzia ez da ahalguztiduna!

— Bai, hau izan da Jainkoaren nahia!

— jainkoarena?

— A! —eta malkoz beteta zituen hegiak tinkatu egin ziren Joaquinen begi lauso eta zorrotzetan—. Baina ez al duzu Jainkoarengan sinesten?

— Nik?... Ez dakit!...

Umezurtz gizajoari, sendagile hark sentiarazi zion kupidak bere amaren heriotza ahaztarazi zion une batez.

— Ez banu Jainkoarengan sinestuko, zer egingo nuke orain?

— Gauza guztien gainera bizitza dago Antonia.

— Heriotza are gorago! Eta orain... hain bakarti... Bakar bakarrik...

— Hori bai, izugarria da bakardadea. Zuri, amaren oroitzapena geratzen zaizu, eta bere alde otoi eginez bizitzea. Bada izugarriagoa den bakardaderik!

— Zein?

— Denek gutxiesten duten horrena, denek barre egiten diotenarena... Egia nork esango aurkitzen ez duen horrena...

— Zer egi entzun nahi duzu?

— Esango didazu orain, hemen, nere amaren gorpu epelaren aurrean? Zin egingo didazu?

— Bai, esango dizut.

— Ondo da; ni ez naiz inoren begiko, ez da hala?

— Ez, ez da hala!

— Esan egia, Antonia...

— Ez, ez da hala.

— Orduan, nolakoa naiz?...

— Zu? Zu zoritxarrekoa zara, sufritzen duen gizona...

Urtu zitzaion Joaquini izotza eta malkoak azaldu zitzaizkion begietan, eta berriz hasi zitzaizkion arimaren erroak dardarka.

Handik gutxira Joaquin eta umezurtzak finkotu egin zituzten beren harremanak, neskak urte beteko dolua bete ondoren ezkontzeko asmotan.

«Emazte gizajoa —idatzi zuen Joaquinek bere Aitormenean— tematzen zen ni maitatzen eta sendatzen, gainditzen, zalantzarik gabe, nik ematen nion higuina. Ez zidan inoiz ere aipatu, ez zidan inoiz ere azaldu. Nere arimaren ustelkeria eta nere gorrotoen minbizia agertu ondoren, nola ez mon bada higuinik emango? Nerekin ezkondu zen? Lepradun batekin ezkondu izan balitz bezala, ez dut zalantzarik, berebiziko kupidaz, kristau bezala bere burua ukatu eta laguntza eskeiniz, nere arima salbatu berea ere salbatzeko, santutasunez... Eta santua izan zen! Baina ez ninduen Helenarengandik askatu, ez ninduen Abelengandik askatu! Bere santutasuna barne kezka berria izan zen neretzat.

«Haserretu egiten ninduen bere sotiltasunak.
Zenbaitetan, barka nazala Jainkoak!, nahiago
izango nuke gaizto, haserreko, maltzur.»

VIII

Bitartean, Abelen ospe artistikoa aurrera zihoan eta sendo gainera. Ordurako, pintorerik ezagunenetarikoa zen nazioan, eta goratu egiten zuten besterrietan ere. Eta gorantz zihoan ospe hau kazkabarra suntsikor baten antzekoa gertatzen zen Joaquinen ariman. «Bai, margolari zientifikoa da oso, teknika menperatzen du; asko daki, asko, oso trebea da» —zioen bere lagunari buruz, txistu egiten zuten hitzez. Goraipatzen zuenaren itxura egiten zuen honela baina gutxieste zuen asmoa.

Izan ere, Joaquinek, bere lanean artista zela esaten zuen, benetako poeta, sendagile argia, kreatzailea, instinctiboa, eta amets egiten zuen oraindik ere bere bezeroak utziko zituela benetazko zientzian aritzeko, patologi teorikoan, ikerketan. Baina hainbeste irabazten zuen!...

«Ez ziren ordea irabaziak —dio bere hil osteko Aitormenean— galerazten zidatenak ikerketa zientifikoa aritzea. Honetara bultzatzen ninduen ospea eta aipua loratzeko nahiak, aipu

zientifikoa edukitzea eta honen bidez Abelen aipu artistikoa itzalean jartzeak, Helena zigortzeak, mendekua hartzeak, beraietaz eta beste guztietaz; eta honen inguruan sortzen nituen nere ametsik zoroenak; baina, bestalde, grina lohitsu horrek berak, nere gehiegizko amorruek eta gorrotoak kentzen zidaten izpirituko lasaitasuna. Ez, ez neukan barrena ikerketan aritzeko, garbia eta lasaia behar baita horretarako. Ahaztu egiten nuen bezeroei esker, baina batzuetan dardarka hasten nintzen pentsatuz nere grinak sortzen zidan jokabide oharkabea zela eta ezin izango niela behar bezalako laguntza eman nere gaisoei.

Gertatu zitzaidan behin barruak astindu zizkidan gorabehera bat. Atso gajo bat sendatzen ari nintzen, nahiko gaiso zegoena baina senda zitekeena. Abelek irudi bat egina zion honi, irudi ikusgarria, berak egindako onenetarikoa, margotu dituenen arrear gorenak, eta irudi hura zen burura etortzen zitzaidan lehenengo gauza nere gorrotoa piztuz, eta honda sartu egiten zen gorrotoa ere gaisoaren etxean. Irudian bizirik

zegoen, ohean zetzan gorputz oinazetia baino biziago. Eta bazirudien irudiak hau esaten zidala:

«Begira, berak eman dit betirako bizitza! Ea luzatzen didazun hemengoa, mundukoa! Eta gaisoaren ondoan, auskultatzen nuenean, pultsua begiratzen nionean, ez nuen bestea baino ikusten, koadroan agertzen zen hura alegia. Trakets ibili nintzen, oso trakets, eta emakume gizajoa hil egin zitzaidan; gehiago, nik utzi nuen hiltzen trakets ibiliagatik, nere zabarkeri hiltzaileagatik. Nere buruaz izutu nintzen, nere zuhurkeriaz.

«Emakumea hil eta handik egun gutxira honen etxera Joan behar izan nuen beste gaiso bat ikustera, eta ahalegindu nintzen irudia ez begiratzen. Baina, alferrik zen, hau zelako, irudia, ni begiratzen ninduen. Ateratzerakoan alargunak lagundu zidan ateraino. Irudiaren ondoan geratu ginen eta nik, indar zoritzarreko batek behartuta bezala, esan nuen:

— Irudi zoragarria benetan! Abelek egindako onenatarikoa da!

— Bai —erantzun zion alargunak— hau da geratzen zaidan oroitzapen bakarra. Ordu asko

ematen ditut berari Begira. Irudiak hitz egiten didala dirudi.

— Bai, bai —berriz nik—, artista ezin hobea da Abel!

«Eta irteterakoan nere buruari: nik hiltzen utzi eta berak berpiztu».

Asko sufritzen zuen Joaquinek gaisoren bat hiltzen zitzaionean, haurrak baziren batez ere, baina besteen heriotzak ez zuten arduratzen gehiegi.

«Zertarako bizi nahiko ore du?... —zioen batzuegatik—. Mesede egingo nioke hiltzen utziko banu...»

Psikologoek dituzten behaketa gaitasunak zorrotzu egin zitzaizkion bere gogoaren grinarekin eta berehala igartzen zituen ezkutueneko gabezia moralak. Segituan konturatzen zen, ohi-turen iruzurpean zein senarrek espero zuen eta zenbatek nahi ere, saminik gabe, emaztearen heriotza eta zein emakumek nahi zuen senarra-rengandik aske gelditu, aurrez aukeratuta zuten batekin elkartzeko zenbait kasutan. Bezeroa zuen Alvarez jauna hil eta urtebetera, alarguna Menéndez jaunarekin, hildakoaren lagun mina

zenarekin ezkondu zenean, Joaquinek hala esan zion bere buruari: «Benetan harrigarria izan zen heriotza hura... Orain ulertzen dut... Gizadia gauza zikina da oso eta emakume hau, eskuza-bala bera, emakume zintzoa!...

— Mesedez —esan zion behin bere gaisoetarikoa batek— hil nazazu, Jainkoarren; hil nazazu ezer ere esan gabe, ezin dut gehiago eta... Emaitzazu zerbait betirako lotan utziko nauena...

«Eta zergatik ez dut bada, egingo gizon honek eskatzen didana —zion Joaquinek— sufritu besterik ez badu egiten? Atsekabetzen nau! Mundu nazkagarria!»

Eta bere gaisoak askotan izaren ziren bere ispilu.

Behin, bizilagun bat joan zitzaion, emakume gizajo bat, urteek eta lanak zahartutakoa, eta senar menturazale gizajo batekin hogeitabost urte zeramatzanak ezkondua. Bere nahigabeak kontatzera joaten zitzaion emakume nardaztu hura.

— Ai ene, Joaquin jauna —esan ohi zion—. Zuk, hainbeste dakizun horrek, ea ematen dida-

zun sendagaia, nere senarra sendatuko duena tximosa horrek eman dion edabeaz.

— Baina zer edabe, emakumea?

— Berarekin joango da bizitzera eta ni utziko nau, hogeitabost urteren buruan...

— Harritzekoa litzateke ezkonberritan alde egitea, zu oraindik gazte zinela...

— A, ez jauna, ez! Edabe bat eman dio burua nahastu diona; bestela, ezin liteke... Ezin liteke...

— Edabea... edabea... —isilean Joaquinek.

— Bai, Joaquin jauna, bai, edabea... Eta zuk, hainbeste dakizun horrek, emaidazu sendagaia beretzat.

— Ene, emakumea! Arbasoak ere aritu ziren, baina alferrik, gaztetuko zituen uraren bila...

Eta emakume gizajoa etsita joan zenean Joaquinek bere buruari: «Baina, ez al da bada, zoritarreko emakume hau ispilu aurrean jartzen? Ez al du ikusten urteetako lan gogorrak eragindako hondamena? Jende honek edabe eta bekaizkeriei leporatzen die guztia...

Ez dutela lanik aurkitzen?... Bekaizkeria... Zerbait gaizki ateratzen zaiela? Bekaizkeria. Bere gaitz guztiak besteen bekaizkeriari lepora-

tzen dizkiona bekaiztia da. Eta ez al gara denok horrelakoak? Ez ote didate edabe bat eman?»

Egun batzutan ez zuen edabea burutik kendu. Eta hala esan zion bere buruari: «Jatorrizko pekatua da!»

IX

Joaquin Antoniarekin ezkondu zen babes bila eta emazte gizajoak igarri egin zuen, ondo igarri ere, zein zen bere betebeharra, bere senarraren bihotzean egin beharreko lana, bere aterpe izatea eta pozgarria ere bai behar bada. Berarekin ezkontzera zioan gizona, gaiso bat zen, arima elbarri eta sendaezina agian; bere egitekoa erizainarena zen. Eta onartu egin zuen errukiturik, eta maitaturik berarekin batzen zenaren zoritxarra. Antoniak sentitzen zuen, bera eta bere Joaquinen arrear bazela ikusten ez zen horma bat, argi eta gardena zen izotz harresia. Gizon hura ez zen bere emaztearena, ez baitzen berea ere, bere buruaren jabea ere, baizik eta eromenak eta deabruak hartutako gizona. Ezkon bizitzako pozaldi kuttunenetan ere, beldurra eragiten zuen, ikustezina zen itzal bat sartzen zen bien arrear. Senarrak ematen zizkion musuak, beste bati kendutakoak iruditzen zitzaizkion, eta amorruz emanak batzutan.

Joaquin saiatzen zen Helena ez aipatzen bere emaztearen aurrean eta honek, berehala konturatu zenez, etengabean izendatzen zuen Helena bere elkarrizketetan.

Hau hasieran, gerora ez baitzuen aipatu ere egiten.

Behin Abelen etxera joateko deitu zioten Joaquini, sendagile lanetara, eta jakin zuen Helenak ordurako bere barruan zeramala senarraren fruitua, eta Antoniak berriz ez zuen oraindik inongo arrastorik. Eta gizajoari, lotsarazten zuen tentaldia pizten zitzaion, ahalke sentiarazten zuena, honela esaten zion deabru baten tentaldia zen hura: «Ikusten? Bera baduk gizasemea! Hik zabarkeriaz hiltzen uzten dituan gaisoak bere arteaz piztu eta betikotu egiten dizkik berak, eta horrek semea izango dik laster, bizidun bat gehiago sortuko dik, odol, hezur eta mamizko arte lana, eta hik aldiz... Baliteke hi horretarako gal ere ez izatea... Bera baduk gizasemea!»

— Abelen etxetik hator, ezta? —galdetu zion emazteak.

— Bai. Zertan igarri dun?

— Hire aurpegian. Etxe hori hondamena duk hiretzat. Ez huke bertara joan behar.

— Eta zer egingo dinat bada?

— Aitzakiak jarri! Hire osasun eta lasaitasuna zeudek beste ezeren aurretik...

— Hire usteak...

— Ez, Joaquin, ez iezadak ezkutatu... —eta ezin izan zuen jarraitu negarrak isilerazi zuelako.

Eseri egin zen Antonia gizajoa. Barru barrutik zerion negarrak.

— Baina, zer gertatzen zain, emakumea, zer dun?...

— Esaidak heuk zer gertatzen zaian hiri, Joaquin, esaidak dena, aitortu hadi nerekin...

— Ez zeukanat zer aitorturik...

— Tira, esango al didak egia, Joaquin, egia?

Joaquin zalantzan gelditu zen une batez, ikusi ezin zuen etsaiarekin borrokatuko balu bezala, zaindari zuen deabruarekin, eta bapateko erabakiak eragindako etsipenezko ahotsaz, esan zuen ozen:

— Bai, esango dinat egia, egia osoa!

— Helena maite duk hik; Helena maite duk oraindik.

— Ez, ez dinat maite! Ez dinat maite! Maite ninan; baina orain ez dinat maite, ez!

— Orduan?...

— Orduan, zer?

— Zergatik bizi haiz atsekabeturik? Izan ere, etxe hori duk, Helenaren etxea, hire haserrearen iturri; etxe hori duk paketan uzten ez hauena; Helena duk...

— Helena ez! Abel dun!

— Abelen bekaizti haiz?

— Bai, Abelen bekaizti naun; gorroto dinat, gorroto dinat, gorroto dinat —ahoa eta ukabilak ixten zituen ahopeka hau esaterakoan.

— Abelen bekaizti haiz... Beraz, Helena maite duk.

— Ez, ez dinat maite. Edozein gizonen emazte balitz, ez nindukenan senarraren bekaizti izango. Ez, ez dinat Helena maite; gorroto zionat, mespretxatu egiten dinat edertasun profesionala, modako pintorearen modeloa, Abelen maitalea...

— Jainkoarren, Joaquin, Jainkoarren...

— Bai, bere maitalea. Zer uste dun bada, apaiz baten bedeinkazioak aldatu egiten duela animoa.

— Joaquin, ez ezak halakorik esan geu ere ezkondata giaudek eta.

— Ez, haiek bezala ez, Antonia; haiek bezala ez. Ni gutxiestearren ezkondu ziren haiek, ni lotsaraztearren, ni iraintzearren, neri kontra egi-tearren ezkondu ziren haiek.

Negarrez hasi zen gizajoa, bularra estutu eta arnasa eteten zitzaiolarik. Hil beharrean ikusten zuen bere burua.

— Antonia..., Antonia —hasperendu zuen ahots isilez.

— Gizajoa! —esan zuen besarkatuz. Eta bere magalean hartu zuen, gaiso dagoen haur bat bezala laztanduz. Eta esaten zion:

— Lasaitu hadi, ene Joaquin, lasaitu hadi... Hemen negok ni, hire emaztea, hirea nauk, hirea bakarrik. Eta isilpean daukaan hori ezagutu ondoren, hirea nauk lehen baino gehiago eta maite haut inoiz baino gehiago... Ahaztu itzak haiek..., ez hitzak aintzat hartu... Okerrago huke

bera bezalako emakumebaten maite izan bahindu...

— Bai, baina Abel, Antonia, bera...

— Ahaztu ezak!

— Ezin dinat ahaztu... Ezin dinat burutik kendu... Bere aipua, bere ospea, ezin dinat burutik kendu...

— Lan egiten baduk, hik ere lortuko duk aipu eta ospea ez haiz bere baino gutxiago eta. Utzi bezeroak ez dizkiagu behar eta, Joan gaitezen hemendik Renadara, nere gurasoena izandako etxera eta egin gehien gustatzen zaiana, ekin zientzi lanari, aurkikuntzak egiteari eta hitz egin dezatela hitaz... Laguntza emango diat ahal dudan neurrian... Ez zioat utziko jendeari hi nahasten... eta bera baino ospetsuago izango haiz orduan...

Ezin dinat, Antonia, ezin dinat; bere arrakastak loa kentzen zidan eta ezingo niken lasai lan egin... Bere irudi zoragarriak nere burura etorri eta nere begien aurrean jarrita, ez niken mikroskopio aurrean ikusiko beste inork gaurdaino ikusi ez didana... ezin dinat... ezin dinat...

Eta ahotsa isildu zuen Lime batek bezala, motel motel, tontotuta bere etsipenaren zuloan eroriagatik, eta negarrez esan zuen.

— Eta haur baten esperoan zeuden, Antonia...

— Geuk ere edukiko diagu —esan zion belarrira musu emanaz—. Amabirjina Santuak ez zidak ukatuko egunero eskatzen zioat eta... Eta Lurdesko ur bedeinkatuak...

— Heuk ere edabetan sinesten dun Antonia?

— Jainkoarengan sinesten diat.

— «Jainkoarengan sinesten diat» —errepikatu zuen bakarrik gelditu zenean, bakarrik bestearekin—. «Zer da Jainkoarengan sinestea? Non dago Jainkoa? Bilatu egin beharko dut!»

X

«Abelek semea eduki zuenean —idatzi zuen Joaquinek bere Aitormenean— sentitu nuen pozoitzen zitzaidala gorrotoa. Esan zidan Helenari erditzen laguntzeko baina uko egin nion esanaz nik ez nuela erditzen laguntzen, egia zena gainera, eta ezin izango nuela behar bezain hotza eduki odola, nere odola hozmindua, arriskutan egongo balitz nere lehengusina. Nere deabruak izugarrizko tentaziora bultzatu nahi ninduen, erditzen lagundu eta isilean haurra itotzera, alegia. Gainditu egin nuen ideia nazkagarri hura.

«Abelek irabazi zuen berriro, gizonak, ez artistak, —izan ere oso ederra baitzen haurra, osasun eta indar maisu lana, «aingerutxoa», hala zioten— eta horrek gehiago hurbildu ninduen nere Antoniarengana, berarengandik seme bat espero bainuen. Nahi nuen, behar nuen nere gorroto itsuaren kaltetu gizajoa —izan ere bera baitzen kaltetua— izatea nere ondorengoen ama, nere haragiarena, nere deabruak oinazetu-

tako muinen ondorengoan ama. Nere seme-alaben ama izango zen eta horrexegatik gainontzekoen seme-alaben ama baino bikainagoa... Berak, gizajoak, ni hautatu ninduen, inoren begiko ez zena, gaizki ikusia, iraindua; berak onartu zuen besteak nardaz eta isekaz baztertu zuena. Eta gainera, ondo hitzegiten zidan haiei buruz!

«Abelen semea, Abeltxo, bere aitaren izena jarri baitzioten haren jatorria eta ospea jarraitzeko; Abelen semea, denboraren joanean nere mendekuaren bide izango zena, ederra zen oso. Eta nik ere halakoa behar nuen, ederragoa oraindik».

XI

— Eta zertan ari haiz orain? —galdetu zion behin Joaquinek, hau haurra ikustera joan eta langelan topo egin zutenean.

— Ba, orain, historiari buruzko koadroa egitera niak, edo hobe esan, Itun Zaharrari buruzkoa, eta horretan jazten ari nauk.

— Nola? Garai hartako pertsonaiak ikertuaz?

— Ez; Biblia eta horri buruz idatzi dituan azalpenak irakurriaz.

— Arrazoia zeukeat hi pintore zientifikoa hai-zela esaten diadanean.

— Eta hi sendagile artista, ez al duk hala?

— Pintore zientifikoa baino... idazlea! Ez eza-kela literatura egin pintzelaz!

— Ezkerrik asko aholkuarengatik.

— Eta zein izango duk hire koadroaren gaia?

— Abelen heriotza Cainen eskutik, anai arteko lehen herioa. Joaquin zurbildu egin zen eta zorrotz begiratzuz bere lagun mina, galdetu zion isilean:

— Eta nola bururatu zaik hori?

— Oso erraz —erantzun zuen Abelek konturatu ere egin gabe lagunaren egoeraz—; izenaren eragina duk. Abel dudanez izena... Biluziaren ikerketa bi...

— Bai, gorputzaren biluziarenak...

— Eta arimarenak...

— Baina haien arima ere pintatu behar al duk?

— Noski! Cainen arima, bekaizkeriarena, eta Abelen arima...

— Nolakoa?

— Hortan ari nauk orain. Ez diat aurkitzen bere espresioa, Abelen arima. Zeren hil aurretik pintatu nahi diat, lurrean etzanda eta anaiak heriotza zaurituta. Hemen zeukeat Genesisia eta Lord Byronen *Cain*. Ezagutzen duk?

— Ez, ez diat ezagutzen Lord Byronen *Cain*. Eta zer aurkitu duk Biblian?

— Ezer gutxi... Begira —liburu bat hartu zuen eta irakurri— «eta Adanek bere emaztea ezagutu zuen, Eva, eta honek haur bat ernaldu eta Cain erditu zuen. Orduan honela esan zuen: semea izan dut Jehovaharen bidez. Eta gero anaia erditu zuen, Abel, eta Abel artzain izan zen eta

Cain berriz nekazari. Eta gertatu zen denboraren joanean Caineke lurraren fruitua eskaini ziola Jehovari eta Abelek bere ardien bildotsak eta ardikiak. Eta Jehovak atseginez begiratu zuen Abel eta bere eskaintza baina ez zuen begi honez begiratu Cain ez eta bere eskaintza ere...»

— Eta hori zergatik? —tartetik mintzatuaz—. Zergatik begiratu zuen Jainkoak atseginez Abelen eskaintza eta nardaz Cainena?

— Hemen ez dik hori argitzen...

— Eta ez al diok hire buruari galdetu zergatia, koadroa egiten hasi aurretik?

— Oraindik ez... Agian Jainkoak ordurako ikusia zuelako Cainengan anaiaren hiltzailea... bekaiztia...

— Orduan berak bihurtu zian bekaizti, eda-bea eman ziokan. Jarrai irakurtzen.

«Eta amorratu egin zen Cain oso eta bere itxura apaldu. Orduan Jehovak esan zion Caini: Zergatik haserretu zara? Eta zergatik zurbildu da zure aurpegia? Zintzoa bazara, ez al zara izango goratua? Eta ez bazara zintzoa, pekatua izango duzu zure gain. Pekatuak bereganatu nahi zaitu baina gaitutuko duzu...»

— Baina pekatuak gainditu zian —tartetik mintzatuaz Joaquin—. Jainkoak eskutik utzi baitzian. Jarrai!

— «Eta Caineke Abeli hitzegin zion, anaiari, eta gertatu zen farrean zeudela, Cain anaiaren aurka altxatu eta hil egin zuela. Eta Jehovahk esan zion Caini...»

— Nahikoa! Ez ezak gehiago irakurri. Ez diat jakin nahi Jehovahk Caini esandakoa ez daukanean konponbiderik.

Ukalondoak mahai gainean jarri zituen Joaquinek, aurpegia eskuen artean, eta begirada hotz eta zorrotza tinkatuz Abelen begietan, ez zekiela zeren beldur, esan zion:

— Ez al duk inoiz entzun Historia Santua buruz ikasten duten haurrei egiten diedan txantxa; «Nork hil zuen Cain?»

— Ez!

— Ba bai, hori galdetzen zieat, eta haurrek, nahastuta erantzuten diate: «Abelek, bere anaiak»

— Ez nekian halakorik.

— Ba orain badakik. Eta esaidak hik, Bibliako gertaera hori, eta hain Bibliakoa ere, pintatzera

hoan horrek, ez al zaik inoiz ere bururatu Caineke ez balu Abel hil honek hilko lukeela anaia?

— Eta nola bururatu zaik hori?

— Abelen ardiak onartzen zizkian Jainkoak eta Abel, artzaina, Jainkoaren begikoa huen, baina Caineke uztak, nekazariarenak ez zitzaizkioan gustatzen eta ezta Cain bera ere. Zorionekoa, Jainkoaren gogokoa Abel huen...; zoritxarrekoa berriz, Cain.

— Baina Abelek ba al zuen horren errurik?

— A! Baina nik uste duk zorionekoek, begikoek eta guztien gogoko direnek ez dutela horren errurik? Errua diate, lotsagarriak baitituk, hutsaren ordezeko laguntza, bere kabuz lortu ez dituzten merezimenduak ez gordetzeagatik, dohain hori harrokeriaz agertu orde. Izan ere ziur negok Abelek dohain hori muturrean igurtzitzen ziola Caini, kitzikatu egiten zuela Jainkoari eskeintzan erretako ardien keaz. Bere burua zintzotzat daukatenak harroak izan ohi dituk, bere zintzotasuna harrokeriaz agertuz joaten direnak besteak samintzera. Esan zian norbaitek, ez zegoela pertsona zintzoak baino zitalagoak direnik...

— Eta hik ba al dakik —galdetu zion Abelek elkarrizketaren larritasunaz oharturik—. Abel bere dohainaz harro zegoan?

— Ziur negok ez zuela bere anaia begirunez hartu eta ez ziola Jainkoari harentzako dohainik eskatu. Eta are gehiago, abelistek infernua sortu dutela cainistentzat, bestela beraien aintza ez litzatekeelako izango hain atsegina. Besteren nekeak ikustea duk haien atsegina, beraiek ez daukatela nekerik.

— Ene, Joaquin, gaiso hago!

— Bai, inor ere ez duk bere buruaren sendagile. Eta orain, emaidak Lord Byroren *Cain* hori, irakurri egin nahi diat eta.

— Hartzak!

— Eta esaidak, ez al dik hire emazteak ezer burura ekartzen koadroa egiteko? Ez al dik ideia-rik ematen?

— Nere emazteak? Trajedia honetan ez huen emakumerik.

— Tragedietan beti zeudek emakumeak, Abel.

— Eva akaso...

— Agian... Esne beretik eman ziena: eda-bea...

XII

Lord Byronen *Cain* irakurri zuen Joaquinek. Eta bere aitormenean hala idatzi zuen ondoren:

Izugarria izan zen irakurketa hark nigan sortu zuena. Nere barrua husteko beharra sentitu nuen, eta ohar batzuk idatzi nituen gordeta nituenak oraindik eta aurrean dauzkadanak. Baina nere burua hustearren egin al nuen? Ez, asmoa nuen noizbait erailtzea, lagungarri izango nituela pentsatuz obra maisua egiterakoan. Harrokeriak usteldu egiten gaitu. Kanporatu egiten ditugu gure atsekabe ezkutatu eta nazkagarrienak ere. Pentsatzen dut egongo dela norbait inoiz ez bezalako gaisotasun kutsakorra ere eduki nahi izango duena, horren kontura harropuzkeriatan ibiltzeko. Aitormen hau bera ere ez al da barru huste hutsa baino gehiago?

«Noizbait pentsatu dut puskatzea ere, burutik kentzeko. Baina lortuko nuke? Ez, hobe da atsekabeak kanporatzea, barruan usteltzea baino. Eta azken finean horretantxe dago bizitza.

«Lord Byroren *Cainen* irakurketak bihotza hunkitu zidan. Arrazoi osoz leporatzen zien *Cainek* bere gurasoei, zientziaren zuhaitzetik hartu izatea fruituak bizitzaren zuhaitzetik hartu beharrean. Neri behintzat, zauria ireki besterik ez dit egin zientziak.

Hobe nuke jaio izan ez banintz! Nere buruari *Cain* hura eskuan nuela. Zergatik ernaldu ninduten? Zergatik bizi behar dut? Ez dut ulertzen zergatik *Cainek* ez zuen bere burua hil. Giza historiarentzat hasera bikaina litzateke hau. Baina zergatik ez zuten bere burua hil Adan eta Evak pekatu egin ondoren eta seme-alabak ernaldu aurretik? Jakina, orduan Jehovak halako bi sortuko zituen berriro, eta *Cain* eta *Abel* ere. Trajedia hau bera ez al da gertatuko beste munduren batetan, izarretan? Ez al da inoiz antzeztu trajediarik hemen, lurrian, lehen aldiz antzeztu zenetik? Baina lehena izan al zen hura?

«Irakurri nuenean Luzbelek aitortu ziola *Caini* nolakoa zen hau, *Cain*, orduantxe pentsatzen hasi nintzen beldurtuta, ez ote nintzen neu ere hilezkorra eta betirakoa izango ote zen nigan gorrotoa. «Ba al dut arimarik, —nere buruari—

nerre gorrotoak izango ote dut arima?», honela izan behar zuela ere pentsatu nuen, ezinezkoa zeta halako gorrotorik gorputzak sortzea. Ziztagailuaz besteengan aurkitu izan ez nuena aurkitu nuen nigan. Ustelgai den organismo batek ezin zezakeen gorrotatu nik egiten nuen neurrian. Luzbelek Jainko izan nahi zuen eta nik, txikitatik, ez al nituen ingurukoak zapaldu nahi? Eta nola zitekeen ni hain zoritxarreko izatea, ez banindu hala egin zoritxarraren sortzaileak?

Ez zion batere lanik ematen Abel honi, bere ardiak hazteak eta ezta ere besteari bere koardroak egiteak; baina nik, nik lan handia izaren nuen nere gaisoen gaitzak igartzeko orduan.

«Cain kexu zen Adah-k, bere Adah maiteak, emazte eta arreba zuenak, ez zuelako ulertzen senarra abailtzen zuen izpiritua. Baina bai, bai, nere Adah gizajoak, ulertzen zuen nere izpiritua. Izan ere, kristaua zen eta. Gainera, neuk ere ez nuen aurkitu nere modukorik.

«Byronen *Cain* irakurri eta berrirakurri arte nik, hiltzorian eta hiltzen ere hainbeste gizakume ikusi nuenak, ez nuen pentsatu ere egin heriotzan, ez nuen ezagutu. Eta orduan galdetu mon

nere buruari hiltzen nintzenean gorrotoa nerekin batera hilko ote zen, nerekin hilko zen edo bizirik jarraituko ore zuen; galdetu nion gorrotatzen dutenek baino bizi luzeagoa ote zuen gorrotoak, oinarrizkoa den zerbait ote den, ematen dena; arima ore den, arima beraren funtsa. Eta sinesten hasi nintzen infernuri badela eta heriotza izaki bat dela, Deabrua Gorrotoa izaki bihurtuta, arimaren Jainkoa. Zientziak erakutsi ez zidan guztia erakutsi zidan Lord Byron-en gorroto handia zuen haren poema izugarriak.

«Nere Adah-k ere errieta egiten zidan gozoki, ez nuelako lanik egiten, ezin nuelako lanik egin. Eta Adah, eta nere artean zegoen Luzbel. «Bazterrean utzi izpiritu hori!» —oihukatzen zidan nere Adahk. Antonia gizajoa! Honek ere eskatzen zidan izpiritu harengandik askatzea. Nere Adah gizajoak ez zituen gorrotatu nik bezain beste. Baina maitatu al nuen nik Antonia bengan? Bera maitatu izan banu, aske nintzatekeen. Bera heste mendeku bide bat zen neretzat. Bera, ni mendekatuko ninduen seme edo alabaren ama izatea nahi nuen. Baina uste izan nuen, bai ergela, aita izandakoan sendatu egingo nintzela.

Baina ez al nintzen bada ezkondu, nik adina gorrotatuko zuenik sortzeko, besteei emateko nere gorrotoa, betikotzeko?

«Ariman geratu zitzaidan betirako tinkatuta Cain eta Luzbel espazioaren sakontasunean zeudeneko agerraldi hura. Nere zientzia aurkitu nuen nere pekatuaren bidez eta baita ere zein miseri handia zen heriotza zabaltzeko bizia ematea. Eta ikusi nuen ere nere arima zeta gorroto hilezkor hori. Burura etorri zitzaidan gorroto hori ni baino lehenagokoa zeta eta ni hil ondoren iraungo zuela. Eta izuak hartu ninduen betirako biziko eta gainera gorrotatuko nuela pentsatzean. Infernua zen hura. Eta nik farre egin izan nuen hortan sinesten zutenetaz! Infernua zen hura!

«Irakurri nuenean Adahk Cain, bere semeari buruz, Enoc-i buruz hitzegin ziola, gogora etorri zitzaidan nere seme edo alaba izango zena; zugar pentsatu nuen, alabatxo; nere ihesbide eta nere pozgarri; pentsatu nuen ni salbatzera etorriko zinela noizbait. Eta irakurri nuenean Cainek esaten ziona lo zegoen eta garbia zen bere semeari, biluzik zegoenik ez zekienari, nere

buruari galdetu mon ez ote nuen oker egin zu
ernaltzearekin, nere alaba gizajoa! Barkatuko
didazu zu ernaldu izatea? Eta Adahk bere Caini
esaten ziona irakurtzean nere zorion urteak
gogoratu nituen, nere asmoa saria jasotzea ez
zeneko garaia, nere ametsa ez zenekoa beste
guztiak baino gehiago izatea. Ez, alabatxo, ez;
ez nizkion bihotz garbiz eskaini Jainkoari nere
ikasketak; ez nituen bilatu egia eta jakintza, bai-
zik eta sariak eta ospea eta hera baino gehiago
izatea.

Berak, Abelek, bere lana maite zuen eta lan-
tzen zuen zintzotasunez, ni ezerezten saiatu
gabe inoiz ere. Ez, ez zidan berak kendu, ez! Eta
nik berriz, zoro honek pentsatu ere egin nuen
Abelen aldarea botatzea! Nigan bakarrik pentsa-
tu nuen izan ere.

«Abelen heriotzaren kontakizunak, deabrua-
ren poeta izugarri hark azaltzen zigun moduan,
itsutu ninduen. Han irakurtzean burua nahastu
zitzaidan eta uste dut zorabiatu ere egin nintze-
la. Eta barrez gero sinesten hasi nintzen, Byron
fedegabe hari esker.»

XIII

Alaba eman zion Antoniak Joaquini. «Nik alaba —esan zuen bere arrear—. Eta berak semea! «Baina denbora gutxian gainditu zuen bere deabruaren maltzurkeri berri hura. Eta bere grinaren indar guztiarekin hasi zen alaba maitatzen eta honen bidez ama ere. Nere mendeku bidea izango da» esan zuen lehengo, zeren mendeku bide zen jakin gabe, eta gero: «Ni xahutuko nauena izango da.»

Hau idazteari ekin nion —utzi zuen idatzita bere Aitormenean— nere alabarentzat, berak, ni hil ondoren, bere aita gizajoa ezagutu eta errukitu eta maitatu ahal izateko. Seaskan lo zegoela begiratzen nuen, ametsetan bere bihotz garbiarekin, pentsatzen nuen bera zintzo hezteko beharrezkoa nuela aurretik nere grina xahutzea eta nere arimaren ustelkeria garbitzea. Eta erabaki nuen ingurukoak maitatu behar zituela eta haiek batez ere. Eta hala, bere amets garbiagatik zin egin nuen nere infernuko kateetatik aske

geratuko nintzela. Nik izan behar nuen Abelen ospearen aldarrikatzailea.»

Abel Sánchez-ek bere koadroa bukatu zuenean erakusketa batetara eramán zuen, han denen txaloak jaso zituen eta maisu lan bezala miretsi zuten eta ohorezko domina eman zioten.

Erakustokira joaten zen Joaquin koadroa ikusterá eta bertan begiratzen zuen, ispiluaren aurrean balego bezala, irudian zegoen Cain eta zelatzen zuen, jendeak bera begiratzen zuen koadrokoa begiratu ondoren.

Atsekabetzen ninduen —idatzi zuen Aitormenean—. Abelek bere Cain irudikatzean ni gogoan hartu ninduenaren susmoak, pentsatzen elkarriketaren iluntasun gordeak ere igarri zituela bere etxean geundela koadroa pintatzeko asmoa adierazi zidanean, berataz ahaztuta nitaz pentsatu eta garbi erakutsi nionean nere arima gaisoa.

Baina ez! Abelen CaineK ez zuen nere antzik, ez ninduen gogoan izan margotu zuenean, hau da, ez ninduen gutxietsi, ez zuen nardaz margotu, eta Helenak ere ez zion tier, buruz ezer esan. Ez zuten nitaz pentsatu ere egiten!

«Eta nitaz ez gogoratze honek, ni ez gorrotatzeak, gehiago atsegabetzen ninduen oraindik. Berak ni gorrotatzea nik bera gorrotatzen nuen neurrian, bazen zerbait, eta izan zitekeen nere salbamena.»

Eta urrutirago iritsi zen, eta gehiago sartu zen Joaquin bere baitan, eta hala bururatu zitzaion bazkari bat eskaintzea Abeli bere garai-pena ospatzeko, eta berak eskeiniko zion, lagun minak, elkar ezagutu aurretiko lagunak.

Joaquin hizlari ontzat zuen jendeak. Medikuntza eta Zientzia Eskolan bera zen besteak menperatzen zituen bere ohizko hitz hotz eta zorrotzez, zehatz eta eztenkarietz. Bere hitzaldiak orhotza bezalakoak izaten ziren hasi berrien gogo beroentzat, eszeptizismo ezezkorrari buruzko ikasgai astunak. Jarraitzen zuen tesia, Medikuntzan ez dagoela ezer ziurra denik, dena dela hipotesia eta etengabe hauek eratu eta eragabetea; konfidantzarik ez edukitzea zela egokiena. Horregatik jakin zenean bera zela, Joaquin, bazkaria eskainiko zuena, jakinminez geratu ziren gehienak bi zentzu izango zituen hitzaldiaren zai, batetik pintura zientifiko eta aztertuen

azterketa errukigabea, gorespen modura egina, edo bestetik, pintura honen gorespen garratza. Eta poz maltzurra zuten bihotzean, Joaquin Abelen arteari buruz hitzegiten entzuna zutenek! Arriskuaz oharterazi zuten hau.

— Oker zaudete —esan zien Abelek—. Ezagutzen dut Joaquin eta ez dut ikusten hori egiteko gauza. Zerbait badagoela badakit, baina zentzumen artistiko handikoa da eta entzuteko interesgarri izango diren gauzak esango ditu. Irudi bat egin nahi diot orain.

— Irudi bat?

— Bai, zuek ez duzue ezagutzen nik bezain ondo, arima sutsua du, nahastua.

— Halako gizon hotzik!

— Kanpotik. Eta dena dela, esaten dute hotzak ere erre egiten duela. Horrelako modelorik nahita ere ez...

Eta Abelen ustea iritsi zen Joaquinen belarrietara eta oraindik gehiago murgildu zen bere pentsamenduetan. «Zer pentsatuko ote du benetan nitaz? —zioen—. Egia ote da ni horrela naizela, arima sutsu bezala, nahastu bezala? Egia ote da zoriaren nahiak kaltetua ikusten nauela?»

Lotsatu zuen zerbait gertatu zen orduan, eta bere etxean jaso zuten, Abelenean neskame ibilitako bat, eta zeharka galdetu zion haien etxeko zenbait berri, baina ezer agerian azaldu gabe, besteen etxean berari buruz ziotena jakiteko bakarrik.

— Baina, tira, inoiz ez al diezu entzun ezer nitaz?

— Ezer ere ez, jauna, ezer ere ez.

— Baina ez al zuten inoiz hitzegiten nitaz?

— Hitz egin bai, uste dut baietz baina ez zuten ezer ere esaten.

— Ezer ere ez, behin ere ez?

— Nik ez nien entzuten. Otorduan mahaian, nik serbitzen nien bitartean gauza gutxi esaten zuten eta mahaian esan ohi diren horietakoak gainera. Bere koadroetaz...

— Ulertzen dut. Baina ezer ere ez, inoiz ere ezer ere ez nitaz?

— Ez dut gogoan.

Eta neskameak alde egin zuenean, barru barrutik nazka sentitu zuen berekiko. «Ergeltzen ari naiz ni —bere buruari—. Auskalo zer pentsatu duen neska honek nitaz!» Eta hainbeste kez-

katu zuen honek edozein aitzakiapean neska-
mea kaleratzen saiatu zela. Eta orain —esan
zuen gero—. «Abelengana itzultzen bada eta
hau kontatzen badio?» Horregatik, emazteari
berriz deitzeko eskatzekotan egon zen. Baina ez
zen ausartu. Eta beti ibiltzen zen kalean aurkitu-
ko zuenaren beldur.

XIV

Iritsi zen bazkariaren eguna. Joaquinek ez zuen lorik egin bezperan.

— Banian borrokara Antonia —esan zion emazteari etxetik irteterakoan.

— Jainkoak argi eta zuzen hazala, Joaquin.

— Alaba ikusi nahi dinat, Joaquinatxo giza-joa...

— Bai, hator, begira... lo zegok...

— Gizajoa! Ez zekin zer dunan deabrua!...

Baina zin daginat,

Antonia, nik jakingo dudala nere barrutik ateratzen, ito egingo dinat eta Abelen oinetan jarriko dinat. Musu emango nioke baina esnatuko den beldurra diaukanat...

— Ez, ez! Emaiok musu!

Aita makurtu eta musu eman zion lo zegoen neskatzari, eta irribarre egin zuen ametsetan musu ematen ziotela konturatzean.

— Begira Joaquin, berak ere bedeinkatzen hau.

— Agur! —eta musu luzea eman zion, oso luzea.

Emaztea otoitz egitera joan zen Ama Birjinaren irudi aurrera. Urduritasun maltzurra zebilen otorduko elkarrizketen inguruan. Joaquinek, Abelen eskuinean eserita eta zurbil, ez zuen jan eta ezta hitzegin ere apenas. Abel berak ere zerbaiten susmoa hartu zuen.

Postrea jaterakoan zurrumurruak entzun ziren, isiltasuna zabaldu zen eta norbaitek esan zuen: «Hitz egin dezala!» Altxatu egin zen Joaquin, ahotsa dardarti eta ozena zen hasieran baina azkar zolitu eta doinu berri batez dardar egiten zion. Ez zen entzuten bere ahotsa besterik, isiltasuna betetzen zuena. Liluratuta zeuden guztiak. Ez zitzaion inoiz autorea eta bere obrari halako gorespen gartsurik egin, sutsuagorik, mirespen eta maitasunez beteagorik. Askok malakoak ikusi zituzten beren begietan Abelekin haurtzaroan igarotako egunak gogoratu zituztenean, ez batak eta ezta besteak ere ez zutenean ezagutzen beren etorkizuna.

Inork ez du ezagutu ni bezain sakon —zion—: Liste dut nere burua baino hobeto ezagutzen

dudala, garbiago, izan ere gure barman ez baitugu ikusten baretzen gaituen lokatza baino. Besteengan ikusten dugu guk dugun onena eta maitatu egiten dugu, eta horixe da mirespena. Berak, bere artean egin du neuk nerean egin nahi nuena, eta horregatik da nere modeloetarikoa bat; bere ospea pozgarri dut nere lanean eta lortu ez dudan ospearen ordeko da berea. Bera geurea da, guztiona; nerea batez ere eta nik, bere lana gozatuz, nere egiten dut, berak sortu zuenean bere egiten zuen bezala. Pozten naiz nere urritasunean...»

Ahotsa negartia zuen batzutan. Jendea bere menpe zeukan, iluntasunez ikusiaz arima hark bere deabruarekin zuen gatazka izugarria.

«Eta ikus ezazue Cain —esan zuen Joaquinek hitz beroak isuriaz—, Cain trajikoa, handik honerako nekazaria, hiriak sortu zituen, bekaiztia eta bizitza hiritarrarena, ikusi! Ikus nolako maitasunez, nolako kupidaz, zoritxarrarenganako nolako maitasunez irudikatu duen. Cain gizajoa! Gure Abel Sánchezek Cain miresten du Miltonek Satanas miresten zuen bezala, mirestea maitatzea baita eta maitatzea, errukitzea. Miseria guz-

tia sentitu du gure Abelek, lehen Abel hil zuenak jasandako ezbeharra, Bibliako kontakizunaren arabera heriotza mundura ekarri zuenarena. Gure Abelek ulertarazi egiten digu Cainen errua, errurik egon bazen, eta baita berataz errukiarazi eta maitarazi ere... koadro hau maitasunez egina da!»

Joaquinek bukatu zuenean isiltasun astuna egin zen eta azkenik txalotu egin zuren. Orduan altxatu egin zen Abel eta zurbil, urduri, dardarti, malkoak zituela begietan, esan zion lagunari:

— Joaquin, orain esandakoak gehiago balio du, askoz ere gehiago ere, nere koadroek baino, margotu ditudan koadroek baino gehiago, aurretzean margotuko ditudanek baino... Hori, hori arte lan bihotz bihotzekoa. Orain arte, zu entzun arte, ez dut jakin zer egin dudan. Zuk egin duzu koadroa eta ez nik, zuk!

Aspaldiko bi lagunak besarkatu ziren, zutituz zegoen jendearen txalo bero eta oihuen artean. Eta besarkatzerakoan esan zion Joaquinek bere deabruari: «Posible izango bazenu orain zure besoen artean itotzea!...»

— Bikain —zioten—. A ze hizlaria! A ze hitzaldia! Nork espero zezakeen hau? Lastima takigraforik ez ekarri izana!

— Hau ikusgarria da!... —zioen batek—. Ez dut uste berriz entzungo dudarik halakorik.

— Nik —ihardetsi zuen beste batek— hotzikarak izan ditut entzutean.

— Baina begira, begira ze zurbil dagoen!

Eta hala zen. Joaquinek, garaituta sentitzen zela bere garaipenaren ondoren, tristuraren zuloan murgilduta ikusten zuen bere burua. Ez, bere deabrua ez zegoen hilik. Hitzaldi hark orduarte eduki ez zuen bezalako arrakasta izan zuen, inoiz edukiko ez zuena bezalako eta hala bururatu zitzaion oratorian aritzearen ideia, horrela arrakasta lortu eta itzalean uzteko bere lagunak pinturan lortutakoa.

— Ikusi al duzu nola egiten zuen negar Abelek? —esan zuen batek irtetean.

— Bai, Joaquinen hitzaldiak bestearen koadro guztiek baino gehiago balio du. Koadroa hitzaldiak egin du. Hitzaldiaren koadroa esan beharko zaio. Kendu hitzaldia eta zer da bada, koadroa? Ezer ere ez, nahiz eta lehen saria jaso.

Joaquin etxera iritsi zenean Antonia irten zitzaion atea ireki eta besarkatzera.

— Bazekiat, esan zidatek. Horrela, horrela! Bera baino gehiago haiz, Bera baino askoz ere gehiago; jakin dezala bere koadroak hire hitzal-diak esker hartu duela balioa.

— Egia dun, Antonia, egia dun, baina...

— Baina zer? Oraindik...

— Bai, oraindik bai. Ez dizkinat esan nahi deabruaren hitzak, nere deabruak esaten dizki-danak elkar besarkatzen genuen bitartean...

— Ez, eziezazkidak esan, hago isilik!

— Bai, itxiiezadan ahoa.

Eta ahoa estali zion musu luze, bero, bete batez, begiak malkoz lausotzen zitzaizkiola.

— Ea honela, deabrua ateratzen didanan, Antonia; ea irensten dunan.

— Bai eta gero neretzat ezta? —eta barre egi-ten saiatzen zen gizajoa.

— Bai, irentsi, hiri ezin din minik egin eta, hire barruan hil egingo dun eta, hire odoletan ur bedeinkatutan bezala itoko dun eta...

Eta Abel etxean geratu zenean bere Helena-rekin bakarrik, honela esan zion:

— Esan zidatek Joaquinen hitzaldiarena. Hire garaipena irentsi behar izan dik... onartu behar izan hau!...

— Ez esan horrela hitzegin, ez dun entzun eta.

— Entzun banu bezala.

— Bihotzez esaten zinan: Hunkitu nauk. Neuk ere ez dinat jakin zer pintatu dudan bere azalpena entzun arte.

— Eziezaiok sinetsi..., eziezaiok sinetsi...; hainbeste goraipatu hauenean, zerbaitegatik izango duk...

— Eta ez al zezakeen bada, sentitzen zuena esan? Esan zidanak ezin al din egia izan?

— Badakik hirekiko ezinikusiak hartuta zeukala...

— Hago isilik...

— Hartuta, bai, hireganako ezinikusiak...

— Hago isilik, emakumea, hago isilik; hago isilik!

— Ez, ez dituk zeloak ez naualako maite, noizbait ere maite izan banik...; ezinukusia duk..., ezinukusia...

— Hago isilik! Hago isilik! —orro egin zuen Abelek.

— Ondo zegok, isilduko nauk, baina hik ikusiko duk...

— Ikusi dinat eta entzun ere bai, nahiko zeukanat... Hago isilik beraz!

XV

Baina ez, ez! Ekintza ausarta hark ez zuen sendatu Joaquin gizajoa.

«Barne kezkek sentitzen hasi nintzen —idatzi zuen Aitormenean— esandakoa esanagatik, ez utzi izanagatik nere grina gaiztoa lehertzen horrela gainetik kentzeko, ez hondatzeagatik bere ospe artistikoa, bere arteari iruzur eta gezurrezko efektismo, bere imitazioak, bere teknika hotz eta finkoa, bere emozio gabezia; ez deusezteagatik bere ospea. Hori eginez askatuko nintzateke besteaz, egia esanez, bere ospea benetan dagokion mailara jaitsiz. Agian, Cain Bibliakoa, beste Abel hil zuena, hilda ikusi zuenean hasi zen hau maitatzen. Orduan hasi nintzen sinesten; hitzaldiaren ondorioei esker kristau bihurtu nintzen».

Aitormenean honela kontatzen zuena zen Antoniak, bere emazteak, sendatu gabe ikusi zuenean, inoiz sendatuko ez zenaren beldur, bulztatu zuela beharrezko indarra bilatzera bere

gurasoen erlijioan, berean, bere alabarena izango zen hartan, otoitzean.

— Baina hik konfesatzera joan behar duk...

— Baina, emakumea, urte asko ditun ez naitzela joaten elizara...

— Horrexegatik.

— Ez dinat sinismenik...

— Hori uste duk hik, baina apaizak azaldu zidak nola zuek, zientzi gizonen, uste duzuen ez duzuela sinisten, baina sinesten duzuela. Baze-kiat hire amak erakutsi zizkian gauzek, nik alabari erakutsiko zizkiotenek...

— Tira, tira, utz nazan!

— Ez, ez haut utziko. Hoa konfesatzera, arren.

— Eta zer esango dinat nere pentsakera ezagutzen dutenek?

— Baina horregatik duk? Giza begirunea duk?

Baina guzti hau Joaquinen bihotzeraino iritsi zen eta bere buruari galdetu zion benetan ez ote zuen sinesmenik, eta sinesten ez bazuen ere, jakin nahi izan zuen Elizak senda zezakeen.

Eta elizara joaten hasi zen sarritan, eta ageri agerian, bere pentsakera erlijiosoa ezagutzen

zutenak zirikatuz bezala, eta azkenik joan egin zen apaizarengana. Han zegoela barrua hustu zuen.

— Gorroto diot, jauna, gorroto bizia diot, eta baita ere ez sinesteari sinesten dudan bezala, ez sinestu nahi izateari sinestu nahi dudan bezala, hilko nuke...

— Baina hori, seme, ez da gorrotoa: hori bekaizkeria da.

— Gorrotoa beti da bekaizkeria, jauna, gorrotoa beti da bekaizkeria.

— Bekaizkeria zintzo bihurtu behar duzu gorrotoa, zure lanean, eta Jainkoarentzat ahal duzun hoberena egiteko asmo bihurtu...

— Ezin dut, ezin dut lanik egin. Bere ospeak galerazten dit.

— Ahaleginak egin behar ditugu..., zerbaitegatik da aske gizona...

— Ez dut sinesten aukeratzeko askatasunarengan. Sendagilea naiz ni.

— Baina...

— Zer egin dut nik Jaunak ni hala egiteko, hain gorrotodun, bekaizti eta gaizto? Zer odol gaizto eman zidan aitak?

— Seme, seme...

— Ez, ez dut sinesten giza askatasunarengan eta honetan sinesten ez duena ez da aske. Ez, ez naiz aske! Aske izatea horretan sinestea da!

— Gaiztoa zara ez duzulako sinesten Jainkoarengan.

— Gaiztakeria al da Jainkoarengan ez sinestea, jauna?

— Ez dut hori esan nahi, baizik eta zure grina gaiztoa Jainkoarengan ez sinestearen ondorio dela...

— Gaiztakeria al da Jainkoarengan ez sinestea? Berriz galdetzen dizut.

— Bai, gaiztakeria da.

— Beraz, ez dut sinesmenik. Jainkoak gaizto egin nauelako. Cain egin zuen bezala. Jainkoak egin ninduen sinesgaitz.

— Aske egin zuen.

— Bai, gaizto izateko aske.

— Zintzo izateko ere!

— Zergatik jaio nintzen, jauna?

— Galde ezazu zertarako...

XVI

Abelek pintatu zuen Ama Birjina haurra besotan zuela eta hau ez zen Helena, bere emaztearen, irudia baino, semea zuen Abeltxorekin. Koadroak arrakasta izan zuen, berregin ere egin zuten, eta honen argazki handi baten aurrean Joaquinek Ama Birjinari otoitz egiten zion esanaz: «Lagundu nazazu! Gorde nazazu!»

Hala ere, otoitz egiten zuen bitartean, isilean baina entzuteko moduan, sakonagoa zen beste ahots bat isilarazi nahi zuen, bere barruan ari zitzaiona: «Hil bedi! Libre gera bedi zuretzat bere emaztea!».

— Atzerakoi bihurtu haiz, ez? —esan zion behin Abelek Joaquini.

— Neu?

— Bai, esan zidatek elizara joaten haizela eta egunero entzuten duala meza, eta ez duanez behin ere sinetsi, ez Jainkoarengan eta ezta deabruarengan ere, eta ez hintzenez besterik gabe kristau bihurtuko, atzerakoi bihurtu haiz!

— Eta hiri zer?

— Ez, ez diat argibiderik eskatzen; baina benetan sinesten duk?

— Sinestu beharra zeukeat.

— Hori beste gauza bat duk, baina sinesten duk?

— Esan diat sinetsi beharra daukadala, eta ez iezadak besterik galdetu.

— Ba nik nahikoa zeukeat artearekin; artea duk nere erlijioa.

— Margotu dituk bada Ama Birjinak...

— Bai, Helena.

— Halakorik ez dena, hain zuzen.

— Neretzat, izango bazunan bezala, nere semearen ama duk...

— Besterik gabe?

— Ama guztiak dituk Ama Birjina ama izan orduko.

— Hasi haiz teologia egiten dagoeneko!

— Ez zekiat, baina gorroto zioat atzerakoitasun eta itxurazaletasunari. Guzti hori bekaizkeriaren ondorio duk eta harritzen naik higan, gauza ikusten hautelako herri xehe eta arruntarengandik bereizteko, harritzen naik hi horrela janzteak.

— Ea, ea Abel, azaldu hori!

— Argi zegok. Izpiritu arruntak, zirtzilak, ez dituk inoiz nabarmentzen, eta ezin jasan dute-
nez beste batzuk nabarmentzea, dogmaren jantzia ezarri nahi diate, guda jantzia dena gainera, inor ere ez dadin nabarmendu. Ortodoxia horren oinarria, bai erlijioan, bai artean, bekaizkeria duk zalantzarik gabe. Guztioi nahi dugun erara jantzen utziz gero, baten bati bururatuko litzaiokek nabarmenduko lukeen jantzia, bere dotorezia agerian jarriko lukeena eta gizona izango balu gainera, miretsi egingo liketek eta berataz mai-teminduko hituzke, eta besteren bat aldiz, arrunta eta zirtzila bera, barregarri geratuko huke bere nahiaren arabera jantziz gero, eta horregatik arruntek, zirtzilek, bekaizti direnek uniforme moduko bat asmatu diate panpinen modura jantzeko, modan jar daitekeena, moda ere ortodoxia baituk. Zabaldu begiak Joaquin: ideia arriskutsu, ausart eta gaiztoak deitzen direnak ez dituk trebetasunik ez dutenei bururatzen zaizkienak baino, ez daukatenei ez bere berea duten zentzutasuna ezta berezitasunik eta bai zentzu-

tasuna eta arruntasuna. Gehien gorroto dutena irudimena duk beraiek ez baitaukate halakorik.

— Horrela baduk ere —esan zuen Joaquinek— arrunt, zirtzil eta xehe deitzen ditukan horiek, ez al diate bere burua defendatzeko eskubiderik?

— Behin, nere etxean Cain defendatu huen, bekaiztia, eta beste batean berriz, hitzaldi ahanztezin hartan, Behin eta berriz gogoratuko diadan hartan, nere ospea handitu zen hartan, erakutsi higun, edo erakutsi hidan neri behintzat, Cainen arima. Baina Cain ez huen inolaz ere arrunta, zirtzila, xehea...

— Baina bera izan huen bekaiztien aita.

— Bai, baina beste bekaizkeria moeta batena, ez jende horrenarena. Cainen bekaizkeria handiagoa huen; zapaltzaile buruberoarena aldiz txikiena duk. Eta harritzen naik hi haien aurrean ikusteak.

«Baina honek —zionen Joaquinek bere buruari Abel utzitakoan— nere pentsamentua irakurtzen al du? Nahiz eta itxuraz ez ohartu neri gertatzen zaidanaz. Pintatzen duen bezala hitz egin eta pentsatzen du, jakin gabe zer pintatzen duen

eta ezta zer esaten duen ere. Oharkabe bat da,
ni berarengan tekniko zentzuduna ikusten tema-
tu arren...

XVII

Joaquinek jakin zuen Abel bere modelo izandako batekin nahastuta zebilela eta honek egiaz-tatu zuen bere ustea, alegia, ez zela maiteminduta ezkondu Helenarekin. «Ni gutxiestearren ezkondu ziren —zioen—.» Eta ondoren: «Berak ere, Helenak ere, ez du maite eta ezin du maite...; berak ez du inor maite, ez da maitasuna emateko gai; handikeriaz betetako kaxa ederra besterik ez da... Handikeriaz eta nerekin nardaz ezkondu zen eta handikeriagatik edo grinagatik muzin egiteko gai da bere senarrari... Senartzat hartu nahi ez zuen horrekin joan behar badu ere horretarako...» Aldi berean sua berpizten zitzaion txingar artetik, bere gorrotoaren izotzak hoztua pentsatzen zuen horretatik, Helenarenganako izan zuen maitasuna zen hura. Oraindik jarraitzen zuen, bai, indioilarrak maiteminduta, marilasterrak, bere senarraren modeloaz. Antonia bikainagoa zen, zalantzarik gabe, baina bestea, bestea zen. Eta gero gainera, mende-

kua... hain da gozoa mendekua! Hain epela izoz-
tutako bihotz batentzat!

Egun gutxira, Abelen etxera joan zen, hura
kanpoan egongo zen orduaren zai egon ondoren.
Bakarrik aurkitu zuen Helena bere semearekin,
laguntza eta babesa alferrik eskatu zion irudi
Santuan agertzen zen Helenari.

— Esan zidak Abelek —esan zion lehengusi-
nak— orain elizara joaten haizela. Antoniak era-
man hau, ala berarengandik ihesi joan haiz hara?

— Zergatik?

— Gizonek fededun egiten zarete emazteak
eramanda edo emaztearengandik ihesi bakarrik.

— Badun emaztearengandik ihes egiten dine-
nik eta ez nonbait elizara joateko.

— Bai, e?

— Bai, baina hire senarrak, kontu hori esan
dinanak, ez zekin guztia, ez dutela elizan baka-
rrik otoitz egiten, alegia.

— Noski! Fededunek etxean ere egin behar
izaten diate otoitz.

— Eta egiten dinat. Eta batez ere Ama Birjina-
ri eskatu lagun eta babes nazala.

— Oso ongi iruditzen zaidak.

— Eta, ba al dakin ze irudiri eskatzen zionaten hori?

— Ez badidak esaten...

— Hire senarrak egin zinanari...

Helenak beste alde batera begiratu zuen bapatean, gorrituta, gelaren bazter batean lo zegoen haurrarengana. Erasoaren bortizkeriak aztoratu egin zuen. Baina bere onera itzulirik, esan zuen:

— Hori ankerkeria iruditzen zaidak eta agerian jartzen dik Joaquin, hire fedea ez dela gezurra besterik eta are gehiago...

— Zin daginat, Helena...

— Bigarrena, ez aipatzea bere izen santua alferrik.

— Zin daginat bada, Helena, kristau bihurtu naizela benetan, hau dun, sinestu nahi izan dudala, nere burua babestu nahi izan dudala bereganatzen naunan grinaz...

— Bai, bazekiat zein den hire grina.

— Ez, ez dakin!

— Bazekiat. Ezin duk Abel jasan.

— Baina zergatik ezin dinat jasan?

— Hik jakingo duk hori. Ezin izan duk inoiz jasan, ezta neri aurkeztu aurretik ere.

— Gezurra!... Gezurra!

— Egia! egia!

— Eta zergatik ezingo ninan bada jasan?

— Ospea daukaalako, aipua daukaalako... Ez al duk hik bezerorik? Ez al duk haiekin dirurik irabazten?

— Ba, begira, Helena, egia esango dinat, egia osoa. Ez dinat horrekin nahikoa! Nik ospetsua izan nahi ninan, zerbait aurkitu nere zientzian, nere izena eman zientzi aurkikuntzaren bati...

Ba ekiok horri, gaitasuna baduk eta.

Ekiok horri..., ekiok horri!... Ekingo nionan, Helena, hiretzat izango bahu ospe hori...

— Eta zergatik ez Antoniarentzat?

— Ez dezagun berataz hitzegin!

— Horretara etorri haiz! Nere Abel —«nere» indartuz— kanpora joan zai egon al haiz?

— Hire Abel..., hire Abel...; egiten al din bala, jaramonik hire Abelek?

— Zer? Salatari, kontakatilu, eta azpizapo ere bai?

— Hire Abelek bazeuzkan beste modelo batzuk ere.

— Eta zer? —esan zuen Helenak harroputz—. Eta hala baduk, zer? Bereganatzen bazekizkielako. Horregatik ere ezinikusia al diok? Ez al duk nahikoa... hire Antoniarekin? Ah! Eta berak beste emakume batzuk bilatu dituelako al hator hi hona baten bila? Eta horrela hator, kontu horrekin? Ez al dik lotsarik ematen Joaquin? Alde, alde hortik, nazka ematen zidak hi ikustek eta.

— Jainkoarren Helena, akabatu naun... akabatu naun!

— Tira, tira, hoa elizara, itxurati bekaizti alen hori eta hire emazteak senda hazala, gaizki hago eta.

— Helena, Helena, heuk bakarrik senda nazaken. Helena, arren, betirako galduko dun gizon bat!

— Eta zer nahi duk, hi neureganatzeagatik bestea galtzea, nerea?

— Hori ez dun galduko; galduta daukan dagoeneko. Hik ez dion axolarik. Ez dun hi maitatze ko gai. Ni, ni naun maite hauena bihotz bihotzez, inoiz ere ezagutu ez dunan maitasunaz.

Helena altxatu egin zen, haurraren gana joan, eta esnatuz, besoen artean hartu zuen, eta Joaquínengana itzulita esan zion: «Hau, hau duk, Abelen semea, etxe honetatik bidaltzen hauena; ho!

XVIII

Gaizkoatu egin zen Joaquin. Bere arima Helenaren aurrean hustu zuela jakiteak haserretu egin zuen, eta amorratu Helenak baztertu zuen moduak agerian utzi zuelarik gorrotoa ziola, eta samindu egin zuen guztiz. Baina bere buruaren jabe izan zen bere emaztearen eta alabarengan bilatu zuelarik poza eta laguntza. Goibeldu egin zen bere etxeko bizitza; mindu egin zitzaion umorea.

Garai hartan etxean neskame elizkoia zuten, saiatzen zena egunero meza entzuten eta lanak uzten zion denbora bere gelan geratzen zena otoitz egiten. Begi apalak zituen, lurrean tinkaturik beti eta erantzuten zuen apaltasunez eta ahots sudurkariz. Joaquinek ezin zuen jasan eta errieta egiten zion edozein aitzakiapean. «Arrazoa duzu, jauna», esaten zion neskameak.

— Arrazoa daukadala? —esan zuen behin nagusiak pazientzia galdua— ez, orain ez daukat arrazoirik!

— Beno, ongi da, jauna, ez zaitez haserretu, ez duzu arrazoirik.

— Besterik ez?

— Ez dizut ulertzen, jauna.

— Ez didazula ulertzen, azaluts itxurati hori?

Zergatik ez duzu zure alde egiten? Zergatik ez didazu erantzuten? Zergatik ez didazu kontra egiten?

— Zuri kontra egin? Jainkoak eta Ama Birjina Santuak gorde nazala, jauna.

— Baina, bere erruak onartzea baino zer gehiago nahi duk? —tartetik Antoniak.

— Ez, ez dizkin onartzen. Harroputza besterik ez dun.

— Harroputza ni, jauna?

— Begira. Harrokeria da norbere akatsak ez onartzea. Nerekin ari dun, nere kontura, apaltasun eta pazientzia frogak egiten; nere haserraldiak zurditzak bailiran hartzen dizkin, pazientziaren birtutearen antzeko. Eta nere kontura ez! Ez, ez eta ez! Ni ez naun izango zeruan sariak irabazteko bidea! Hori itxura hutsa dun.

Negar egiten zuen neskametxoak, hortz arte-tik otoitzean.

— Baina egia baduk, Joaquin, —esan zuen Antoniak— benetan apala baduk... Zergatik egingo dik kontra? Hire kontra altxatuko bahu gehiago haserretuko hintzateke.

— Ez, zatarkeria dun lagun hurkoaren ahultasunak erabiltzea birtutean jarduteko. Erantzun dezala, lotsa galdu dezala, pertsona izan dadila eta ez neskame soilik.

— Orduan gehiago haserretuko hintzateke Joaquin.

— Ez, gehien haserretzen nauena zintzoagoa izateko nahi horiek ditun.

— Oker zaude jauna —esan zuen neskameak begiak lurretik altxatu gabe—; nik ez daukat nere burua besteena baino hobeagotzat.

— Ez, e? Ba, neuk bai! Eta bere burua besteena baino hobeagotzat ez duena ergel bat da. Emakumerik pekatariena zarela uste duzu zuk, ezta? Tira, erantzun!

— Horrelakorik ez da galdetzen, jauna.

— Tira, erantzun, Luis Gonzaga Santuak ere gizon pekatariena zela uste zuen eta; erantzun; emakumerik pekatariena zara, bai ala ez?

- Besteren pekatuak ez dira nere gauza, jauna.
- Ergela, ergel alena, zoaz!
- Jainkoak barka zaitzala nik barkatzen zaitudan bezala.
- Zer barkatu? Etorri eta esan, zer? Zer barkatu behar dit Jainkoak? Tira esan.
- Beno, andrea, sentitzen dut zuregatik baina banoa etxe honetatik.
- Hori lehenago esan behar zenuen —bukatzeko Joaquinek.
- Eta gero, emaztearekin bakarka, esan zion:
- Ez al din esango inozo horrek erotu nauela? Ez al naiz erotu bada? Esaidan, erotu naun, bai ala ez?
- Joaquin, Joaquin, ez hadi horrela jarri.
- Bai, erotu naizela uste dinat. Sar nazan giltzapean. Honek akabatu nian.
- Akaba ezak hik bera.

XIX

Bere ahalegin guztiak alabarekin eman zituen, bera hazten eta hezten, munduaren moral ustelaz urrun babesten.

— Begira —esan ohi zion emazteari—, eskerak bakarra dinagula, ez dinagula besterik eduki.

— Ez al huke seme bat eduki nahi?

— Ez, ez; hobe dun alaba, errazagoa dun mundu usteletik urruntzea. Gainera, bi edukiz gero bekaizkeriak sortuko hituzke...

— O, ez!

— O, bai! Biri ezin zaien maitasuna eman; bati ematen zaiona besteari kentzen zaion. Bakoitzak dena nahi din norberetzat, norberetzat bakarrik. Ez, ez; ez ninake Jainkoaren egoeran ikusi nahi nere burua.

— Eta zein huen egoera hori?

— Hainbeste seme-alaba edukitzearena. Ez al zioaten Jainkoaren seme gaitunala denok?

— Ez ezak halakorik esan Joaquin.

— Batzuk osasuntsu zeudenan besteak gaiso zeudenan bitartean.

Ikustekoa zegonan osasunaren banaketa!

Ez zuen nahi bere alaba inorekin nahasterik. Etxera eraman zion irakasle bat eta berak ere, denbora zuenean irakasten zion zerbait. Joaquínatxo gizajoak bere aita gaiso bat bezala ikusten zuen; munduaren eta bizitzaren ikuspegi iluna jasotzen zuen aitarengandik.

— Hobe dinagu bakarra —esaten zion Joaquínnek bere emazteari horrela ez dinagu maitasuna banatu beharko...

— Esaten diate zenbat eta maitasun gehiago eman, orduan eta handiagoa egiten dela...

— Ez ezan hori sinestu. Gogoan dun Ramirez gizajoa? Bere aitak bi seme zitinan eta bi alaba eta baliabide eskasak. Bere etxean beti berdina jaten zintzen, eltzekaria, baina besterik ez; aitak bakarrik, Ramirez aitak jaten zintzen besterik, eta honetatik ematen zintzen batzuetan semeetariko bati eta alabetariko bati, baina inoiz ere ez gaintzekoei. Kanpaiak jotzen zintzen, jai egunetan, bi janari desberdin edukitzen zintzen denek eta hirugarren bat gainera berak, etxeko

nagusiak, zenbaitetan izan behar zinan eta berezi. Hierarkia gorde beharra diagon. Eta gauean, lotarakoan, Ramirez aitak musu ematen zianan beti semeetariko bati eta alabatariko bati baina inoiz ere ez beste biei.

— Izugarria duk! Zergatik hori?

— Ez zekinat... Ederragoak iruditzen zitzaitzianan bere kuttunak...

— Carvajalena bezalakoa duk, ezin dik bere alaba gazteena jasan.

— Txikiena iritsi zaion, aurrekoa baino sei urte beranduago eta baliabide eskasak dauzkanean. Bat gehiago dun, eta ezustekoa gainera. Horregatik deitzen zionate sasi alaba.

— Bai gauza izugarriak, ene Jainkoa!

— Horrelakoa dun bizitza, Antonia, gauza izugarrien iturri. Eta eskerrak emaizkion Jainkoari ez banatu behar izanagatik gure maitasuna.

— Isil hadi!

— Isilduko naun!

Eta isilarazi zuen.

XX

Abelen semea Medikuntza ikasten ari zen eta bere aitak honen ikasketen berri ematen zion Joaquini. Honek zenbaitetan mutikoarekin hitz egiten zuen eta nolabaiteko maitasuna hartu zion; gutxi iruditzen zitzaion egiten zuena.

— Eta nolatan bultzatu duk medikuntzara eta ez pintore izatera?

— galdetu zion behin Abeli.

— Nik ez diat bultzatu bere nahia izan duk. Ez dik inolako zaletasunik artearekiko...

— Noski, eta medikuntza ikasteko ez dik behar...

— Ez diat hori esan. Hi beti hain aierakor. Ez dik inolako zaletasunik eta ezta jakinminik ere. Ez dik nik pintatzen dudana begiratu ere egiten; ez dik galderarik ere egiten.

— Agian, hobe duk horrela...

— Zergatik?

— Izan ere, pintorea izan bazunan hik baino hobeto edo okerrago egingo likek. Bai, okerrago, Abel Sánchezen semea izatea, semea,

Abel Sánchez Txarra izatea edo Sánchez Txarra edo Abel Txarra, hori ez zegok ondo, berak ere ez likek jasango.

— Eta neu baino hobea izango balitz?

— Orduan ez hukeen hik jasango.

— Lapurrak besteak hala direla uste!

— Ez etorri neri itxura eginez. Artista batek ezin dik jasan bestearen ospea, are gutxiago bere semea edo anaiarena baduk. Errazago ezezagun batena. Odol bereko bat ospetsuagoa, hori ez! Nola azaldu hori? Ondo egiten duk medikuntzara bultzatzen.

— Horrela diru gehiago irabaziko dik.

— Baina pinturarekin ez duala asko irabazten esango al didak orain?

— Tira, zerbait bai.

— Eta ospea ere bai.

— Ospea? Ez duk luzarorako...

— Dirua gutxiago oraindik.

— Baina sendoagoa duk.

— Ez hadi gezurtia izan, Abel, ez ezak ospea gustatzen ez zaianaren itxura egin.

— Nere semeari ondasuna uztea duk orain benetan kezkatzen nauena.

- Izena eman diok.
- Izenak ez dik dirurik ematen ordea.
- Hireak bai!
- Nere sinadunak bai, baina... Sánchez duk!

Espero diat ez duala sinatuko Abel S. Puig! Egin dezatela Sánchez Etxeko Markes. Gainera Abel izenak gaiztotasuna kentzen zio Sánchez abizenari.

Abel Sánchez izen ona duk.

XXI

Bere buruaz ihes egiteko eta bere izpirituan etengabeen Abel zeukala Abel, pizten zitzaion kontzientzia ustela itotzeko Casinoko talde batekin elkartzen hasi zen. Hauekin zituen elkarrizketak sendagai izango ziren, edo mozkortu egingo zuten agian. Ez al zaio bada jendea edanari ematen pasio hondatzailea itotzeko? Ba bera, Casinoko elkarrizketari emango zitzaion, entzuteari parte hartzera baino gehiago, bere pasioa itotzeko. Baina bere buruaren txarrerako izan zen.

Beti joaten zen bere buruaren jabe izateko asmoz, barre eta txantxetan ibili asmoz, inori kalterik egin gabe zurrumurruka ibili asmoz, besterik gabe, bizitzaren ikusle bezala agertu asmoz, eszeptizismoan aritzen dena bezain zintzoa, ulertzea barkatzea dela, bere gain hartuz eta agerian utzi gabe gogoa usteltzen zion minbizia. Baina ahotik ateratzen zitzaion, hitzetan, gutxien espero zuenean eta guztiek nabaritzen zuten gaitzaren usaina. Eta bere buruarekin haserre itzultzen zen etxera, ausardiarik eza eta

bere buruaren jabea ez izatea leporatuz eta erabakia hartuta Casinoko taldearekin ez elkartzea gehiago. Ez, —ziotson bere buruari— ez naiz itzuliko, ez dut itzuli behar; honek gaizkoatzen nau; larritzen nau; toki hura pozoitsua da; ezkurtuko grina gaiztoak besterik ez dira hausnartzen; ez, ez naiz itzuliko; bakardadea behar dut nik, bakardadea...! Bakardade Santua!

Eta itzuli egiten zen.

Baina itzuli egiten zen berriro, ezin zuelako bakardadea jasan. Izan ere, bakardadean ezin zuen inoiz ere bakarrik egon, bestea han zegoe-lako beti. Bestea! Harekin elkarrizketan ikusi zuen behin bere burua, trebeki moldatzen besteak esaten ziona. Besteak, elkarrizketa bakarti hauek, bakarrizketa elkarrizketatu hauetan, garrantzirik gabeko gauzak esaten zizkion, edo atseginak, ez zuen gorrotorik adierazten. «Zergatik ez dit gorroto, Jauna? —esatera iritsi zen—. Zergatik ez dit gorroto?»

Eta bere burua ikusi zuen behin Jainkoari eskatzekotan, deabruzko otoitz gaiztoa eginez, Abelen ariman sar zezala berarekiko gorrotoa, Joaquinenganakoa. Eta berriro ere: Ah? Nerega-

nako inbidia balu... Eta burutapen honekin, bere izpiritu garratza zeharkatu zuen distira zurbil bat bezala, urtzeko moduko atsegina sentitu zuen, bere arimaren muinak hotzikaraz dardararazi zituen atsegina. Nereganako inbidia eduki!... Nereganako inbidia eduki!...

«Baina —esan zion bere buruari— ez al da izango hau nere buruari gorroto diodala, nere buruarekiko inbidia dudala?...» Atera joan zen, giltzez itxi, toki guztietara begiratu eta bere burua bakardadean ikusi zuenean belaunikatu egin zen eta esan zuen isilka ahopean ahotsa sumintzen zioten malkoz: «Jauna, Jauna. Zuk esan zenidan: maitatu lagun hurkoa zure burua bezalaxe! Eta nik ez dut lagun hurkoa maite, ezin dut maitatu, ez dakidalako nere burua maitatzen, ezin dut nere burua maitatu. Zer egin didazu, Jauna?»

Biblia hartzera loan zen ondoren eta ireki zuen haxe esaten duen tokian: «Eta Jehovak esan zion Caini: non dago Abel, zure anaia?» Poliki poliki itxi zuen liburua isilean esanaz: «Eta non nago ni?» Orduan zarata entzun zuen kanpoan eta korrika loan zen atea irekitzera: «Aita,

aitatxo!»), oihukatu zuen alabak sartzean. Ahots samur hark argitu zion gogoia. Musu eman zion neskatxari eta ahoa belarrian jarri zion eta esan zion isilean, isil isilean, Inork ez entzuteko moduan: «Otoitz egin hire aitaren alde, ene alabatxoa!»

— Aita! Aita! —hasperen egin zuen neskatxak, besoak aitaren lepora eramanez.

Burua alabaren sorbaldan ezkutatu zuen eta negarrari ekin zion.

— Zer duzu, alta, gaiso zaude?

— Bai, gaiso nago. Baina ez ezazu galdetu gehiago.

XXII

Eta itzuli zen Casinora. Alferrik zuen gogor egitea. Egunero aurkitzen zuen aitzakiaren bat hara joateko. Zurrumurrutan jarraitzen zuen taldeak.

Han zegoen Federico Cuadrado, gogor, eta batek bestea goresten zuen orduko galdetuz: «Noren aurka bota duzu hori?»

— Neri —zioen bere ahots hotz eta zorrotzaz— ez didazue ziria sartuko; norbait asko goresten denean buruan dugu bestea, gorespen horrekin gutxietsi nahi duguna, goretsi dugunaren arerioa. Badaude asmo txarrez goresten dutenak. Inork ere ez du asmo onez goresten.

— Begira, —ihardetsi zuen León Gómezek, Cuadrado lotsagabea zirikatuz atsegin hartzen zuenak— hor duzu Leovigildo jauna, hori ez da gaizki esaka aritzen inorengatik...

— Beno —tartekatu zuen probintzia diputatuak— izan ere, Leovigildo jauna politikoa da, eta politikoeak harreman honetan egon behar dute jendearekin... Zer diozu horri Federico?

— Diot, inori buruz gaizki esan eta ondo pentsatu gabe hilko dela Leovigildo jauna... Berak ez du emango bultzada txiki bat ere bestea botatzeko, ezta inork ikusten ez badu ere, ez baita legediaren beldur soilik, infernuarena ere b» da; baina bestea erori eta muturrak hausten baditu bera benetan poztuko da. Eta besteak muturra haustearekin poz hartuz, bera izango da lehena ezbeharrak errukitu eta doluminak ematen.

— Nik ez dakit nola bizi den horrela sentitzen badu —esan zuen Joaquinek.

— Nola sentitzen du bada? —galdetu zion bestea ixildu orduko Federicok.

— Nola sentitzen du Leovigildo jaunak, zeuk eta neuk sentitzen duzun bezala?

— Nitaz inork ere ez du ezer esan —esan zuen hoztasun garratzaz.

— Nik esaten dut, lagun, hemen denak eza-gunak gara eta... Zurbil nabaritu zen Joaquin. Izotzezko aizto bat bezala sartu zitzaion barru barruraino, Federico bere deabru zaindaria, norbaiti atzapar egiten zionean bota ohi zuen «lagun!» hura.

— Ez dakit zergatik hartu duzun begitan Leovigildo jauna —gehitu zuen Joaquinek, damu zitzaiola esan bezain laster, bien arteko harremana okertzen ari zitzaiola nabaritu baitzuen.

— Begitan? Begitan nik? Eta Leovigildo jauna gainera?

— Bai, ez dakit zer gaitz egin dizun...

— Hasteko, lagun, ez da beharrezkoa batek ezer egitea bera begitan hartzeko. Bat begitan hartura errazagoa da gaitza asmatzea, hau da, kalte egin dizutela pentsatzea... Eta nik begitan daukat Leovigildo jauna beste edozein dudan bezala. Gizon bat da eta kitto.

Eta gizon zintzoa gainera!

— Zu guztiz bakarzale zarenez... —ekin zion probintzi diputatuak—. Gizona da izakirik usteleena eta zikinena, esan dizut hamaikatxo aldiz. Eta gizon zintzoa da, gizonik gaiztoena.

— Tira, tira! Zer diozu zuk horri, lehengoan Leovigildo jauna politiko zintzoa zela esaten zenuen horrek? —esan zion León Gómezek diputuari.

— Politiko zintzoa! —bota zuen Federico Cuadrado—. Hori bai ezetz!

— Zergatik ez? —hirurak batera.

— Zergatik? Berak esan duelako. Hitzaldi batetan bera zintzoa zela esateko ausardia eduki zuelako. Eta ez da zintzoa hori zabaltzea.

Ebanjelioak esaten du Kristo Gure jaunak...

— Ez aipatu Kristo, arren! —moztu zion Joaquinek.

— Zer, Kristo ere babestu nahi duzu, laguna? Isilune labur, ilun eta hotza egin zen.

— Kristo Gure jaunak esan zuen —berriz Federicok— ez esateko bera ona zela, Jainkoa bakarrik dela ona. Eta badaude kristau zekenak, zintzoak direla esaten dutenak.

— Zintzoa izatea ez da ona izatea —tartekatu zuen Vicente jaunak, epaileak.

— Orain asmatu duzu, Vicente jauna. Eta eskerrak Jaunari behingoz arrazoizko eta egokia den epaia entzuten dudan!

— Beraz, —esan zuen Joaquinek— gure burua ez dugu zintzotzat hartu behar. Eta maltzurtzat?

— Ez da beharrezkoa.

— Cuadrado jaunak nahi zuena da, —esan zuen Vicente epaileak gizonak bere burua giza-

txar bezala hartzea eta bere horretan jarraitzea, ez al da?

Bejondaizula! —oihu egin zuen probintzia diputatuak.

— Azalduko dizut, laguna —esan zuen Federicok erantzuna prestatuz—. Jakingo duzu zein den gure Ama Eliza jakintsuaren aitormen sakramentuak duen bikaintasuna...

— Beste astakeriaren bat —tartetik epaileak.

— Astakeria ez, baizik eta erakunde jakintsua. Aitormenak lasaiago pekatu egiteko balio du, pekatariak badaki eta barkamena emango zaiola. Ez al da hala Joaquin?

— Noski, ez bada damutzen...

— Bai, laguna, bai; bat damutzen bada, baina pekatu egiten badu eta berriz damutu, eta pekatu egiten duenean damutuko dela baldin badaki eta damutzen denean berriz pekatu egingo duela baldin badaki, azkenean pekatu egin eta damutuko da aldi berean, ezta?

— Misterio bat da gizona —esan zuen León Gómezek.

— Gizona, ez esan astakeriarik! —erantzun zion Federicok.

— Astakeria, zergatik?

— Lege filosofiko oro, eta beraz, axioma oro, esalegez azaltzen den esakune orokor eta garrantzizko oro, astakeriak dira.

— Eta orduan filosofia?

— Ez dago beste filosofiarik hemen egiten duguna baino...

— Bai, lagun hurkoa gaitzesten duena.

— Hori da. Onena gaitzestea da.

Tertulia bukatzerakoan, Joaquinengana joan zen Federico bere etxera zioan galdetzera pixka batean lagundu nahi ziolako, eta hark ezetz esatean, hantxe aldamenean bisita egitera zihoala, honek esan zion:

— Bai, ulertzen dizut; bisita egitearena aitzakia da. Zuk nahi duzuna, bakarrik gelditzea da. Ulertzen dut.

— Eta zergatik ulertzen duzu?

— Inoiz ez da egoten bakarrik baino hobeto. Baina bakardadeaz nekatzen zarenean zatoz neregana. Inork ez zaitu aldenduko zure ez beharretaz nik bezain ondo.

— Eta zureak? —aurpegira bota zion Joaquinnek.

— Ba! Bost axola horiek!... Eta alendu egin ziren.

XXIII

Hirian zehar ibiltzen zen gizon behartsu bat, aragoitarra, bost semeren aita zena eta ahal zuen moduan dirua irabazten zuena, idazmorroi bezala eta ahal zuena eginez. Gizajoa, askotan joaten zen ezagun eta lagunengana. Halako batek lagunik badu, hamaika aitzakiapean eskatuz bi edo hiru duro aurreratzeko. Eta tamalgariagoa zena, semeren bat bidaltzen zuen, edo noizbait bere emaztea, ezagunen etxera eskaera eskutitzak eramatera. Joaquinek zenbaitetan lagundu zion, bere sendikoengana sendagile moduan joateko deitzen zionean basez ere. Eta lasaitasun berezi bat sentitzen zuen gizon behartsu hura lagunduz. Giza gaiztakeriaren kaltetua ikusten zuen beragan.

Berari buruz galdetu zion behin Abeli.

— Bai, ezagutzen diat —esan zion honek— eta denboraldi batetan neretzako lan ere egin zuen. Baina alproja bat da, alfer bat. Bere ezbeharrak ahazteko aitzakiarekin egunero joaten da tabernara, bere etxean sukaldea piztu ere ego-

ten ez bada ere. Eta ez du faltan edukiko zigarro kaxarik. Ke bihurtu behar ditu bere atsekabeak.

— Horrek ez dik ezer ere san nahi, Abel. Sakonean aztertu beharko huke kasua...

— Begira, horiek berriketak dira. Eta ez dudana onartzen mailegupean eskatzeko gezurra duk eta «ahal dudanean itzuliko dizut...» esatea. Eskean aritu dadila eta aurrera. Argiagoa eta zintzoagoa duk. Azkenekoan hiru duro eskatu zizkidan aurreratzeko eta hiru pezeta eman nizkion baina hau esanez: «Eta eziezazkidak itzuli» Alproja bat duk!

— Ez duk bere errua!...

— Tira bada, atera duk, ez duk bere errua...

— Noski bada! Norena duk errua?

— Beno, begira, utz ditzagun gauza horiek. Eta lagundu nahi badiok, lagundu, ni ez nauk kontra aterako. Nik neuk ere bazekiat berriro eskatzera etortzen baduk, emango diodala.

— Hori banekian, izatez hi...

— Ez gaituk sartuko izaerarekin. Pintorea nauk eta ez dizkiat pintatzen pertsonen izaerak. Are gehiago, ziur negok denok kanporatzen diagula barruan diaguna.

— Bai, hori, hiretzat gizon guztiak ez direla modeloa besterik...

— Eta hori gutxi, al duk? Eta hiretzat gaisoa besterik ez. Zeren hi haiz begiratzen eta auskultatzen ibiltzen haizena jendearen barrua...

— Lanbide eskaxa gero...

— Zergatik?

— Besteen barruak begiratzeko ohituraz nere barrua begiratzeari ematen diodalako, auskultatzera.

— Abantaila duk hori. Nik nere burua ispiluan begiratzearekin nahikoa zeukeat.

— Noizbait begiratu al haiz sakonean?

— Noski! Ez al dakik nere buruari irudia egin diodala?

— Maisulana izango dena gainera...

— Tira, ez zegok gaizki... Eta hik, ondo aztertu al duk hire burua?

Elkarrizketa hau gertatu eta hurrengo egunean Joaquin Casinotik irten zen Federicorekin, eskean lotsagarri ibiltzen zen gizon behartsu hura ezagutzen zuen galdetzeko: «Eta esan egia, e, bakarrik gaude eta; ez esan ankerkeriarik.»

— Ba, begira, hori gizajo bat da eta gartzelan egon beharko luke, han gutxienez orain baino hobeto jango eta lasaiago biziko bailitzateke.

— Zer egin du bada?

— Ez, ez du ezer ere egin; egin beharko zukeen eta horregatik diot gartzelan egon beharko lukeela.

— Eta zer egin behar zukeen?

— Bere anaia hil.

— Hasi zara!

— Azalduko dizut. Gizajoa, aragoitarra da dakizunez, eta bere herrian oraindik ere azken nahia egiteko eskubidea dute. Lehen semea izateko zoritxarra eduki zuen, seme zaharrena izatekoa, eta gainera neskak behartsu, polit eta itxuraz zintzoa zen batetaz maitemintzearena. Aitak harreman horiek gaitzetsi zituen gogotik, berarekin ezkontzen bazen ondarea kenduko ziola esanez. Eta hark, maitasunez itsu, haurdun utzi zuen lehenengo, aitak amore emango zuelakoan eta azkenean neskarekin ezkondu eta etxetik alde egin zuen. Herrian geratu zen, ahal zena eginez aitagarreben etxean eta bere aitak amore eman eta bigunduko zenaren zai. Eta

hau, aragoitar petoa bera, bere hartan. Eta hil egin zen gizajoari ondarea kendurik eta bigarre-nari utzirik etxaldea; etxalde arrunta. Handik gutxira gaur diru eskale dugunaren aitaginarrebak hil zirenean, anaiarengana joan zen babes eta lan eske, eta anaiak ukatu egin zizkion, eta anaia hil ordeztu, barrenak eskatzen zionari jarraituz, eskupekoen kontura bizitzera etorri zaigu hona. Hauxe da istorioa; ikasbide dugu istorioa, ikusten duzunez.

— Ikasbide benetan!

— Anaia hil balu, Jacob-en antzekoa zen hura, gaizki, oso gaizki eta hil gabe ere gaizki, oso gaizki baita ere...

— Agian okerrago honela.

— Ez esan hori, Federico.

— Bai, zeren ez da bakarrik bizimodu zoritxarrekoa daramala, baizik eta anaia gorrotatuz bizi dela.

— Eta hil izan balu?

— Orduan gorrotoa sendatuko litzaioke eta orain, bere okerraz damututa, bera gogoan du. Ekintzak pentsamendu txarretaz askatzen gaitu eta pentsamendu txarrak dira arima pozoitzen

dutenak. Sinestu iezadazu, Joaquin, oso ondo dakit eta.

Joaquinek begietara begiratu zion eta aurpegia bota:

— Eta zuk?

— Nik? Ez galdetu laguna, inporta ez zaizuna. Nahikoa duzu nere lotsagabekeria, babesteko bidea besterik ez dela jakitearekin. Ni ez naiz zuek nere aitatzat daukazuenaren semea; ni sasiko semea naiz eta ez dut mundu honetan inor ere gorrotatzen nere aita, egiazkoa, baino gehiago, bestearen borrarero izan dena baino gehiago, doilortasun eta koldarkeriaz bere izen nazkagarria eman zidana baino gehiago.

— Baina aita ez da haurra ernaltzen duena; haurra hezten duena da...

— Ni hezi nauela pentsatzen duzuen horrek, ez nau hezi, izan ere, bestearekiko, ernaldu ninduenarekiko, gorrotoaren pozoiak, nere amarengandik urrundu ninduen, eta behartu zuen nere amarekin ezkontzera.

XXIV

Bukatu zituen ikastetak Abelen semeak, Abeltxok eta aita bere lagunarengana joan zen galdetzera laguntzaile bezala hartu nahi ote zuen trebatzeko. Onartu zuen Joaquinek.

«Onartu nuen —idatzi zuen aurrerago, alabari eskainitako Aitormenean— harrigarria zen nahasketa batengatik, jakin minagatik, bere aitarenganako gorrotoagatik, mutikoarenganako begiruneagatik, garrantzirik gabekoa iruditzen zitzaidana orduan, eta nere grina gaiztoaz askatzeko nuen nahiagatik, eta aldi berean nere ari-maren barrutik, nere deabruak esaten zidalako semearen porrotarekin bere aitaren harrokeria mendekatuko nuela. Alde betetik, semearenganako maitasunaren bidez askatu nahi nuen aitarenganako gorrotoaz eta bestetik, pozez itxaroten nuen Abel Sánchez pinturan ospetsu izan zen bitartean, beste Abel Sánchezek, odol berekoak, huts egitea Medikuntzan. Ezin nuen pentsatu zenbaterainoko maitasun sakona hartuko

nion gerora, bihotza nahigabetzen eta belzten zidanaren semeari.»

Eta hala elkarrenganatu ziren Joaquin eta Abelen semea. Abeltxo argia zen eta ardura adierazten zuen Joaquinek irakasten zionagatik, eta maisu deitzen hasi zitzaion honi. Bere maisu zen hau, tematu zen sendagile on bat lortzen eta eman zion bere esperientzia klinikoan jasotako altxorra. «Lagunduko diot —zioen— aurki ditzan nere gogoaren ezinegonak aurkitzen utzi ez dizkidan gauzak.»

— Maisu —galdetu zion Abeltxok—, zergatik ez duzu liburu bat idazten neri erakutsi dizkizun behaketa sakabanatu horiekin, ohar eta idazti guzti horiekin? Oso interesgarria litzateke eta erakusbide garrantzitsua gainera. Gauza bikainak daude, zorroztasun zientifiko nabarmenekoak.

— Ba, begira, seme (hala deitzen zion) —esan zuen—, nik ezin diat, ezin diat... Ez diat horretarako umorerik, ez diat gogorik, kemenik, lasaitasunik, eta ez zekiat zer gehiago...

— Horretan jartzea litzateke dena...

— Bai, seme, bai, horretara jartzea, baina hori pentsatu dudan guztietan ez nauk ausartu. Liburu bat idatzi... Espainian... eta Medikuntzaz! Ez likek ezertarako balioko. Hutsaren hurrengoa huke...

— Ez, zeurea ez, maisu, ezetz esaten dizut.

— Nik egin behar nukeena hik egingo duana huen; bezero jasanezin hauek utzi eta ikerketa hutsean aritu, benetazko zientzian, fisiologian, histologian eta ez gaisoak sendatzen soilik. Hi ondasunak dituan hori, izan ere hire aitak eman dizkik eta, jarri hadi horretara.

— Agian arrazoia edukiko duzu maisu; baina horrek ez du galerazten zure mediku esperientzia argitaratzea.

— Begira, nahi baduk, zera egingo diagu. Nik nere oharrak emango dizkiat, hitzez agertu, jakin nahi duana azalduko diat eta gero hik argitaratuko duk liburua. Zer deritzok?

— Primeran, maisu. Idatzia dut zure laguntzaile naizenetik entzun dudana, erakutsi didazun guztia.

— Oso ondo, seme, oso ondo —eta besarkatu egin zuen hunkituta.

Geroago Joaquinek bere buruari: «Hau, hau izango da nere lana. Nerea eta ez bere aitarena. Ni gurtuko nau eta konturatuko da nik bere alta baino askoz gehiago balio dudala eta medikuntzaren ekitean arte gehiago dagoela bere aitaren pinturan baino. Eta azkenean kendu egingo diot semea, bai, kendu egingo diot! Berak Helena kendu zidan eta nik, semea kenduko diet. Nerea izango da, eta nork daki?..., agian uko egingo dio aitari jakiten duenean zer egin zidan.»

XXV

— Baina, esaidak —galdetu zion behin Joaqui-
nek bere ikasleari— nola bururatu zitzaian Medi-
kuntza ikastea?

— Ez dakit...

— Izan ere, pinturarekiko zaletasuna izatea
luke berezkoa. Mutikoak beren gurasoen lanbi-
deak erakarri ohi dizkik, imitatzeko joera duk...,
giroa...

— Inoiz ez dut pintura gustoko izan, maisu.

— Bazekiat, seme, esan zidak hire aitak.

— Eta gutxiago oraindik nere aitaren pintura.

— Tira, tira, eta nolatan hori?

— Ez dut bere pintura sentitzen eta ez dakit
berak ere sentitzen duen...

— Hori okerragoa duk. Ea, azaldu egidak.

— Bakarrik gaude; inork ere ez gaitu entzu-
ten; zu maisu, nere bigarren aita zara..., bigarre-
na... Zintzoa. Gainera zu zara bere lehenengo
laguna, entzun izan diot betidanik, txikitatik, adi-
mena eduki aurretik, anaiak bezala zaretela...

— Bai, bai, hala duk; Abel eta ni anaiak bezala izan gaituk... Jarrai.

— Ondo da, nere barrua erakutsi nahi dizut gaur, maisu.

— Erakutsi iezadak. Esaten didaana, nere bihotzean geldituko duk, ez dik inork ere jakingo!

— Ba, hori, ez dut uste nere aitak sentitzen duenik, ez pinturarik eta ez besterik. Makina bat balitz bezala pintatzen du, berezko dohaina du hori, baina, sentitzen al du?

— Beti uste izan diat hori.

— Ba zu izan zinen, maisu, esaten dutenez, nere aitari ospea eman zeniona oraindik denek gogoratzen duten hitzaldi harekin.

— Eta zer esango nian ba nik?

— Hori gertatzen zait neri. Baina nere aitak ez du sentitzen ez pinturarik ez besterik. Harrizkoa da, maisu, harrizkoa.

— Ez duk horrenbesterako seme.

— Bai, harrizkoa. Bere ospearentzat bizi da soilik. Ospeari muzin egiten diola gezurra da, gezurra. Txaloak espero ditu beti. Eta berekoia da, benetan berekoia. Ez du inor ere maite. Inor

ere ez, maisu, inor ere ez! Ez dakit nolatan ezkondu zen nere amarekin. Ez dut uste maite-minduta ezkondu zenik.

Zurbildu egin zen Joaquin.

— Badakit —jarraitu zuen semeak— ibili eta nahastu dela modelo batzurekin; baina grina da hori eta harrokeria ere. Ez du inor ere maite.

— Uste diat hik izan beharko hukeela...

— Neri ez dit jaramonik egin inoiz ere. Ni mantendu nau, ordaindu dizkit nere heziketa eta ikasketak, ez dit ukatu eta ez dit ukatzen bere dirua, baina ni ez naiz ia ezer beretzat. Noizbait zerbait galdetu izan diodanean, historiaz, arteaz, teknikaz, pinturaz edo bere bidaietaz edo beste zerbaitetaz, zera esan dit: «Utz nazak, utz nazak paketan», eta behin hau ere esan zidan: «Ikasi nik ikasi dudan bezala! Hor dituk liburuak!» Ze desberdina zaren zu ordea, maisu!

— Ez zian jakingo, seme. Zeren begira, zenbaitetan gurasoak gaizki geratzen dira semeen aurrean bere burua ez aitortzeagatik seme-alabak baino ezjakin edo traketsago.

— Ez zen horregatik. Eta badago okerragorik.

— Okerragoa? Ea bada!

— Okerragoa, bai. Inoiz ere ez dit errieta eman, egin dudana egin. Ez naiz eta ez naiz inoiz ere izan txoriburua, lizuna, baina gazte guztiok izaten ditugu gure gorabeherak eta gure hartue-manak. Ba, inoiz ere ez ditu gaitzetsi eta zerbait jakinda ere ez dit ezer esan.

— Hire izakerarekiko begirunea duk hori, hireganako konfidantza... Agian seme bat hezteko erarik onena eta zintzoena horixe da... beragan konfidantza edukitzea alegia.

— Ez, ez da hori maisu. Ajolagabekeria da huts hutsean.

— Ez, ez; ez duk hainbesterako, ez dok hori... Zer esango hidaan, hire buruari esaten ez dioanik? Aita batek ezin dik izan epaile...

— Baina bai adiskide, aholkulari, laguna edo irakaslea zu bezala.

— Baina badituk gai batzuk, lotsagatik hitzegiten ez dituanak aita semeen artean.

— Zilegi da zuk, bere lagun min eta aspaldi-koa zarenak, anaia ia, bere alde egitea, baina hala ere...

— Baina hala ere, zer?

— Dena esan dezaket?

— Bai, esan dena!

— Ondo da, zuri buruz entzun diot oso ondo hitzegiten, ondo baino hobeto, baina...

— Baina zer?

— Ondoegi hitzegiten duela zutaz.

— Zer esan nahi du ondoegi hitzegiteak?

— Ba zu ezagutu aurretik, maisu, bestelakoa uste zintudala.

— Azaldu ezak hori.

— Nere aitarentzat pertsona trajiko baten antzekoa zara zu, zoritzarreko gogoia duena eta grina sakonak bizi dituen. «Posible balitz Joaquinen arima pintatzea!» esan ohi du. Badirudi zu eta bere artean isilpekorik dagoela gordeta...

— Hire usteak dituk horiek...

— Ez, ez dira uste hutsak.

— Eta zure amak?

— Nere amak...

XXVI

— Begira Joaquin —esan zion behin Antoniak senarrari—, egun hauetako batetan badioakiguk alaba edo badiaramagu norbaitek... —Joaquina? Eta nora?

— Konbentura!

— Ezin liteke!

— Bai, baliteke. Hi, hire gauzetan murgilduta eta orain Abelen semearekin, semetzat hartua duala dirudien horrekin... Edozeinek esango likek hire alaba baino gehiago maite duala...

— Salbatzeko ahaleginetan ari naun, askatzekotan bere gurasoengandik...

— Ez, hi mendeku bila ari haiz. Ze mendekuzalea haizen! Ez duk ez ahaztu eta ez barkatzen! Jainkoak zigortuko hauenaren beldur nauk, zigortuko gaituenaren beldur...

— Ah! Eta horregatik joan nahi al din Joaquinak konbentura?

— Nik ez diat hori esan.

— Baina nik esaten dinat eta hala dun. Abelentxorenganako bekaizkeriagatik al dioan bada

Joaquinatxo? Bera maite dudana baino, bestea gehiago maite dudanaren beldur al dun? Horregatik badun...

— Ez duk horregatik.

— Orduan?

— Nik ez zekiat!... Bokazioa duela ziok, Jainkoaren deia jarraitzen duela...

— Jainkoarena... Jainkoarena...; Bere aitorlearena izango dun.

Nor dun?

— Etxeberria jauna.

— Ni aitortzen ninduen?

— Hori bera!

Goibel eta burumakur gelditu zen Joaquin, eta hurrengo egunean bakarrik zeudela, esan zion emazteak:

— Uste dinat badakidala zein diren Joaquina klaustrora joatera bultzatu duten arrazoiak edo hobe esan zein arrazoiengatik zirikatu dinan Etxeberriak bertara joateko. Gogoratzen dun nola Joan nindunan elizara babes eta laguntza bila gogoia estutzen zidan kezka gaizto honi aurre egiteko, urteen joanean zaharragoa egiten den amorruari, latz eta gogorrago egiten denari

aurre egiteko, eta gogoratu baita ere, nola aha-
legin guztiak eginda ere ez ninan lortu. Ez, ez
zidanen sendagairik eman Etxeberriak, ezin izan
zidanen eman. Gaitz hau sendatzeko sendagai
bakarra diagon, bakar bat.

Une batez isildu zen emaztearen erantzuna-
ren zai, eta hau isilik gelditu zenez, hala jarraitu
zuen:

— Gaitz hau sendatzeko heriotza da sendagai
bakarra. Batek diakin! Berarekin jaio nindunan
eta berarekin hilko naun agian. Ba, sendatu eta
lehengoratu ezin izan nindinan apaiztxo horrek
nere alaba, zure alaba, gure alaba bultzatzen din
orain konbentura joatera, bertan nere alde erre-
gutzeko, bere burua eskaintzera ni salbatzeko...

— Baina ez dik bere burua eskainiko... bere
nahia hori baduk...

— Gezurra, Antonia; hori gezurra dunala esa-
ten dinat. Monja joaten ditunanen arrear, gehie-
nak lan gutxi egitera joaten ditun, eta apaltasu-
nean bizitzera, baina lasai, lo kuluxka mistikoak
egitera, etxetik ihesi dioazen, eta gure alaba
etxetik ihesi dioan, guregandik ihesi.

— Hirengandik izango duk...

— Bai, neregandik ihesi dioan! Nere gaitza antzeman din!

— Halako begirunea hartu dioanez hari...

— Mutilarengandik ihesi dioala dion?

— Ez hire grina berriarengandik ihesi...

— Grina? Grina? Grina dion? Ni ez naun grina-tia, Antonia. Nik dena egiten dinat zentzutasunez, dena, ulertzen al dun?

— Bai, zentzutasun gehiegiz —ihardetsi zuen emazteak negarrez.

— Tira, ez ezan negarrik egin, Antonia, nere santua, nere aingeru ona, eta barkaidan zerbait esan badinat...

— Okerrena ez duk esaten duana, isiltzen duana baizik.

— Baina, Jainkoarren, Antonia, Jainkoarren, ez utzi gure alaban joaten; joaten badun nereak egin din, bai, nereak egin din eta. Gera dadila, berak nahi duena egingo dinat; Abeltxo kalera botako dinat...

— Gogoan diat esaten huenean alaba bakarra genialako pozten hintzela, horrela ez genialako maitasuna banatu behar...

— Baina nik ez dinat banatu!

— Okerrago orduan...

— Bai, Antonia, alabak neregatik eskaini nahi din bere burua eta ez diakin konbentura joaten badun lurjota utziko nauela. Etxea dun bere konbentua!

XXVII

Bi egunen buruan gelan sartu zen Joaquin bere emazte eta alabarekin.

— Aita, hala nahi du Jainkoak —esan zuen ausarti eta aurrez aurre begiratzuz bere alaba Joaquinak.

— Ba, ez! Hori ez dun Jainkoaren nahia, apaiztxo horrena baizik —erantzun zuen—. Nola dakin hik, lotsagabe horrek, zer dunan Jainkoak nahi duena? Noiz hitzegin dun berarekin?

— Jauna hartzen dut astero, aita.

— Eta Jainkoaren goi argiak iruditu al zaizkin baraurik sabeletik igotzen zaizkin zorabioak?

— Okerragoak dira bihotzarenak.

— Ez, ez, hori ezin liteke; Jainkoak ez din nahi hori, ezin din nahi, ezin din nahi. Esaten dinat!

— Nik ez dakit zer nahi duen Jainkoak eta zuk, aita, badakizu zer ezin duen nahi izan, ez? Asko jakingo duzu gorputzeko gauzetaz, baina Jainkoaren gauzetaz, arimakoetaz...

— Arimakoetaz, e? Beraz, uste dun ez daki-dala ezer arimari buruz?

— Agian hobe zenuke ezer ere jakingo ez bazenu.

— Ni salatzen ari zara?

— Ez; zeu zara, aita, zure burua salatzen duzuna.

— Ikusten dun, Antonia, ikusten dun, ez al ninan esan?

— Zer esan zizun, ama?

— Ezer ere ez, ene alaba, ezer ere ez; zure aitaren kezka, usteak...

— Ba —esan zuen Joaquinek ziur balego bezala—, ni salbatzera hoa konbentura, ezta?

— Agian ez zabilta guztiz oker. Eta salbatu, zertaz?

— Ez dakit ondo.

— Ezta neuk ere... Zertaz? Nortaz?

— Nortaz, alta, nortaz? Ba zure deabruaz edo zure buruaz agian.

— Eta hik zer dakin?

— Jainkoarren, Joaquin, Jainkoarren —erregutu zuen amak ahots dardartiz eta senarraren begirada eta oihuen beldur.

— Utzi, emazte, utzi. Hau ez dagokin hiri!

— Ez dagokidala? Nere alaba duk eta...

Nerea dun! Utzi; bera Monegrotarra dun, ni Monegrotarra naun; utzi. Hik ez dun ulertzen, hik ezin ditun ulertu gauza hauek...

— Aita, nere aurrean horrela jokatuko baduzu amarekin, banoa. Ez egin negar, ama.

— Baina, hik sinismenik badun, alaba?

— Nik sinesten dut eta jakin badakit, bere alaba naizela zurea bezala.

Nerea bezala?

— Gehiago agian.

— Ez esan halakorik, Jainkoarren —esan zuen amak negarrez—, bestela banoa.

— Hobe litzateke —ihardetsi zuen alabak—. Bakarka hobeto ikusiko dizkiogu elkarri aurpegiak edo arimak, guk, Monegrotarrok.

Amak musu eman zion alabari eta irten egin zen.

— Beno ba —esan zuen hotz aitak, alabarekin bakarka gelditu orduko— zertaz edo nortaz salbatzeko hoa konbentura?

— Begira, aita, ez dakit nortaz, ez dakit zertaz, baina beharrezkoa dut zu salbatzea. Nik ez dakit zer dabilen etxe honetan, zu eta nere ama-

ren arrear; ez dakit zer duzun barruan, baina ez da ona...

— Hori esan al din apaiztxo horrek?

— Ez, ez dit apaiztxoak esan; ez zegoen esan beharrik; ez dit inork ere esan, jaio nintzenetik igarri dut. Hemen, etxe honetan, izpiritua ilun dugula bizi gara!

— Ba, horiek hire liburuetan irakurritako gauzak ditun...

— Zuk zuretan beste batzuk irakurri dituzun bezala. Zer uste duzu, bada, liburuek bakarrik hitzegiten dutela gorputzaren barruan dauden gauzetaz, zure liburuetan azaltzen diren lamina itsusi horiek direla egia erakusten dutenak?

— Eta, aipatu ditunan izpiritu ilun horiek, zer dira?

— Zuk jakingo duzu nik baino hobeto, aita; baina ez ukatu hemen zerbait badagoela, hemen laino iluna dagoela, alde guztietatik sartzen den goibeltasuna, zu ez zaudela inoiz ere pozik, sufritu egiten duzula, zure gain oker handiren bat bazenu bezala dela...

— Bai, jaiotzezko pekatua! —esan zuen Joaquinek maltzurki.

— Hori da, hori da! —esan zuen alabak—.

Horretaz ez zara sendatu!

— Bataiatu nindinaten, bada!...

— Berdin da.

— Eta hori konpontzeko monja joango haiz, ezta? Ba, lehenengo, beharko genuke jakin zer den hau...

— Jainkoak libra nazala, aita, hori egiteaz. Ez dezagun inor ere epaitu.

— Baina ni ebatzi bai, ez al da?

— Zu ebatzi?

— Bai, ni ebatzi; zu joatea ni ebaztea dun...

— Eta senarrarekin joango banintz? Gizon batengatik utziko bazintut?

— Gizona ikusi behar.

Isilune laburra egin zen.

— Bai, alaba —hasi zen Joaquin berriz—, ni ez niagon ondo, nik sufritu egiten dinat, etengabean sufritzen dinat; egia dun hauteman duna; baina monja joateko hartu dunan erabakiarekin hil naun, nere gaitzak gaiztotzen eta larritzen ditun. Errukitu hadi hire aitaz, hire alta gaisoaz...

— Errukiagatik da...

— Ez, hirekoitasuna dun. Ihes egiten dun; ni sufritzen ikusi eta ihes egiten dun. Hirekoikeria dun, hoztasuna dun, maitasun eza dun klaustro-ra joateko arrazoia. Demagun nik gaisotasun kutsatzaile eta luzea dudala, lepra; joango hintzateke konbentura ni sendatzeko erregutuz Jainkoari? Ea, erantzun; joango hintzateke?

— Ez, ez nintzateke joango, zure alaba bakarra naiz eta.

— Ba demagun lepraduna naizela. Gelditu ni zaintzen. Hik zainduko naun, hire esanetara jarriko naun.

— Hala bada...

Alta altxatu eta malkoak zituela alaba begiratu bezarkatu egin zuen eta orduan, besoen artean zuela, ahots isilez esan zion belarrira:

— Sendatu nahi naun, alaba?

— Bai, alta.

— Ezkondu, bada, Abeltxorekin.

— Nola? —esan zuen Joaquinak aitarengandik urrundu eta aurre begiratu.

— Zerk? Zerk harritzen hau? —dardarti eta aldi berean harrituta aitak.

— Ezkondu? Ni? Abeltxorekin? Zure etsaiaren semearekin?

— Nork esan din hori?

— Urteetan zehar zure isiltasunak.

— Horrexegatik, nere etsaia dunala esaten dun horren semea dunalako.

— Ez dakit zer duzuen bien artean, ez dut jakin nahi, baina ikustean azken aldi honetan zein ondo konpontzen zinen bere semearekin, izutu nintzen..., beldur nintzen... ez dakit zertaz nintzen beldur. Abeltxorenganako maitasun hori izugarria iruditzen zitzaidan, deabruzkoa...

— Ba, ez, alaba, ez! Salbamena lortu nahi nian beraren bidez. Eta sinetsi ezan, nere etxera erakartzen badun, nere seme egiten badun, nere ariman eguzkia argitzea bezala litzatekeela...

— Baina, zuk nahi duzu, zuk, nere aitak, ni bere atzean ibiltzea, hurbiltzea?

— Ez dinat hori nahi.

— Orduan, zer?

— Eta bera...

— Ah, baina konponduta al zenuen, bada, bien artean eta ni kontutan hartu gabe?

Ez, ez; nik ninan pentsatuta, nik, nik, hire aitak, hire alta gaisoak, nik...

— Errukarria zara, aita.

— Nere burua erruki dinat. Orain dena nere kontu. Ez al hunan bizia nere alde eman nahi?

— Ondo da, bai, zure alde emango dut! Zurea nauzu!

Alta musukatzera joan zitzaion eta neskak, askatuz, esan zuen:

— Ez, orain ez! Merezki duzunean. Edo nik ere musuz isilaraztea nahi duzu?

— Non ikasi dun hori alaba?

— Paretek entzun egiten dute, aita.

— Eta salatu ere bai!

XXVIII

— Zu bezalakoa izan nahi nuke, Joaquin jauna —esan zion behin aragoitar behartsu hark, bost seme-alaben aitak, diru pixkat atera zionean.

— Ni bezalakoa! Ez dut ulertzen!

— Bai, edozer emango nuke zu bezalakoa izateagatik, Joaquin jauna.

— Eta zer da emango zenukeen hori?

— Eman ahal dezakedan guztia, dudan guztia.

— Eta zer da hori?

— Bizia!

— Bizia ni bezalakoa izateagatik! —eta bere buruari ihardetsi zion Joaquinek «Nerea emango nuke, bala, beste bat izateagatik!»

— Bai, bizia zu bezalakoa izateagatik.

— Bada ondo ulertzen ez dudan zerbait, lagun; ez dut ulertzen inork bere bizia eman nahi izatea beste bat izateagatik, ez dut ulertzen ezta ere, inork beste norbait bezalakoa izateko nahia edukitzea.

Beste norbait bezalakoa izatea, norberak berea galtzea da, norbera dena ez izatea.

— Zalantzarik gabe.

— Eta hori, ez izatea da.

— Zalantzarik gabe.

— Baina ez beste bat izateko...

— Noski. Esan nahi dut, Joaquin jauna, gogo onez utziko niola nere izateari, edo hobe, tiro egingo niokeela nere buruari, edo ibaira botako nuela jakingo banu nere senideek, bizitza nazkagarri honi lotzen nautenek, nere buruaz beste egiten uzten ez didatenek, aita edukiko luketela zugan. Ulertzen duzu orain?

— Bai, ulertzen dut. Beraz...

— Madarikatua dela bizitzarekiko dudan lotura eta gogo onez urrunduko nintzatekeela nere buruaz eta hilko betirako nere oroitzapenak, ez balitz nere sendiarengatik. Hala ere, badut lotzen nauen beste zerbait ere.

— Zer da?

— Nere oroitzapenak eta nere historia heriotzan ere nerekin izango ditudanaren beldurra. Zu bezalakoa izan nahi nuke, Joaquin jauna!

— Eta zuk dituzunak bezalakoak balira nik ere bizirik jarraitzeko ditudan arrazoiak?

— Tira! Zu aberatsa zara.

— Aberatsa..., aberatsa...

— Eta aberats batek inoiz ere ez du arrenkarako arrazoirik. Zuk denetik duzu. Emaztea, alaba, bezeroak, ospea... zer gehiago nahi duzu? Zure aitak ez zizkizun kendu ondareak; zure anaiak ez zintuen etxetik bidali eskean ibiltzerara... Zu ez zaituzte eskale izatera behartu! Zu bezalakoia izan nahi nuke, Joaquin jauna!

Eta hau bakarrik gelditu zenean hala zioen bere buruari: «Ni bezalakoia izan nahi luke! Gizon horrek inbidia dit, inbidia dit! Eta neuk, nor izan nahi dut?»

XXIX

Egun batzuen buruan, Abeltxo eta Joaquina-txo hasiak ziren ezkongai harremanetan. Eta bere Aitormenean, alabari eskainitakoan, idatzi zuen Joaquinek gutxira:

Ezinezkoa da, alaba, adieraztea nola bultzatu nuen Abel, gaur zure senarra dena, bere emaztegai izateko harremanak eskatzera. Aditzera eman nion zu berataz maiteminduta zeundela edota gutxienez, gustatuko litzaizukeela bera zutaz maitemintzea, agerian utzi gabe guk bakarka eduki genuen elkarrizketa hura, nere erruz konbentura joango zinela esan zidanaren ondorengo hura. Horretan ikusten nuen niere salbamena. Zure patua lotuaz bizitza pozoitu zidanaren semearenari, horrela, gure odolak nahastuz espero nuen salbatuko nuela nere burua.

Pentsatzen nuen egunen batetan zure semeak, nere bilobak, Abelen semearen semeak, honen bilobak, bion odola jasotzean, borroka heziko zutela eta beren buruenganako

gorrotoa ere bai. Baina, norbere buruarekiko gorrotoa, odolarekikoa, ez al da sendagai bakarra besteenganako gorrotoaren aurka? Itunak dionez, Rebeca-ren barruan zeuden Esau eta Jacob-ek jo egiten ziotela elkarri. Nork daki egunen batetan ez ote dituzun bixkiak ernalduko bata nere odolekoa eta bestea Abelen odolekoa eta borrokatuko duten eta elkar gorrotatuko duten zure barruan eta kanpora atera zentzua hartu aurretik. Izan ere, giza tragedia eta gizon oro gezurren seme baitira Jacob bezalatsu.

«Eta dardar egiten nuen pentsatuz agian batu egin zintuztedala ez batzeko, baizik eta zuen odolak gehiago aldentzeko, gorroto bat betikotzeko. Barka nazazu! Burutik jota nago.

«Baina ez da gure odola bakarrik, berea eta nerea, I lelenarena ere bada. Helenaren odola! Hau da aztoratzen nauena; masailetan, kopetan, ezpainenetan loratzen zaion odol hori, begirada uztartzen duena, bere gorputzaren bidez itsutu ninduen odol hori.

«Eta beste bat ere bada, Antoniarena. Antonia gizajoarena, zure ama santuarena. Bataio Lira da honen odola. Garbitzaile da odol hau.

Zure amaren odolak soilik, Joaquinatxo, salba ditzake zure seme-alabak, gure bilobak. Hau da zikinik gabe salba ditzaken odola.

«Eta ez dezala ikusi berak, Antoniak, Hau; ez dezala ikusi. Hil dadila, ni baino gehiago bizi bada, nere okerraren misterioa ezagutu gabe.

Senar-emaztegaiak ondo konpontzen hasi ziren eta elkarrenganako maitasuna hartu zioten. Elkarrizketa sakonetan bere etxeetako kaltetu ikusi zituzten bere buruak, bi egoera goibelen kaltetu, bihozgabetasun hutsa bata eta bestea berriz ezkutuko grina hotza. Laguntza bilatuzuten Antoniarengan, neskaren amarengan. Bizitokia eraiki behar zuten, benetazko bizitokia, ez dituen beste maitasunak zelatzen, bakardadean maitasuna bizitzeko gaztelu bat, eta bertan batu behar zituzten zoritxarreko bi sendiak. Ikus-taraziko zioten Abeli, pintoreari, senitarteko bizitza dela hiltzen ez den zera eta honek ematen diola distira eta ez itzala arteari; Helenari, arimaren baitan dagoela betirako gaztetasuna, odol-berekoan urbizian murgiltzen den arimaren baitan; Joaquinari, gure izena galdu egiten dela baina berriz indarberritzen dela gurekin nahastu dire-

nen izen eta odolengan; Antoniari ordez, ez zioten ezer ikustarazi behar, ohituraren gozotasunean bizi eta indarberritzeko jaiotako emakumea baitzen bera.

Bere burua berpiztuta ikusten zuen Joaquinek. Maitasunak hunkituta hitz egiten zuen bere aspaldiko lagunaz, Abeletaz, eta aitortu ere egin zuen zorioneko egin zuela Helena lortuko zuenaren itxaropena kentzeak.

— Ondo dun, —esan zion behin bakarka alabari—, dena bideratzen ari dunanez, kontatuko dinat. Nik Helena maite ninan, hala uste ninan behintzat, atzetik ibili nintzaionan ezer ere lortu gabe. Zeren, hori bai, egia esan, ez zidan inoiz itxaropenik eman. Eta Abel aurkeztu nionan orduan, hire aitagarreba izango dena..., hire beste aita, eta ondo etorri hitunan haseratik. Mespretxutat hartu ninan nik hau, iraintzat... Zer eskubide ninan nik beragan?

— Egia da hori, baina halakoak zarete gizonak.

Arrazoia dun, ene alaba, arrazoia dun. Ero moduan bizi izan naun etengabeen gogotan hartuz iraintzat, maltzurkeriatzat ninan hura...

— Besterik ez, aita?

— Nola besterik ez?

— Ez al zen hori besterik, besterik ez?

Nik dakidala... ez!

Eta hori esatean, gizajoak begiak ixten zituen barrurantz eta ez zuen lortzen bihotzari eustea.

— Ezkondu egingo zarete orain —jarraitu zuen— eta nerekin biziko; bai nerekin biziko zarete eta lortuko dinat hire senarra, nere seme berria, sendagile ona izatea, medikuntzan artista, bere aitak adina ospe lortuko dinan artista handia.

— Berak idatziko du zurea alta, zure liburua, hala esan dit eta.

— Bai, nik ezin izan dudana idatzi...

— Esan dit zure lanean, medikuntzaren ihar-dunean gauza argitsuak daudela eta aurkikuntzak egin dituzula.

— Lausengari horiek...

— Ez, hori esan dit. Eta inork ez zaituelako ezagutzen, eta ezagutzen ez zaituztenez ez dutelako zure lana estimatzen, horregatik, zu ezagutzera emateko idatzi nahi duela liburu hori.

— Berandu dun...

— Inoiz ez da horretarako berandu.

— Ai, ene alaba, nere bezeroak zaintzen murgildu beharrean nere lanaren ihardun nekagarri honetan, lasai bizitzen uzten ez dinan honetan eta ezta ikasten ere...; horretan aritu orde zientzia hutsean aritu izan banintz, ikerketan!... Alvarez y Garcia doktoreak aurkitu duena, eta hainbeste aipatzearen arrazoia dena, nik aurkitu ninan, nik, hire aitak, eta aurkitu egingo ninan ziur, lortzearren egon nindunan eta. Baina dirua irabazteko lanari ekin beharrak...

— Hala ere, ez genuen horren beharrik.

— Bai, baina... Gainera, auskalo!... Dena dela hori bukatu dun eta orain hasten dun bizitza berria. Orain utziko dizkinat bezeroak.

— Benetan?

Bai, hire senarra izango denari utziko zizkionat, nere ikuskaritzapean, noski. Gidatu egingo dinat eta ni neureari! Eta elkarrekin biziko gaitun guztiok eta beste bizitza bat izango dun... beste bizitza bat. Bizitzen hasiko naun; beste bat izango naun... beste bat..., beste bat...

— Ai, aita, hau zoriona! Pozten nau zuri hori entzuteak! Azkenik!

— Beste bat izango naizela entzuteak pozten hauela?

Alabak begietara begiratu zion somatzean bere ahotsaren doinuak adierazten zuena.

— Beste bat izango naizela entzuteak pozten hau? —galdetu zion berriro aitak.

— Bai, aita, pozten nau!

— Beraz, bestea, bestea, orain naunana ez dun gustoko?

— Eta zuk, aita? —galdetu zion jarraian, ausartia alabak.

— Isilarazi nazan —hasperen egin zuen. Eta musu batez isilarazi zuen.

XXX

— Jakingo duk zertara niatorren —esan zion Abelek Joaquini honen bulegoan biak bakarrik gelditu orduko.

— Bai, bazekiat_ Hire semeak hire bisitaren berri eman zidak.

— Nere semea eta laster hirea, biona. Eta ez dakik ondo zenbat pozten naizen! Horrela bukatu behar zian gure adiskidetasunak. Eta nere semea hirea duk dagoeneko; aita bat bezala maite hau, ez irakasle bezala soilik. Ni baino gehiago maite hauela esango niake...

Gizona..., ez..., ez..., ez esan hori.

Eta zer? Jeloskor nagoela uste duk? Ez, ez negok jeloskor. Eta begira, Joaquin, gure aurrean zerbait egon baduk...

— Ez, jarraitu horretan, Abel; mesedez, ez jarraitu...

— Beharrezkoa duk. Gure odolak nahastera doazenean, nere semea hirea izatera doanean eta zurea nere alaba, hitz egin behar diagu lisker

zahar horri buruz, gure barruak hustu behar dizkiagu erabat.

— Ez, ez, inolaz ere ez, eta horri buruz hitz egiten baduk, bania!

— Ondo duk! Baina ez pentsa ahaztu dudarik, ahaztuko dudarik hire hitzaldi hura, koadroa aurkeztu huenekoa.

— Horretaz hitzegitea ere ez diat nahi.

— Zertaz, bada?

— Iraganari buruzko ezertaz ez, ezertaz! Mintzo gaitezen bakarrik etorkizunaz...

— Hik eta nik, gure adinera iritsita ez badiaugu iraganari buruz hitzegiten, zertaz hitzegingo diagu, bada? Iragana besterik ez zeukeagu eta!

— Ez ezakela hori esan oihuka Joaquinek.

— Guk oroitzapenekin bizi behar diagu!

— Isil hadi, Abel, isil hadi!

— Eta egia esan, hobe duk oroitzapenekin bizitzea, itxaropenekin bizitzea baino. Izan ere, haiek izan hituan eta hauek izango direnik ez zekiagu!

— Ez, ez; oroitzapenik, ez!

— Dena dela, hitzegin dezagun gure seme-alabei buruz, gure itxaropena dituk eta.

— Hori bai! Beraietaz eta ez gutaz; beraietaz, gure seme-alabetaz...

— Mutilak maisu eta alta izango hau...

— Bai, nere bezeroak utziko zizkioat, hartu nahi dizkidanak, horretarako prestatu baitiat. Lagunduko zioat larrialdietan.

— Mila esker, mila esker.

— Hori, Joaquinatxori emango zioaten ezkon-sariaz gain. Baina nerekin biziko dituk.

— Hala esan zidak semeak. Baina, nik ordea, uste diat bere etxea behar dutela; ezkont-etxea nahi izaten dik ezkontzen denak.

— Ez, ezin diat nere alabarengandik urrundu.

— Eta gu, gure semearengandik bai, ezta?

— Orain zaudetena baino urrunago... Gizona ez duk ia etxean sartzen, emakumea aldiz, ez duk ia ateratzen hartatik. Nere alabaren beharra diat.

— Hala bedi. Ikusten duk adibera naizela.

— Eta etxe hau zuena izango duk, hirea, Helenarena...

— Eskerrik asko gu ondo hartzeagatik. Uler-tzekoa duk hori. Elkarrizketa luze baten ondoren, konpondu ondoren bere seme eta alabari zego-

kien guztia, alde egiterakoan, Abelek, Joaquini begietara so eginez begirada samurrez, eskua luzatu, eta elkarrekin bizitako haurtzaroa gogotan zuela, esan zion: «Joaquin!» Malkoak agertu zitzaizkion boni, haren eskua hartzean.

— Ez haut negarrez ikusi haurrak gintuanetik, Joaquin.

— Ez gaituk berriz izango, Abel.

— Bai, hori duk latzena.

Eta aldendu egin ziren.

XXXI

Alabaren ezkontzarekin eguzkia, udaberriko eguzkia sartu zela zirudien Joaquinen etxe hotzean eta orduan hasi zen honen bizia. Bere bezeroak suhiari utzi zizkion, larrialdietan laguntza bezala bera joaten zitzaiolarik eta behin eta berriro esaten zuelarik bere esanetara aritzen zela hura.

Aitagarrebaren, aita deitzen zionaren, hika hitzegiten zionaren idaztiekin eta ahozko azalpen eta argitasunekin osatzen zuen Abeltxok liburua, Joaquin Monegro sendagilearen ezagutza zientifikoa jasotzen zuen liburua, eta Joaquinek berak ere eman ezingo zion begirunezko kurtuaz osatu gainera. «Hobe izan da, bai —pentsatzen zuen Joaquinek—, lan hura beste batek idaztea, Platonek Socrateren dotrina azaldu zuen moduan!» Berak ezin zuen, gogoan askatuz eta harrotasun itxurarik eman gabe, ondorengoen txaloak, orain lortezinak uste zituenak bortxatze-ko ahaleginak egiten zituenaren itxura eman gabe; berak ezin zuen goraiatu bere jakituria

eta trebetasuna. Bene ihardun literarioa beste ahaleginetarako gordetzen zuen.

Orduan hasi zen idazten, hain zuzen, bere Aitormena, horrela aipatzen zuena, alabari eskaini ziona eta honek bera hil ondoren ireki zezan idatzi zuena. Bere barne borroka eta bere bizitza bete zuen grinaren arteko borroka zen Aitormenak azaltzen zuena, zentzumena ernatu zitzaionetik deabruaren aurkako borroka, hau idazten zuenean ere bere burua menperatzen zuenaren aurkakoa. Aitormena alabari eskainia zela zioen baina, erabat barneratuta zuenez bere grinazko bizitza eta bizitzaren grinaren indar tragikoa, itxaropena zuen egunen batetan bere alaba edo bilobek munduari erakutsiko ziotela, onespén eta izuz harrিতuta gera zedin heroe haren aurrean, bere ingurukoek ondo ezagutu ez zutelá bizi izan zenaren aurrean. Izan ere, Joaquinek aparteko izpiritutzat zeukan bere burua eta horregatik oinazetua era samina jasateko besteak baino gaitasun handiagokoa, jainkoak aurrez hautatutakoen seinaleaz markatua jaio-tzean.

Nere bizitza, ene alaba —idazten zuen Joaquinek—, sutan izan da beti, baina ez nuke emango beste batenaren truke. Inork ez bezala, baina besteek baino gehiago jasan izan dut munduko maitasun eta zorionaren justizia eza. Ez, ez, zure senarraren gurasoek nerekin egindakoa ez zen izan ez bihozbera eta ezta zintzoa ere; gaiztoa izan zen; baina okerragoa izan zen, askoz ere okerragoa guztiek, haurra nintzenetik eta konfiantza osoz lagun hurkoaren laguntza eta maitasuna bilatu dudanetik aurkitu ditudan guztiek egindakoa. Zergatik baztertzen ninduten? Zergatik hartzen ninduten hotz eta hortara beharturik baleude bezala? Zergatik zuten nahiago buruarina, ajolagabea, berekoia zena? Guztiek, guztiek garrastu didate bizitza. Eta ulertu egin nuen mundua berez dela bihozbera eta ni ez nintzela ni bezalakoan artean jaioa. Hau izan zen nere zoritxarra, ez izatea ni bezalakoan artean jaioa. Nere ingurukoan zitalkeriak okerbideu ninduen.»

Eta Aitormena idazten zuen bitartean beste obra bat prestatzen zihoan, hark hutsegitekotan, bere herriko eta odolberekoko burutsu hilezkorrak

zirenen harrilobirako sarrera izango zena. «Sendagile zahar baten oroitzapenak» litzateke izenburua eta bertan azalduko litzateke munduko jakituriaren uzta, grinen uzta, bizitzarena, tristeziaren pozoia eta agian baita ezkutuko heriotzarena, guztiak bere sendagile ihardunean jasotakoak. Bizitzaren ispilua, baina honen mamitxarrena eta beltzenarena, giza azpikerien zuloetara jaitziera; gol mailako literatura liburua eta filosofiazkoa aldi berean. Han utziko luke agerian arima bere buruaz hitzegin gabe; han, besteren arimak agerian uzteko utziko luke berea agerian; han barruko luke bizi behar izan zueneko mundu zitalarekiko mendekua. Eta jendeak, bere buruak horrela ikustean, agerian, mirestu egingo luke lehenengo eta ondoren eskertu egingo lioke arima agerian utzi zituenari. Eta han, fikziozko izenak emanaz, betirako izango zen Abel eta Helenaren irudia egingo luke. Era bere irudiak Abelek egindako guztiak baino gehiago balioko luke. Eta bakarka, atsegina hartzen zuen pentsatzean Abel Sánchezen irudi literarioa nola egin asmatuz gero betikotu egingo lukeela bere koadro guztiak baino gehiago, etorkizuneko hizla-

riak eta jakintsuak aurkituko luketela fikziozko izenpean, pertsonaia historikoa. «Bai, Abel, bai —zioen Joaquinek bere buruari—; hainbeste borrokatu duzuna lortzeko zure aukera, borrokatu duzun gauza bakarra, arduratzen zaituen gauza bakarra lortzeko aukera, ni mespretxatzeko edo okerrago, neri jaramonik ez egiteko eduki zenuen arrazoia aurkitzeko aukera; ondorengoen gogoan betirako sartzeko aukera, ez dira zure irudiak, ez! baizik eta nere idazlumaz zaren bezala irudikatzen jakitea. Eta jakingo dut, jakingo dut ezagutzen zaitudalako, jasan zaitudalako, nere gogoan eraman zaitudalako bizitza osoan. Betirako sartuko zaitut ondorengoen gogoan, eta ez zara Abel Sánchez izango, ez, baizik eta nik aukeratzen dudana. Eta pintore bezala zutaz hitzegiten dutenean, jendeak esango du: «A, bai, Joaquin Monegrorena!» Nerea izango baitzara horrela, eta bizirik iraungo baituzu nere obrak irauten duen bitartean, eta zure izena lurraren pare ibiliko da, lokatzetan, berearen atzean arrastaka, Danteren atzean doazen bezala Infernuan jarri zituenak. Eta bekaizkeriaren irudia izango zara.»

Bekaiztiarena! Pentsatzeari eman zion Joa-
quinek, Abeli bizia ematen zion grina, berekoi
itxurapean gordetzen zena, bekaizkeria zela,
Joaquinenganako bekaizkeria, bere bekaizti zela-
ko kentzen ziola gaztetan lagunen begirunea,
bekaizkeriaz kendu ziola Helena ere. Eta, nola-
tan utzi zion bada, semea kentzen? «A —zioen
Joaquinek—, bera ez da arduratzen semeaz, bere
aipuaz baizik, bere ospeaz; ez du sinesten hara-
gi berekoengan biziko dela, bere koadroak
miresten dituztenengan baizik, eta horregatik
uzten dit bere semea, bera ospearekin bakarrik
gelditzeko! Baina nik agerian utziko dut!»

Kezkatu egiten zuen Oroimenak idazten hasi
zeneko adina, berrogeitamabost urtetara iritsia,
baina Cervantesek ere ez al zuen berrogeitama-
zazpi urterekin hasi Quijote? Eta aztertzen hasi
zen zenbat idazlek idatzi zituzten maisu laria
bere adinarekin. Eta aldi berean bere burua
kementsu ikusten zuen, bere buruaren jabe,
esperientziaz berea, zentzudun, eta bere grina
berriz, urteetan harrotua, undo eutsia baina
sutan oraindik.

Orain, bere obra egiteko, bere senari eutsiko zion. Abel gizajoa! Ez zekien ondo zer zetorkion gainera! Eta mespretxu eta errukia sentitzen hasi zen beragan. Modelo eta kaldetu bat bailitzan begiratzen zuen, eta behatu eta aztertu egiten zuen. Hala ere, ez gehiegi, gutxitan joaten baitzitzaion, oso gutxitan, bere semeari etxera.

— Lanez gainezka ibiliko duk hire aita —esaten Zion Joaquinek bere suhiari—; apenas etortzen duk hona. Kexu izango ote? Mindu egin ote diagu nik, Antoniak edo nere alabak? Ez niake nahi...

— Ez, ez, aita —hala esaten zion Abeltxok—; ez duk halakorik. Etxean ere ez duk egoten. Ez al nian esan bere gauzek bakarrik arduratzen dutela? Bere ardurak bere artearenak dituk, eta ez zekiat...

— Ez, seme, ez; gehiegi esaten duk..., beste zerbait izango dik...

— Ez, ez dik besterik.

Eta Joaquin tematu egiten zen behin eta berriz gauza bera entzuteko.

— Eta Abel, nolatan ez dun etortzen?... —galdetzen zion Helenari.

— Tira, hala ibiltzen duk guztiekin!... —erantzuten zuen honek. Bera, Helena, joaten zen errainaren etxera.

XXXII

— Baina, esaidak —esaten zion behin Joaquinek suhiari—, nola ez zitzaioan bururatu hire aitari pinturarekiko zaletasuna piztea hiri?

— Ez zaidak inoiz ere gustatu.

— Berdin dik; berezkoa zirudikan hark bere artera bultzatu nahi izatea...

— Ba ez, oster, egia esan, ez zian gustoko nik horren ardura edukitzea. Inoiz ere ez nindikan bultzatu haur nindukala haurrengan berezkoa dena egitera, irudi eta marrazkiak egitera alegia.

Arraroa duk..., arraroa duk... —isilpean Joaquinek—. Baina...

Abel aztoratuta sentitzen zen bere suhiaren aurpegiko imintzioa ikusita, bere begien argi lausoa ikusita. Barrutik zerbaitek kilikatzen zuen, mingarria zen eta kanporatu nahi zuen zerbaitek; pozoi bat, zalantzarik gabe. Samurtasun garratzez beteriko isilunea jarraiki zitzaion azken hitz hauen ondoren. Eta Joaquinek eten zuen esanez:

— Ez diat ulertzen hi ez bultzatu izatea pinto-
re izatera...

— Ez, ez zian nahi ni bera bezalakoa izatea...

Beste isilune bat, Joaquinek eten zuena hau
ere, behartuta bezala aitormen bat egitera
ausartzen denak bezala oihukatuz:

— Bai, ulertzen diat bada!

Arrazoa zehazki jakin gabe, Abel dardarka
hasi zen bere aitagarrebak hitz hauek esatean
erabilitako doinu eta ozentasuna entzutean.

— Zergatik?... —galdetu zuen suhiak.

— Ez..., ezergatik... —eta bestea bere baitan
gorde zela zirudien.

— Esaidak! —erregutu zuen suhiak—, Joaqui-
nek eskatuta hika hitzegiten ziola aita eta lagu-
nari bezala— lagun eta kide!—, nahiz eta eska-
tzen zuena esango ote zionaren beldur izan.

— Ez, ez; ez diat nahi gero esatea...

— Hori okerragoa duk, bada, aita, dena esa-
tea baino. Gainera, igarri dutelakoan niagok...

— Zer? —galdetu zuen aitagarrebak, begi-
rada begietan tinkatuz.

— Agian nik denboraren joanean bere ospea
itzaliko nionaren beldurra ziala...

— Bai —ihardetsi zion barru barrutik Joaquinnek—. Bai, hori duk!... Abel Sánchez semea, edo Abel Sánchez Gaztea! Eta gero Jendeak hire aita huelako oroitzea bera eta ez hi bere semea hazelako. Familiartean behin baino gehiagotan ikusitako tragedia duk... Seme batek aitari itzal egitea...

— Baina hori... —esan zuen suhiak zerbait esatearren.

— Hori bekaizkeria duk, seme, bekaizkeria besterik ez.

— Seme batekiko bekaizkeria!... Eta aita batek gainera!

— Bai, berezkoena duk. Bekaizkeria ez duk ematen elkar ezagutzen ez dutenen artean. Ez gaituk kanpotarren bekaizti, eta ezta beste garaikoena ere. Ez gaituk beste lurraldetakoen bekaizti, baizik eta herri berekoena; ez zaharrena, beste belaunaldi batekoena, baizik eta garai-kideena, kidearena. Eta bekaizkeria latzena anaia artekoa. Zerbaitetarako duk Cain eta Abelen elezaharra. Ezinikusi latzenak anaiak, baten emaztea, koinata, begiratu diala uste dialako

sortutakoak dituk, hago ziur... Eta guraso eta seme-alaben artean sortutakoak...

— Baina, eta bien arteko adin desberdintasuna?

— Berdin dik! Sortu genian hura guri itzal egi-tera iristea...

— Eta irakasle ikasleen artean? —galdetu zuen Abelek.

Joaquin isildu egin zen eta begirada tinkatuz azpian lurra igartzen zuela eta honekin hitz egin bezala gehitu zuen:

— Argi zegok, bekaizkeria odolberekotasun era bat duk.

Eta ondoren:

— Baina beste zerbaitetaz hitzegingo diagu, eta guzti hau, seme, esan ez banian bezala. Entzun duk?

— Ez!

— Nola ezetz?...

— Ez dudala entzun lehen esandakoa.

— Neuk ere entzun izan ez banian hobe! — eta negarra zerion ahotsari.

XXXIII

Helena bere errainaren, bere seme-alaben etxera joan ohi zen, fintasuna zabaltzera, dotorezia eramatera garrantzirik gabeko burges etxe hartara, zuzentzera —hala uste zuen behintzat berak— Joaquinatxo gizajoaren heziketaren okerrak, oinarririk gabeko harrokeriaz betetako aitak eta beste batek baztertutako gizona hartu behar izan zuen ama gizajoak emandakoaren okerrak zuzentzera. Eta egunero ematen zituen modu onei eta jarrera egokiei buruzko ikasgaiak.

— Ondo, zuk nahi duzun bezala —esan ohi zuen Antoniak.

Eta Joaquinak, barruari eutsiz bazen ere, burua makurtzen zuen. Baina prest zegoen egunen batetan aurka egiteko. Eta egin ez bazuen, bere senarrak hori eskatzen ziolako izan zen.

— Zuk nahi duzun bezala, andrea —esan zuen behin «zuk» indartuz, elkarren artean erabiltzen zutena oraindik—; nik ez dakit gauza hauetaz eta axola ere ez zait axola. Zuk nahi bezala egingo ditugu gauzak...

— Baina ez da nik nahi izatea, alaba zara, da...

— Berdin da! Sendagile baten etxean hezi naute ni, honetantxe, eta garbitasunari dagokionez, osasunari, behin semea edukitzen dugunean hura hezitzeari dagokionez, badakit zer egin behar dudan; baina bitartean, zuk jarrera on eta zotiltasunezko deitzen diezun gauza horietan, bere burua artista baten etxean jantzi duenaren esku jarriko naiz.

— Baina ez zaitez horrela jarri, neskato...

— Ez, ez naiz inola jarri. Zuk beti aurpegiratzten diguzu han ez dela horrela egiten, beste erara egiten dela. Azken finean, ez dugu eman-go jairik edo dantzaldirik.

— Ez dakit nondik jaso duzun, alaba, itxurazko mespretxu hori; itxurazkoa, bai, itxurazkoa, berriz diot, itxurazkoa...

— Baina nik ez dut ezer ere esan eta, andrea...

— Itxurazko mespretxua jarrera egokiekiko, gizarte arauetikiko. Gureak egin zuen horiek gabe!... Ezin genuke bizi!

Joaquinari bai aitak, bai senarrak pasioan ibiltzea, etorriko zen haurrari emango zion odola egurastu eta eguzkitan jartzea gomendatua ziotenez eta hauek ezin zutenez beti lagundu, eta Antoniari ez zitzaionez gustatzen etxetik bakarrik irtetea, Helenak zaintzen zuen, amaginarrebak. Honek atsegin hartzen zuen horrela, alboan eramatean ahizpa gaztea bailitzan, izan ere ahizpa zuela uste zuten ezagutzen ez zituen jendeak, eta itzal egitean errainari, urteek hondatu ez zuten edertasunaz. Bere ondoan, erraina ez zuten ikusten jendearen begi biziak. Joaquinaren edertasuna poliki dastatzen zuten begiek, bitartean Helena apaintzen zelarik oharkabeen begiradak bereganatzeko: «Nahiago dut ama!», entzun zion behin gaztetxo bati, limurkeriaz, albotik pasatzean amaginarrebak Joaquinari alaba esaten ziola entzun zuelako, eta orduan puztu egin zen mingainaz bustiz ezpainak.

— Begira, alaba —esan ohi zion Joaquinari—, ahal duzun guztia egin haurdun zaudela ez igartzeko; oso itsusia da jakitea neskatxa bat haurdun dagoela..., harrokeria da...

— Nik egiten dudana, ama, eroso ibiltzea da, eta ez arduratzea besteek esaten edo esaten ez dutenaz... Parregarriek haurriteko deitzen dioten egoeran banago ere, ez dut horren itxura egiten beste batzuk egin duten eta egiten duten bezala. Ez naute arduratzen gauza horiek.

— Arduratu beharra duzu, bada; munduan bizi gara.

— Eta zergatik ez dute jakin behar?... Edo ez al zaizu atsegin zuri, ama, amona izango zarela jakitea besteek? —ihardetsi zuen maltzurkeriaz.

Helena sutan jartzen zen gorroto zion hitz hura entzutean: amona, alegia, baina eutsi egin zuen.

— Begira, adinagatik bada... —esan zuen minduta.

— Bai, adinagatik bada, berriz ama izan zintezke —erantzun zion errainak, bere ahultasunean min emanez.

— Noski, noski —esan zuen Helenak, berotuta eta harrituta, indarge eraso gogorraren ondorioz—. Baina zuri begira geratzea ere...

— Ez, zaude lasai zu begiratzen zaituzte eta. Buruan dute irudi zoragarri hura, arte lan hura...

— Ni zu izango banintz... —ekin zion amaginarrebak.

— Zu ni izango bazina, ama, haurdun egon ahal izango bazenu, orduan?

— Begira, neska, horrela jarraitzekotan berehala itzuliko gara eta ez naiz berriz aterako zurekin eta ezta zure etxean sartuko ere... aitarenean, alegia.

— Nerea, andrea, nerea, eta nere senarrarena eta zurea!...

— Baina nondik atera duzu izakeratxo hori, neska?

— Izakeratxo txarra? A, noski, genioa bestearena da!

— Begira ezazue, begira mindukin hau..., monja joatekoa zena bere aitak nere semea bereganatu aurretik...

— Esana dizut dagoeneko, andrea, ez aipatzeko hori berriz. Banekien zertan ari nintzen.

— Eta nere semeak ere bai.

— Bai, eta berak ere bazekien zertan ari zen, eta ez gaitezen honetaz mintzo.

XXXIV

Eta jaio zen Abel eta Joaquinaren semea, barruan nahastuta zeramatzanak Abel Sánchez eta Joaquin Monegroren odolak.

Lehenengo gatazka, jarri behar zitzaion izena zela eta sortu zen; Joaquin nahi zuen amak, Abel Helenak, eta honen semeak, Abelek, Abeltxok eta Antoniak, erabakia Joaquinen eskutan utzi zuten, eta bera izango zen izena erabakiko zuena. Eta borroka izan zen Monegroren gogoan. Gizon berri bati izena ematea bezain erraza den ekintza bat, etorkizuna erabakiko zuen zerbait bilakatu zen honentzat, zoritxarreko sorginkeria bat. Izpiritu berriaren etorkizuna erabakitzea zihoala zirudien.

«Joaquin —zioen honek—, Joaquin, bai, nik bezala, eta gero Joaquin S. Monegro izango da eta S. hori ere ezabatuko du, Sánchez gogaigarrria murriztean geldituko den S. hori, eta desagertuko da bere izena, bere semearena eta bere jatorria nerean murgilduta geratuko da... Baina, ez ote da hobe Abel Monegro izatea, Abel S.

Monegro, eta horrela Abel izena garbi geratzea? Abel da bere aitona, Abel da bere aita ere, nere suhia, nerea dena, nerea den Abel, nik hezi dudana. Eta zer ikusia du Abel izena jartzeak, bera, bestea, beste aitona, ez bada izango Abel eta ez bada inork ere izen horrekin ezagutuko, nik oroimenetan jartzen diodanarekin baizik, nik kopetean suz jartzen diodan izenarekin? Baina ez...»

Eta zalantzan zebilen bitartean, Abel Sánchez izan zen, pintorea, arazoa konpondu zuena:

— Joaquin izan bedi. Abel aitona, Abel alta, Abel semea, hiru Abel..., gehiegitxo dira! Gainera ez dut gogoko, kaltetu izena da hori...

— Onartu huen, bada, hire semeari jartzea — ostera Helenak.

— Bai, hartan tematu hintzen hi, eta kontra ez egitearren... Baina pentsa ezan sendagile izan ordeztu pintore izan bahunan, orduan... Abel Sánchez Zaharra eta Abel Sánchez Gaztea...

— Eta Abel Sánchez batek bakarrik izan behar dik... —ihardetsi zuen Joaquinek.

— Hamaika bazeudek ere, berdin zaidak — esan zuen hark—. Ni beti izango nauk ni.

— Eta nork jartzen dik zalantzan? —esan zuen lagunak.

— Tira, tira, izan bedi Joaquin, eta kitto!

— Eta ez bedi izan pintore, e?

— Eta ezta sendagile ere —bukatzeko Abelek, itxurazko txantxa jarraitzen zuenaren itxura eginez. Eta Joaquin jarri zioten izena.

XXXV

Haurra hartzen zuen Antoniak, bere amonak, zaintzen zuenak, eta bularrean jarriz babesteko bezala eta zoritxarren bat igarriko balu bezala esaten zion: «Egizu lo, semetxo, egizu lo, zenbat eta gehiago egin orduan eta hobe izango da eta. Osasuntsu eta sendo haziko zara horrela. Eta gero ere, hobe zaudela esan baino, batez ere etxe honetan. Zein izango duzu etorkizuna? Jainkoak gorde zaitzala bi odolak zure barruan borrokan badiraute!» Eta haurra lotan zela, amonak, besotan zuela, otoitz egin eta otoitz egin.

Eta hazten zihoan haurra Aitormena eta Oroitzapenekin batera eta amaren aldetiko aitonaren pintore ospearekin batera. Abelen ospea inoiz ere ez baitzen izan ordukoa bezain handia. Eta hau, bere aldetik, ez zirudien bere ospez gain beste ezerk arduratzen zuenik.

Behin, gogoz jarri zituen begiak bilobarengan eta goiz batetan lo ikusi zuenean esan zuen. «Bai modelo ederra!» Eta album bat hartuta, lo zegoen haurraren irudia egiteari eman zion.

— Penagarria da —esan zien— ez edukitzea hemen nere paleta eta margoak! Argiak masailan, melokotoizkoa dirudien horretan ematen dion distira zoragarria da. Eta ilearen kolorea! Eguzki izpiak dirudite bere ile kizkurrek!

— Eta gero —esan zuen Joaquinek—. Nola deituko hioke koadroari? Bihotz garbia?

— Koadroei izenburuak jartzea idazleei zegokiek, sendagilearen zeregina den bezala gaisotasunei izenak ematea, nahiz eta hauek ez sendatu.

— Eta nork esan dik, Abel, medikuntzaren helburua gaisotasunak sendatzea dela?

— Zein duk, bada, orduan?

— Hauek ezagutzea. Ezagutzea duk zientziaren helburua.

— Uste nian sendatzeko ezagutzen hituela. Zertarako diagu zintzotasunaren eta gaiztotasunaren zientziaren fruitua frogatzea ez bagituk gaisotasunaz aske geratuko?

— Eta zein duk artearen helburua? Zein duk gure bilobari egin berri dioan irudiaren helburua?

— Bere baitan dik helburua horrek. Gauza polita duk eta nahikoa duk.

— Zer duk polita? Hire irudia edo gure biloba?

— Biak.

— Hire irudia Joaquintxo baino ederragoa dela uste duk?

— Hi beti hireari? Joaquin! Joaquin!

Eta Antonia etorri zen eta sehaskatik hartu zuen haurra, aitona bat zein bestearengandik babestu nahiz bezala. Eta esaten zion: «Ai, seme, semetxo, ene seme, Jainkoaren bildots, etxeko argia, errurik gabeko aingerutxoa, ez zaitzatela irudika, ez zaitzatela senda! Ez zaitzez pintorearen modelo izan, ez zaitzez sendagilearen gaiso izan!... Utz itzazu bere arte eta zientziarekin eta zatoz zure amonaxorekin, zu, ene kuttuna, kuttuna, kuttuntxoa, ene kuttuntxoa! Zeu zara nere kuttuna; zeu zara gure kuttuna, zeu zara etxe honetako argia. Nik erakutsiko dizut aitonen alde otoitz egiten eta Jainkoak entzungo dizu. Zatoz nerekin, kuttuntxo, kuttun, bildots garbia, Jainkoaren bildotsa!» Eta Antoniak ez zuen ikusi nahi izan Abelek egindako zirriborroa.

XXXVI

Joaquinek jarraitzen zuen Joaquintxo bere bilobaren gorputz eta arimaren hazierak ematen zion larritasun gaitz berarekin. Nora aterako zen? Noren antza izango zuen? Zein odoletakoa zen? Kontu txikitari hasi zenean batipat ematen zion hau galdetzeari.

Aitona aztoratu egiten zuen beste aitonak, Abelek, biloba eduki zuenetik, bere semearen etxera sarri joateak eta haurtxoa berera eramatea eskatzeak. Bekaizti alen hari —halakotzat zutena bere errainaren aitak eta bere semeak ere— bihotza biguntzen zitzaiola zirudien eta baita umetu ere haren aurrean. Marrazkiak egitera joaten zitzaion, eta haurrak atsegin zuen hau. «Aitonatxo, santuak!», eskatzen zion. Eta Abel ez zen aspertzen txakur, katu, zaldi, zezen, giza irudiak egiteaz. Orain eskatzen zion zalduna, gero bi haur borrokan, Lime bat korrika atzean txakurra doakiola, eta irudiak errepikatzea.

— Ez diat inoiz ere hain gustora lan egin — esaten zuen Abelek—; hau duk arte hutsa eta gainontzekoa... hutsaren hurrengoa baino ez!

— Marrazki liburu bat egin dezakek haurrentzako —esan zion Joaquinek.

— Ez, horrek ez dik xarmarik, haurrentzat... ez! Hori ez huke artea, baizik...

— Pedagogia —esan zuen Joaquinek.

— Hori bai, zerbait izatekotan, baina artea ez. Hau duk arrea, hau; gure bilobak ordu erdi barri puskatuko dizkian marrazki hauek.

— Eta nik gordez gero? —galdetu zuen Joaquinek.

— Gorde? Zertarako?

— Hire osperako. Entzun diat ez zekiat zein pintore ospetsuri argitaratu dizkiotela bere semeei alaitzeko egin zizkien marrazkiak, eta hauek direla berak egin duen lan onena.

— Nik ez dizkiat egiten gero argitaratuak izateko, ulertzen? Eta ospeari dagokionez, hire isilkeria den horri dagokionez, Joaquin, jakin ezak bost ajola zaidala hori.

— Itxurati hori! Hori duk eta arduratzen hauen gauza bakarra...

— Bakarra? Gezurra zirudik orain esateak. Gaur arduratzen nauena haur hau duk. Eta artista handia izango duk!

— Jaso dezala heure argitasuna, ez?

— Eta heurea!

Aitonen arteko borroka ulertzen ez zuela begiratzen zuen haurrak, baina zerbait igarriz hauen jarreretan.

— Zer dik nere aitak —galdetzen zion Joaquin bere suhiak—, bilobarekin txotxotuta egoteko, neri jaramonik egin ez zidan horrek? Ez diat gogoratu ere egiten ni haurra nindukala halako marrazkiak egiten zizkidanik...

— Zahartzen ari gaituk, seme —erantzun zion Joaquinek—, eta zahartzaroak asko irakasten dik.

— Lehengo egunean, haurrak zerbait galde-tuta, negarrez ere ikusi nian. Hau duk, malkoak jauzi zitzaizkioan. Ikusi dizkiodan lehenak.

— Tira! Bihotzekoa duk hori!

— Nola?

— Hire aita dagoeneko urteen joanak eta lanak eta arterako etorrirako ahaleginek eta

zirrarek, murriztu diotela bihotzeko indarra eta edozein egunetan...

— Zer?

— Emango diala, hau da, emango digula ezusteko bat. Eta pozten nauk hau esateko aukera izateaz, esatea pentsatuta banian ere. Jakinarazi Helenari, hire amari.

— Bai, bera nekeaz kexu duk, arnasestuz. Izango duk... ?

— Hori duk. Hik jakin gabe begiratzeko eskatu zidak, eta begiratu diat. Zaindu egin behar duzue.

Eta hala eguraldia garrastu orduko Abel etxean geratzen zen eta bertara eramana zuten biloba, honek nahigabetzen zuela egun oso-rako, beste aitona. «Mainatzen ari zain —zioen Joaquinek; kendu egin nahi dit bere maitasuna; lehenengoa izan nahi du berak; bere semearekin egindakoaren mendekua hartu nahi du. Bai, bai, mendeku nahia da, mendeku nahia soilik. Kendu egin nahi dit geratzen zaidan pozgarri hau. Berriz ere bera da, bera, bera, lagunak kentzen zizkidana gazte ginela.»

Eta Abelek bitartean bilobari esaten zion asko maitatzeko Joaquin bere aitona.

— Gehiago maite zaitut zu —esan zion behin bilobak.

— Ez, bada! Ez nauzu ni maitatu behar bera baino gehiago; berdin maitatu behar dira guztiak. Lehenengo aita eta ama, gero aitona eta guztiak berdin. Joaquin aitonatxoa oso ona da, asko maite zaitu, jostailuak erosten dizkizu...

— Zeuk ere erosten dizkidazu...

— Ipuinak esaten dizkizu...

— Nahiago ditut zuk egiten dizkidazun marrazkiak... Tira, marraztuidazu zezen bat eta zalduna!

XXXVII

— Begira, Abel —esan zion handiro Joaquinek bakarrik gelditu orduko—; gauza larri batetaz hitzegitera natorkik, oso larriaz, hil ala biziko arazoaz.

— Nere gaisotasunaz?

— Ez; baina bai nereaz.

— Hireaz?

— Nereaz, bai! Gure bilobari buruz hitzegite-
ra natorkik. Eta ez ibiltzearren txikikeriatan,
nahitanahiezkoa duk hik alde egitea, urrunera
joatea, begibistatik kentzea; erregutzen diat,
arren eskatzen diat...

— Nik? Baina Joaquin, erotuta hago ala? Eta
zergatik?

— Haurrak hi maite hau ni baino gehiago. Bis-
tan duk hori. Ez zekiat zer egiten duan berare-
kin!..., ez diat jakin ere egin nahi...

— Begiz joko nian edo edaberen bat emango,
zalantzarik gabe...

— Ez zekiat. Marrazki horiek egiten dizkiok,
marrazki madarikatu horiek, alaitu egiten duk

hire arte madarikatuaren trebetasun maltzur-
kin...

— A, baina hori ere txarra al duk? Hi ez hago
ondo, Joaquin.

— Litekeena duk ondo ez egotea, baina
horrek ez dik ajola dagoeneko. Ez negok senda-
tzeko sasoian. Eta gaizki banegok, begirunea zor
didak. Begira, Abel, gaztaroa garrastu hidan
bada, bizitza osoan atzetik ibili zatzaizkidak
bada...

— Ni?

— Bai, hi, hi.

— Ez nekian bada.

— Ez egin itxurarik. Beti gutxietsi izan nauk.

Begira, horrela jarraitzekotan, bania, bene-
tan nere onetik ateratzen nauk eta. Badakik
inork baino hobeto, ez nagoela era horretako
erokeriarik entzuteko moduan. Hoa eroetxe
batetara senda hazaten edo zain hazaten eta
utzi pakean guri.

— Abel, Helena kendu hidan bada, ni gutxies-
tearren, ni zapaltzearren...

— Eta ez al duk izan Antonia?

— Ez, ez duk beregatik! Neri egindako mespretxua huen, iraina, iseka.

— Hi ez hago ondo; berriz esaten diat, Joaquin, hi ez hago ondo...

— Okerrago hago hi.

— Gorputzeko osasunez, noski baietz. Baze-kiat ez naizela luzaroan biziko.

— Gehiegi...

— Ni hiltzea nahi duk, ala?

— Ez, Abel, ez, ez diat hori esan —eta erregu negartiak duen doinua hartu zuen Joaquinek, esanez—. Hoa, boa hemendik, hoa beste nora-bait bizitzera, utz nazak berarekin..., ez iezadak kendu... gutxi geratzen zaik eta...

— Gutxi geratzen zaidalako, utz nazak berarekin.

— Ez, pozoitu egingo didak eta hire mainekin, neregandik urrunduko duk eta, ni nola gutxietsi erakutsi diok eta...

— Gezurra, gezurra, gezurra! Inoiz ere ez zidak entzun eta entzungo ere ezer hire aurka.

— Baina nahikoa duk heureganatzeko egiten duanarekin.

— Eta hik uste duk ni joanagatik, tartetik kenduagatik maitatuko hauela? Baina hiri, Joaquin, batek nahita ere ezin hau maite eta... Jendea uxatzen duk eta...

— Ikusten, ikusten...

— Eta haurrak ez bahau maite, hik maitatua izan nahi duan bezala, hi bakarrik edo bestiak baino gehiago alegia, arriskua igarri duelako duk, bildur delako...

— Zeren beldur? —galdetu zuen Joaquinek zurbilduz.

— Hire odol gaiztoaz kutsatuko denaren beldur.

Altxatu egin zen orduan, Joaquin, zurbil, Abelegana joan zen eta bi eskuak jarri zizkion, bi hatzamar bezala, lepoan, esanez:

— Gizatxar hori!

Baina berehala askatu zuen. Abelek garraisi egin zuen, eskuak bularrera eramanez, «Hiltzera noa!» hasperen egin zuen, eta azken arnasa bota zuen. Joaquinek esan zion bere buruari: «Bihotzekoak eman dio; honez gero ez dago konponbiderik!»

Orduantxe bilobaren ahotsa entzun zuen deika: «Aitonatxo! Aitonatxo!» Joaquin itzuli egin zen:

— Nori deika zabilta? Zein aitonari deika? Neri? —eta haurra isildu egin zenez, somatzen zuen misterioak beldurtuta—. Tira, esan, zein aitonari? Neri?

— Ez, Abel aitonatxoari.

— Abeli? Hor duzu..., hilda. Badakizu zer den hori? Hilda.

Hil zen besaulkian Abelen gorpua utzi ondoren, bilobarengana itzuli zen Joaquin eta beste munduko ahotsaz, esan zion:

— Hilda, bai! Eta nik hil dut, nik, Abel hil du Cainek, zure aitona Cainek. Hil nazazu orain nahi baduzu. Zu, nere biloba lapurtu nahi zidan; zure maitasuna kendu nahi zidan. Eta kendu egin dit. Baina bere errua izan da, berea.

Eta negarrari ekinez gehitu zuen:

— Zu, nere bihotza kendu nahi zidan, zu, zu, Cain gizajoari geratzen zitzaion pozgarri bakarra! Ez ote diote ezer ere utziko Caini? Zatoz hona, besarka nazazu.

Haurrak alde egin zuen ezer ere ulertzen ez zuela, ero batengandik ihesi bezala. Helenari deika joan zen ihesi:

— Amona, amona!

— Hil egin dut, bai... —jarraitu zuen bakar-ka—; baina berak ni hil nau; duela berrogei urte baino lehenagotik ni hil nahian zebilen. Bizitzaren bideak pozoitu zizkidan bere pozekin eta bere garaipenekin. Biloba lapurtu nahi zidan...

Pauso arinak entzutean, bere onera itzuliz Joaquin, itzuli egin zen. Helena zen, sartzen ari zen.

— Zer duk, zer gertatzen duk, zer ziok haurrak?

— Hire senarren gaitzak bukaera txarra izan dinala —esan zuen Joaquinek hotz.

— Eta hik?

— Nik ezin izan dinat ezer egin. Beti berandu ibiltzen gaitun halakotan.

— Hi.... hi izan haiz!

Gero joan egin zen, zurbil eta dardarti, baina egitea galdu gabe, senarraren gorpuarengana.

XXXVIII

Urtebete igaro zen Joaquin goibeltasun sako-
nean erorita zegoena. Utzi egin zituen bere Oroit-
zapenak, inor ez ikusten saiatzen zen, ezta bere
seme-alabak ere. Abelen heriotzak bere gaitza-
ren, alabak ezaguna zuenaren berezko bukaera
zirudien, baina misteriozko sargori astuna zebi-
len etxean. Helenak igarri zuen lutuzko jantzia
ondo zetorkiola eta saltzen hasi zen geratzen
zitzaizkion bere senarraren koadroak. Bilobaren-
ganako nolabaiteko ezinikusia zuela zirudien,
arreatxoa jaioa zitzaionarenganako, alegia.

Ohera galdu zuen, azkenean, Joaquin, gaitz
ezezagun batek. Eta hiltzera zihoala igarriz,
deitu egin zien behin seme-alabei, emazteari eta
Helenari.

— Egia esan zizuen haurrak —hasi zen—:
neuk hil nuen.

— Ez esan halakorik, aita —erregutu zuen
Abeltxok, suhiak.

— Ez da neri hitza kentzeko eta gezurretara-ko garaia. Neuk hil nuen. Edo hil izan banu bezalaxe, nere eskuetan hil baitzitzaidan...

— Hori beste gauza bat da.

— Nere eskuetan nuela hil zen, lepotik helduta. Ametsa bezala izan zen hura. Nere bizitza ametsa izan da. Horregatik izan da amets gaizto mingarri horiek bezalakoa, loaldi eta esnaldien artean, esnatu aurretik gainera etortzen zaizkigunak bezalakoa. Ez naiz bizi izan ez lotan..., nahi nuke!, eta ezta esna ere. Ez naiz oroitzen nere gurasoetaz, ez ditut oroitu nahi eta esperantza dut behin hilda daudela, ni ahaztu izatea. Eta Jainkoak ahaztuko ote nau? Onena litzateke agian, betirako ahaztea. Ahaztu nazazue, nere semeak!

— Inoiz ere ez! —esan zuen Abelek, eskua musukatzerara joan zitzaiola.

— Utz ezazu. Zure aitaren lepoan egon zen hura hiltzean. Utz ezazu! Baina ez nazazue ni utzi. Otoitz egin nere alde.

— Aita, aita! —erregutu zuen alabak.

— Zergatik izan ote naiz hain bekaizti, hain gaiztoa? Zer egin ote dut honelakoa izateko?

Zein esne edoskitu ote nuen? Gorrotozko edabea ote zen? Zergatik jaio ote nintzen gorrotoaren lurrean? Legea honako hau den lurrean: «Gorrotatu lagun hurkoa zure burua gorrotatzen duzun bezalaxe.» Izan ere, nere burua gorrotatuz bizi izan naiz; izan ere hemen denak bizi gara gure buruak gorrotatuz. Baina... ekarri haurra.

— Aita!

— Ekarri haurra!

Eta haurra iritsi zenean gerturarazi zuen:

— Barkatuko al didazu? —galdetu zion.

— Ez dago zer barkaturik —esan zuen Abelek.

— Esan baietz, jarri aitonaren ondoan —esan zion bere amak.

— Bai! —isilpean haurrak.

— Esan argi, ene seme, esan barkatzen didazula.

— Bai.

— Horrela, zurea, zurea soilik, zure buruaren jabe ez zaren horrena, garbia zaren horrena behar dut barkamena. Eta ez ahaztu zure aitona Abel, marrazkiak egiten zizkizuna. Ahaztuko duzu?

— Ez!

— Ez, ez ezazu ahaztu, ene seme, ez ezazu ahaztu! Eta zuk Helena...

Helena lurrera begira isilik zegoen.

— Eta zuk, Helena...

— Nik, Joaquin, aspaldi barkatu zintudan.

— Ez nizun hori eskatu nahi. Antoniaren ondoan ikusi nahi zaitut. Antonia...

Emakume gizajoa, begiak malkoz, bere senarraren buruaren gainean etzan zen babestu nahiko balu bezala.

— Zu izan zara hemen kaltetua. Ezin izan ninduzun sendatu, ezin izan ninduzun zintzotu...

— Baina izan zara eta, Joaquin... Hainbeste zoritxar jasan duzu!...

— Bai, arimaren gaitza. Eta ezin izan ninduzun zintzotu ez zaitudalako maitatu.

— Ez esan hori!

— Bai esaten dut, esan behar dut, eta hemen esaten dut, denen aurrean. Ez zaitut maitatu. Maitatu izan bazintut, zintzo izango nintzatekeen. Ez zaitut maitatu. Eta orain damu zait zu ez maitatu izatea. Berriz hasiko bagina...

— Joaquin! Joaquin! —oihukatzen zuen emakume gizajoak bihotz nahigabetu haren barru barrutik—. Ez esan halakorik. Nitaz erruki zaitez, zure semeetaz, entzuten zaituen bilobaz; uler-tzen ez zaituela badirudi ere, agian biharko egu-nean...

— Horregatik diot, errukiagatik. Ez, ez zaitut maitatu; ez zaitut maitatu nahi izan. Berriz hasi-ko bagina! Orain, orain da...

Ez zion utzi bukatzen emazteak, hilzorian zegoen ahoa estaliz bere ahoaz eta haren azken arnasa berean jaso nahi balu bezala.

— Honek sendatuko zaitu, Joaquin.

— Sendatu? Zeri deritzozu sendatzea?

— Oraindik urte batzutan bizi zaitezke, nahi baduzu.

— Zertarako? Zahartzarora iristeko? Beneta-ko zahartzarora? Ez, zahartzaroa ez! Zahartzaro bekaiztia ez da heriotzaren kontzientzia dagoe-neko hartzaroa baino. Hil egin behar duela dakien haurra da zaharra. Ez, ez dut zahartzaro-ra iritsi nahi. Bekaizkeriagatik haserretuko nintzateke bilobekin, gorrotatuko nituzke... Ez, ez..., gorroto gehiagorik ez! Maite ahal izan zintudan,

maitatu behar izan zintudan, hura izango bailitzateke nere sendagaia, eta ez zintudan maitatu izan.

Isildu egin zen. Ez zuen nahi izan edo ezin izan zuen jarraitu. Senideei musu eman zien. Bere azken hasperen nekea bota zuen ordu batzuen buruan.

IDATZIRIK GERATZEN DA!!